



# Nafarroako kontu orokorrak, 2017



*2018ko azaroa*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA

**AURKIBIDEA**

ORRIALDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA .....	3
I. SARRERA .....	5
II. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA .....	8
II.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera.....	8
II.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera. ....	12
III. IRITZIA.....	13
III.1. 2017ko urteko kontuei buruzko auditoretza finantzarioko iritzia .....	14
III.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia.....	16
IV. FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2017KO EKITALDIKO KONTUEN LABURPENA.....	18
IV.1 2017ko aurrekontuaren likidazioa .....	18
IV.2. 2017ko aurrekontu-emaiza .....	19
IV.3. Diruzaintza-gerakina 2017ko abenduaren 31n .....	19
IV.4. 2017ko abenduaren 31ko egoera-balantzea .....	20
IV.5. 2017ko emaitzen kontua.....	21
V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK .....	23
V.1. 2017ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.....	23
V.2. NFKAren eta haren EEAAen 2017ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa.....	28
V.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak .....	30
V.4. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea. ....	35
V.5. Langile-gastuak .....	36
V.6. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak .....	41
V.7. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentziengatiko gastuak .....	48
V.8. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa .....	53
V.9. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak.....	60
V.10. Bestelako diru-sarrerak.....	67
V.11. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak .....	68
V.12. Diruzaintza .....	71
V.13. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk .....	72
V.14. Sozietate eta Fundazio Publikoak.....	77
V.15. Ingurune teknologikoa.....	81
1. GEHIGARRIA. EUSKARA SUSTATZEKO GASTU PUBLIKOA .....	83
2. GEHIGARRIA. ANIMALIA BASATIAK SENDATZEKO ILUNDAINGO ZENTROA .....	87
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	89
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA. ....	93
2017KO KONTU OROKORRAREN OROITIDAZKIAREN LABURPENA.....	95

(Oharra: Aipatutako Kontu Orokorren oroitidazkia foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean: <https://camaradecomptos.navarra.es/es/actividad/informes>).





## Laburpen exekutiboa

Kontuen Ganberak Nafarroako 2017ko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu.

Honako hauek dira gure lanaren konklusio nagusiak:

1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2017ko abenduaren 31ko urteko kontuek zehatz islatzen dute, alderdi esanguratsuetan, ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitza ekonomiko eta aurrekontukoaren irudia; halere, salbuespen batzuk badaude, zerikusia dutenak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako araudia guztiz ez aplikatzearekin, inbentarioarekin eta montepioak sortutako betebeharrak ez erregistratzearekin.

2) 2017ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan islatutako informazioa, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin; horretan salbuespena da indarraldia amaituta duten kontratuei dagozkien edo kontratu-euskarririk ez zuten prestazioengatik ordaindutako gastua.

3) Nafarroako Foru Komunitateak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraukortasunaren arauak bete ditu, gastu-arauarekin lotutakoa izan ezik.

4) Foru Komunitateko Administrazioaren egoera ekonomiko-finantzarioak hobekuntza argia izan du adierazle gehienetan, eta horren arrazoia izan dira, hein batean, Estatuarekiko Hitzarmenaren ekarpenaren gaurkotzea eta 2016ko zerga-erreforma; halere, egoera horren ezaugarri izaten jarraitzen du kanpoko finantzaketara jo behar izateak aurreko finantza-pasiboen muga-egunei aurre egin ahal izateko; zorpetze handiago horrek hala zorraren amortizazio-egutegiaren, nola finantza-merkatuen interes-tasen bilakaeraren mendetasun nabarmena dakar.

5) Finantza-zamak gora egin du azken bost urteetan; halere, ehuneko 26 jaitsi da 2016koarekin alderatuta. Zorraren amortizazio-egutegiak berekin dakar guztizkoaren ehuneko 41 2023a baino lehenago amortizatu behar izatea; nabarmen-tzekoa da, halaber, ehuneko 15 gehigarri bat 2024an ordaindu beharko dela. Epe luzeko zorrari dagokionez, 2018ko martxoan, Standard&Poor's-ek Nafarroari "A, perspektiba positiboarekin" kalifikazioa eman zion, baimendutako maximoa.

6) Langileriari dagokienez, nabarmendu behar dugu egoera kezkarri bat gertatzen ari dela, zeinaren bereizgarria baita langile finkoen alden eta bajen kopuruaren alde garbi negatiboa; horrek, izan ere, lanpostu finkoen kopuruaren beherakada bat eta lanpostu hutsen igoera bat erakusten ditu; gainera, langile finkoen bajak ez dira estaltzen ari, eta egiturazko beharrak eta behar iraunko-





rrak aldi baterako langileekin estaltzen dira. Horrek eragin du enpleguaren behin-behinekotasuna handitu izana, 2017ko abenduaren 31n ehuneko 45era iristeraino; gure ustez, portzentaje hori gehiegizkoa eta kezkarria da, eta giza faktorearen halako deskapitalizazio bat inplikatzeko du. Halaber, ikusten da plantillan pixkanaka zahartze kezkarria bat gertatzen ari dela, horrek dakartzan ondorioekin. Izan ere, 2017an 50 urtetik gorakoak ziren langileen ehuneko 51.

7) Inbertsioen arloko gastuak, 2017an ehuneko 40 handitu bada ere 2016koaren aldean, txikia izaten jarraitzen du, eta 2010ean zegoenaren ehuneko 44 egiten du.





## I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea betez eta 2018rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontu Orokorrak fiskalizatu behar ditu; kontu horiek foru sektore publikoa osatzen duten entitateen kontuak hartzen dituzte.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (aurrerantzean, NFKA) eta haren erakunde autonomoen (aurrerantzean, EEAA) 2017ko ekitaldiko urteko kontuen erregulartasuna fiskalizatu dugu. Kontu horiek ekitaldian zehar egin diren aurrekontu- eta diruzaintza-eragiketa guztiak hartzen dituzte, eta honako dokumentu hauetan dautza, funtsean:

- Aurrekontuen likidazioa.
- Egoeraren balantzea.
- Emaidza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Oroitidazki orokor bat, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabal-tzen eta iruzkintzen duena.

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da gure iritzia ematea honako honi buruz: ea NFKAren eta haren EEAAen 2017ko ekitaldiko urteko kontuek irudi zehatza erakusten duten alderdi esanguratsu guztiei buruz, hots, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei buruz ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta iriz-pideei jarraituz.

Urteko kontuen finantza-auditoretzarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea NFKAk eta bere EEAAek ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Egin dugun fiskalizazioaren beste helburu bat izan da Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko aurreko txostenetan egindako gomendioen jarraipena egitea.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, NFKAri 2017an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 24/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.





- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.
- 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa (AEFILO, aurrerantzean)
- 84/2017 Foru Agindua, ekainaren 22koa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, 2017ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak eta Balantze Kontuak ixteko eta likidatzeko eta 2018ko ekitaldia irekitzeko arauak onesten dituena.
- Indarra duen araudi sektoriala.

Txostenak bost epigrafe dauzka, sarrera hau barne. Bigarrenean, foru sektore publikoaren zedarritze bat jasotzen du, eta hirugarrenean finantzei eta legeria betetzeari buruz daukagun iritzia ematen dugu, 2017ko ekitaldiko NFKAren eta haren EEAAen urteko kontuei dagokienez; laugarrenak kontabilitateko egoerorri nagusien laburpen bat jasotzen du; eta bosgarrenean, honako alderdi hauei buruz egindako lanean lortutako konklusio eta gomendioak aipatzen ditugu: NFKAren 2017ko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetzea, Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendio nagusien jarraipena, beste kudeaketa arlo garrantzitsu batzuk, eta enpresen eta fundazioen sektore publikoa.

Txostenak, gainera, bi gehigarri dauzka, zeinetan azaltzen baitira Ganbera honek jaso eta lan honen norainokoan sartzea egokitzat jo zuen bi eskaerari erantzuteko egindako azterketaren konklusioak:

- Hainbat erakunde pribaturentzat eta euskara sustatzeko ekitaldiak finantzatzeko erabilitako gastu publikoaren azterketa.
- Ilundaingo Basa Fauna Sendatzeko Zentrorako diru-laguntzen eta kostuen fiskalizazioa.

Azkenik, txostenak Nafarroako Kontu Orokorren 2017ko ekitaldiko oroitidazkiaren laburpen bat badauka, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egina. Haren testu osoa hemen kontsulta daiteke:

[https://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2017](https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2017)

Gure jarduketan aintzat hartu dira Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuak egindako txostenak.

Beren kontuak Nafarroako Kontu Orokorretan sarturik dauzkaten Nafarroako Foru sektore publikoaren gainerako entitateetarako, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:





- Nafarroako Parlamentuaren, Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Kontseiluaren 2017ko urteko kontuak Ganbera honek fiskalizatu ditu.
- Kontuen Ganberaren beraren 2017ko urteko kontuak auditoretza pribatuko enpresa batek fiskalizatu ditu.
- Urteko kontuak eta sozietate eta fundazio publikoen legezotasuna Kontuhartze Orokorraren Zerbitzuaren zuzendaritzapean auditatzen dituzte auditoretzako enpresa pribatu batzuek; horri dagokionez, kasuko auditoretza-txostenak aztertu ditugu.

Halaber, aintzat hartu dira Kontuen Ganbera honek 2017ko ekitaldiari buruz egindako honako txosten hauek:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko aldi baterako langileen kontratazioa (2016-2017).
- Iruñerriko Garraioaren Hiria (1991-2017).
- Salestarren udalez gaindiko plan sektorialaren operazioa. Datozen hilabeteetan argitaratuko da.
- 10/2014 Foru Legearen aplikazioa Foru Sektore Publikoaren abalak eta maileguak ematerakoan (2014-2017).
- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren laguntza-kontratuak.
- Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (2013-2017).

Azterketa lana 2018ko apirila eta iraila bitartean egin dute auditoretzako bost teknikariek eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, haren EEAAetako, sozietate publikoetako eta fundazio publikoetako langileei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak ezagutzera eman ziren, Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko kontseilariak alegazioak aurkez zitzan.

Aipatutako departamentuko kontseilariak alegazioak aurkeztu ditu, baina alegazio horiek ez dute aldaketarik ekarri gure txostenean. Ganbera honek haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenean gehitu ditugu.





## II. Foru sektore publikoaren zedarritzea

Foru sektore publikoaren 2017ko zedarritzea bi ikuspuntutatik azter daiteke:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.
- AEFILOaren eraginetarako.

### II.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera

Honako hauek dira 2017an foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:


- NFKA eta hari atxikitako EEAAk.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- NFKAren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.
- NFKAk sortutako fundazio publikoak eta haren erakunde publikoak, bai eta, pribatuak izanda ere, geroztik publikotzat hartuak izateko baldintzak betetzen dituztenak ere (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 125. artikulua).







Hauxe zen foru sektore publikoaren 2017ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa:





Aurreko irudia aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2017ko abenduaren 31n, NFKAren egiturak bederatzi departamentu zeuzkan; horietatik, zortzi EEAARI atxikita zeuden.

- NFKAk 17 enpresaren partaidetzen gehiengoa zeukan, aipatutako datan. Zuzenean parte hartzen zuen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLU (aurrerantzean, NEKP) enpresan, zeinean kapitalaren ehuneko 100 baitzeukan; zeharka, berriz, NEKPren eta haren menpeko sozietateen bitartez, hurrengo 16 sozietate hauetan:

Enpresa publikoa	Partaidetzaren ehuneko-koa NEKP	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	gaiaz gaiko azpiegiturak eta kultura-, aisialdi- eta kirol-azpiegiturak
Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	100	Tokian tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza SAU (POSUSA)	100	ingurumen jarduera eta industria ehundura berrosatzea
Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta haren eratorriak produzitzea eta merkaturatzea
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	100	Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa
Natural Climate Systems SA (MIYABI)	100	Sustapena, eraikuntza eta zaharberritzea, eraginkortasun energetikoko irizpideak erabiltzea
Start Up Capital Navarra SL	68,46	Enpresak ezagutarazi eta sustatzea, Trabajos Catastrales SA (TRACASA)
TRACASA Instrumental SL	100	Katastroa, kartografia

2016arekin alderatuta, ez da aldaketarik izan enpresa-kopuruan; halere, Start Up Capital Navarra SLren partaidetza ehuneko 59,50ekoa izatetik ehuneko 68,46 izatera iritsi da.

- Honako hauek dira NFKAren fundazio publikoak 2017ko abenduaren 31n:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa Miguel Served	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Pertsona Helduen Tutoretza Miguel Induráin	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza
	Kirola eta ariketa fisikoa sustatu eta garatzea Nafarroan





Miguel Induráin Fundazioa ere publikotzat hartzen da Gobernuaren 2017ko martxoaren 15eko erabakitik aurrera.

Honako hauek dira Foru Sektore Publikoa osatzen duten entitateen 2017ko abenduaren 31ko datu ekonomiko eta langile-gastu nagusiak, Kontu Orokorren oroitidazkian zabalago eta iruzkinekin ageri direnak:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa:

(euroak, milioitan)

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak
Departamentuak	597,40	2.197,50
EEAAk	3.930,83	1.786,25
<b>Guztira</b>	<b>4.528,23</b>	<b>3.983,75</b>
<b>Langileak, 2017ko abenduaren 31n</b>		<b>28.020</b>

- Sozietate publiko bateratuak:

(euroak, milakotan)

	Ekitaldiko emaitza	Diru-laguntzak Foru Administrazioa	Epe luzeko zorpe- tzea	Ondarea gar- bia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
17 sozietateak bateratu on- dorengo datuak	-369	10.153	120.549	641.542	1.1880

- Fundazioak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Fundazioak	Ekitaldiko sobe- rakina	Ondarea garbia	Enplegatu kopu- raren batez bes- tekoa
Bost fundazio publikoak, guztira	219	1.839	154

- Beste entitate batzuk:

Entitatea	Aitortutako esku- bideak	Aitortutako bete- beharrak	Foru Ogasunari itzuli- tako gerakina	Langileak, 2017ko abenduaren 31n
Nafarroako Parlamentua	13.639.317	11.019.207	1.920.037	73
Kontuen Ganbera	2.583.383	2.339.099	131.525	35
Arartekoa	755.574	658.720	96.854	8
Nafarroako Kontseilua	372.541	295.906	76.635	2

Hemen xehetasunak emanda azaldu dugun foru sektore publiko horri buruz egin dugu lan hau. Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudia kontuan hartuta, ondoren xehetasunekin azal dutakoa da txosten honen V.3 epigrafean ezarritako arauen betetzea aztertzeko aintzat hartu duguna.





## II.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera.

Kontabilitate nazionaleko terminoetan (SEC´2010), 2017rako honako hauek jotzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorekotzat:

- NFKA eta haren EEAAk.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Foru erkidegoko sozietate publikoak, gehien bat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen dituztenak edo ondasunak sortzen dituztenak. Zehazki, 2017rako, hurrengo 14 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikotzat: CPEN, CNAI, CEIN, CAT, GAN, INTIA, NICDO, NASERTIC, SODENA, Tracasa, Tracasa Instrumental, Start UP Capital Navarra, Caviar Per Se, zeina likidatzen ari baita, eta POSUSA, zeina egoera berean baitago eta 2017an lehenengo aldiz jasotzen baita txostenean.
- Bestetik, zortzi fundazio sartu dira: aipatutako lau fundazio publikoak, Miguel Induráin Fundazioa kenduta, eta mendekotasun ekonomikoa duten beste lau hauek: Cener-Ciemat Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Centro de Arte Contemporáneo de Huarte Fundazioa eta Instituto de Investigación Sanitaria de Navarra Fundazioa, zeina 2017an lehenengo aldiz jasotzen baita txostenean.





### III. Iritzia

NFKAren eta haren EEAAen 2017ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haien kontabilitateko egoera-orriak modu laburtuan jaso ditugu txosten honen IV. epigrafean; oroitidazkia, berriz, osorik erantsi dugu.

#### *Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna*

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua da urteko kontuak egiteko erantzukizuna duena, eta kontu horiek halako moduz egin behar ditu non zehatz irudikatuko baitituzte NFKAren eta haren EEAAen aurrekontu-betetzea, ondare, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden urteko kontuak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

Nafarroako 2017ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua 2018ko ekainaren 27ko erabakiaren bitartez onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, eta Nafarroako Parlamentura igorri zuen. Parlamentuak, Mahaiaren irailaren 3ko erabakia tarteko, Kontuen Ganberara igorri zuen.

Kontu Orokorrak egiteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

#### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea NFKAren eta haren EEAAen 2017ko urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, honako helburuarekin: arrazoizko segurtasun bat izatea urteko kontuetan akats materialik ez egoteari buruz, eta ekitaldian egindako jarduerak zein aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan islatutako informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditortza-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren





ondoriozkoa denean eta legez-kotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legez-kotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren araberrako auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

### III.1. 2017ko urteko kontuei buruzko auditoretza finantzarioko iritzia

#### *Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenekin*

a) Ganbera honek bere aurreko txostenetan behin eta berriz esan duen moduan, ez dira aplikatzen beren zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorrean, jasota dauden kontuak, irizpideak eta printzipioak, nagusiki zergen, zordunen, tributu-hartzekodunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokia egitekoak. Horrekin batera kontuan hartu beharra dago disfuntzio batzuk badaudela, batetik, hirugarrenen kontabilitate lagungarriaren eta tributu kudeaketaren (CATyGT) eta, bestetik, SAPGE21 kontabilitate sistemaren artean, eta, halaber, garrantzi txikiagoa duten beste akats batzuk badaudela, kontuak edo epigrafeak sailkatzetarakoan; horrek berekin dakar diru-sarreraren aurrekontuaren likidazio-egoeraren egitura, aurrekontu-emaitzarena, diruzaintzako gerakinarena eta balantzearena bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako ereduekin, eta aurreikusitako egoera-orri guztiak ere ez aurkeztea.

b) Ez balantzean, ez oroitidazkian ez da informaziorik erregistratu NFKAren langile funtzionario jardunekoan eta pasiboen montepioek sortutako betebeharrak aktuariari buruz. Nafarroako Gobernuak egindako azterlan eta balioespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2018-2087 aldirako kostua 1.980 milioi euro konstante ingurukoa izanen da.

c) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik “Ibilgetu materialen” kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz —saldo hori 2.269,84 milioi eurokoa zen 2017ko abenduaren 31n—, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

#### *Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.*

Gure iritzian, “Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenekin” ataleko a) eta b) paragrafoetan azaldutako egitateen eraginen salbuespenarekin eta c) paragra-





foan deskribatutako norainokoaren mugaren balizko eraginaren salbuespenarekin, erantsitako urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, NFKAren eta haren EEAAen ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideei jarraituz.

### *Azpimarra egiteko paragrafoa*

Arreta deitu nahi dugu urteko kontuetan jasotako honako alderdi hauei buruz, zeinek eraginik ez baitute emandako iritzian:

- Kontu Orokorraren oroitidazkian aipatzen den bezala, 2017ko ekitaldian aurrekontuari irizpide hori (Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorraren kontzeptuen esparruan jasotakoa) betetzen duten gastuak egotzi zaizkio; izan ere, irizpide horrek gastu baten aurrekontu-egozpena lotzen du abenduaren 31 baino lehen betebeharraren aitorpenaren egintza administratibo bat egotearekin.

Bestetik, desagertu egiten da aurrekontuari hartzekodunaren eskubidea egiaztatzeke daukaten gastuak egozteko aukera (“erresultak” deitutakoak), eta horrek eragina izan du nagusiki diru-laguntza arrunten eta kapitaleko diru-laguntzen partida batzuen aurrekontu-betetzean, horrek 402. kontuaren saldoan ekarri duen gutxitze korrelatiboarekin (urteko ekitaldiko gastuen erresultak).

Aurreko urteekin alderatuta izan den irizpide-aldaketa hori Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren ekainaren 22ko 84/2017 Foru Aginduan jaso zen; haren bidez, 2017ko ekitaldiko Nafarroako Orokorrak Kontuak ixteko eta likidatzeko eta 2018ko ekitaldia irekitzeko arauak ezarri ziren.

Egiaztatu dugu irizpide berri horren aplikazioak ekarri duela 2017an gutxienez 10,13 milioiko gastua sortzea, “Aurrekontuari aplikatzeke dauden hartzekodunak” izeneko 413 kontuan kontabilizatu gabea.

- 2017ko abenduaren amaieran, Nafarroa eta Estatuak azkenean akordio batera iritsi ziren 2015-2019 urteetarako Hitzarmen Ekonomikoaren ekarpenaren gaurkotzea dela eta; zehazki, 2015erako 510 milioi euroko ekarpena ezarri zen, eta kopuru hori hurrengo urteetan eguneratuko zen hitzartutako zergengatik Estatuak lortutako diru-bilketa likidoan izandako aldearen arabera.

Baldintza horiek kontuan hartuta, 2016rako ekarpena 498 milioi eurokoa izanen zela ezarri zen; 2017rako behin-behineko ekarpena, berriz, 509 milioi eurokoa; eta 2015eko eta 2016ko erregularizazioak, azkenik, Nafarroak jada egina zuen behin-behineko ekarpena kontua izanda, Foru Komunitatearen aldeko 129 milioiko saldoa eman zuen. 2016ko doikuntza fiskalen erregularizazioa gehituz





gero, 2017ko abenduko akordioaren arabera egina, Nafarroaren aldeko amaierako zenbatekoa 203 milioikoa izan da.

Egitate horrek eragin du hobekuntza nabarmena gertatzea NFKAren egoera ekonomiko-finantzarioaren adierazle garrantzitsuenetako batzuetan.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina positiboa da, eta 359,21 milioikoa izatera iritsi da; horretan, hobekuntza argia izan da 2016ko ekitaldiarekiko; izan ere, hartan, balioa 183,62 milioi negatiboa izan zen. Nabarmentzekoa da, halaber, funts likidoek ehuneko 348 egin dutela gora, 2016an 140,92 milioikoak izatetik 2017an 631,14 milioikoak izatera pasa baitira.

- 2017ko abenduaren 31n, Foru Komunitatearen finantza-zorra 3.258,10 milioikoa zen: 2.968,26 milioi epe luzeko zor gisa sailkatuta eta 289,84 milioi epe laburreko zor gisa. Zenbateko horrek esan nahi du 2016koaren aldean ehuneko seiko (200,54 milioi) igoera gertatu dela, eta ekitaldiko diru-sarrerara arrunten ehuneko 82 dela.

- Tributuen diru-bilketa likidoa 2017an 3.682,67 milioikoa izan da, 2016koa baino ehuneko 13 handiagoa; zenbateko horrek Nafarroako BPGaren<sup>1</sup> ehuneko 19 egiten du.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, 2017an, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren eraginetarako eta kontabilitate nazionaleko terminoetan, eskakizunak bete zituen, gastu-arauarekin lotutakoa izan ezik, aurreko ekitaldian ez bezala, hartan guztiak bete baitzituen.

**Azken batean**, NFKAren egoera ekonomiko-finantzarioak hobekuntza argia izan du adierazle ekonomiko-finantzario gehienetan, eta horren arrazoia izan dira, hein batean, Estatuarekiko Hitzarmenaren ekarpenaren gaurkotzea eta zerga-erreformaren eraginak; halere, egoera horren ezaugarri izaten jarraitzen du kanpoko finantzaketara jo behar izateak aurreko finantza-pasiboen muga-egunei aurre egin ahal izateko; zorpetze handiago horrek mendetasun nabarmena dakar hala zorraren amortizazio-egutegiarena, nola finantza-merkatuen interes-tasen bilakaerarena, eta hori arrisku finantzario bat da.

### III.2. Legezkotasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia

#### *Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin*

NFKAko departamentuek Kontu-hartze Zerbitzuari emandako informazioaren arabera, kalkulatu dugu 2. kapituluko —ondasun eta zerbitzu arruntak— gastuaren ehuneko 28,56 (167,75 milioi) indarraldia amaituta duten edo kontratu-euskarririk ez duten kontratuetan oinarrituta egonda ere ordaindu diren prestazioei dagokiela.

<sup>1</sup> Nafarroako 2017ko BPGa 19.827 milioikoa izan dela jo da (Estatuko Estatistika Institutuaren arabera).







### *Legeriaren betetzeari buruzko iritzia*

Gure ustez, “Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin” ataleko paragrafoan deskribatu ditugun egitateen eraginengatik ez bada eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Nafarroako NFKAren eta haren EEAAen 2017ko ekitaldiko urteko kontu orokorretan islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.





#### IV. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2017ko ekitaldiko kontuen laburpena

Ondoren, NFKAren eta haren EEAAen 2017ko urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenen laburpena aurkezten dugu.

##### IV.1 2017ko aurrekontuaren likidazioa

2017ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldaketak	Bateratua	Baimendua	Erabilia	Gauzatua	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.255.456	3.330	1.258.787	1.237.653	1.237.582	1.237.582	98,32	1.237.582
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	635.850	-13.199	622.651	595.919	593.707	587.273	94,32	529.760
Finantza-gastuak	98.338	-65	98.273	90.871	90.871	90.871	92,47	90.868
Transferentzia arruntak	1.433.983	86.788	1.520.771	1.507.642	1.499.271	1.488.898	97,90	1.465.713
Luzapenerako edo kontingentzietarako funtsa	11.770	-9.584	2.187	0	0	0	0,00	0
Inbertsio errealak	135.071	2.783	137.855	127.967	127.252	119.149	86,43	82.561
Kapital-transferentziak	160.984	-5.706	155.279	125.878	120.600	107.123	68,99	78.583
Finantza-aktiboak	36.496	24.504	61.000	58.929	58.929	58.929	96,91	58.929
Finantza-pasiboak	293.930	0	293.930	293.930	293.930	293.930	100,00	293.930
<b>Guztira</b>	<b>4.061.878</b>	<b>88.853</b>	<b>4.150.731</b>	<b>4.038.789</b>	<b>4.022.142</b>	<b>3.983.755</b>	<b>95,98</b>	<b>3.837.926</b>

2017ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.620.425	25.000	1.645.425	1.726.012	104,90	1.673.671
Zeharkako zergak	1.838.380	0	1.838.380	1.932.392	105,11	1.930.736
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	94.180	1.590	95.771	124.001	129,48	92.773
Transferentzia arruntak	42.654	19.633	62.287	178.368	286,36	153.305
Ondare bidezko diru-sarrerak	6.032	0	6.032	10.372	171,95	5.141
Inbertsio errealen besterentzea	400	0	400	283	70,75	262
Kapital-transferentziak	18.093	223	18.317	10.351	56,51	8.719
Finantza-aktiboak	21.513	25.041	46.553	48.447	104,07	46.181
Finantza-pasiboak	420.201	17.365	437.566	498.008	113,81	498.008
<b>Guztira</b>	<b>4.061.878</b>	<b>88.853</b>	<b>4.150.731</b>	<b>4.528.234</b>	<b>109,09</b>	<b>4.408.976</b>





## IV.2. 2017ko aurrekontu-emaiza

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	3.971.145	3.404.624	566.521
2. Kapital-eragiketak	10.634	226.272	-215.638
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	48.447	58.929	-10.482
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza	4.030.226	3.689.825	340.401
II. Finantza-pasiboen alde garbia	498.008	293.930	204.078
<b>III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa</b>			<b>544.479</b>
4. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako betebeharrak aitortuak			0
5. Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako betebeharrak aitortuak			0
6. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			10.103
7. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze positiboak			3.171
<b>V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5+6)</b>			<b>551.411</b>

## IV.3. Diruzaintza-gerakina 2017ko abenduaren 31n

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>221.210.234</b>
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	765.436.008
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-502.295.249
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea	-2.152.040
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea (hirugarrenen kontabilitate laguntzailea)	-42.968.659
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	7.212.060
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-4.900.801
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.005.769
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-126.853
<b>+ Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>-437.780.450</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-408.649.129
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-7.862.471
Aurrekontuz kanpoko gastuak	-21.268.850
<b>+ Funts likidoak</b>	<b>631.135.789</b>
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>414.565.573</b>
Diruzaintza-gerakina, Toki Ogasunen Funtsari atxikitakoa	50.523.395
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	4.013.693
PFEZren % 0,7ri atxikitako diruzaintza-gerakina	818.692
<b>Atxikitako diruzaintza-gerakina</b>	<b>55.355.780</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b>	<b>359.209.793</b>





#### IV.4. 2017ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

eurotan)

AKTIBOA	2017ko ekitaldia	2016ko ekitaldia
<b>A) Ibilgetua</b>	<b>2.806.341.257</b>	<b>2.819.319.088</b>
<b>III. Ibilgetu materialak</b>	<b>2.269.837.824</b>	<b>2.218.327.677</b>
1. Lursailak eta eraikinak	1.527.036.478	1.501.283.482
2. Instalazio teknikoak eta makineria	71.075.757	69.405.710
3. Tresneria eta altzariak	401.916.231	388.433.588
4. Bestelako ibilgetua	269.809.358	259.204.897
<b>V. Finantza-inbertsio iraunkorrak</b>	<b>536.503.433</b>	<b>600.991.411</b>
1. Epe luzerako baloreen zorroa	540.187.255	534.493.407
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	74.066.473	67.385.457
4. (Hornidurak)	-77.750.295	-887.453
<b>C) Aktibo zirkulatuak</b>	<b>948.197.149</b>	<b>496.171.312</b>
<b>I. Izakinak</b>	<b>18.623.835</b>	<b>17.669.835</b>
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	18.623.835	17.669.835
<b>II. Zordunak</b>	<b>298.419.502</b>	<b>337.532.940</b>
1. Aurrekontuko zordunak	804.754.661	818.678.712
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	107.883	143.635
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak adminis- tratzeagatiko zordunak	365.696	395.994
5. Bestelako zordunak	5.527.761	3.787.345
6. (Hornidurak)	-512.336.499	-485.472.746
<b>III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak</b>	<b>18.024</b>	<b>5.779</b>
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	0	510
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	18.024	5.269
<b>IV. Diruzaintza</b>	<b>631.135.789</b>	<b>140.962.758</b>
<b>Aktiboa, guztira (A+C)</b>	<b>3.754.538.406</b>	<b>3.202.840.688</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017ko ekitaldia	2016ko ekitaldia
<b>A) Funts berekiak</b>	<b>-19.518.265</b>	<b>-301.677.846</b>
<b>I. Ondarea</b>	<b>-247.812.397</b>	<b>-97.910.167</b>
1. Ondarea	-247.812.397	-97.910.167
<b>III. Aurreko ekitaldiko emaitzak</b>	<b>-53.576.251</b>	<b>-149.902.230</b>
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	-53.576.251	-149.902.230
<b>IV. Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>281.870.383</b>	<b>-53.865.449</b>
<b>C) Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>2.979.579.541</b>	<b>2.721.614.621</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>1.359.560.412</b>	<b>1.440.847.817</b>
1. Obligazioak eta bonuak	1.359.560.412	1.440.847.817
<b>II. Epe luzeko bestelako zorrak</b>	<b>1.620.019.129</b>	<b>1.280.766.804</b>
2. Bestelako zorrak	1.619.574.611	1.280.319.604
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	444.518	447.200
<b>D) Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>794.477.130</b>	<b>895.553.625</b>
<b>I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak</b>	<b>289.839.293</b>	<b>347.266.616</b>
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	271.973.534	332.735.650
2. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	17.865.759	14.530.966
<b>III. Hartzekodunak</b>	<b>504.637.837</b>	<b>548.287.009</b>
1. Aurrekontuko hartzekodunak	441.052.086	459.311.368
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak adminis- tratzeagatiko hartzekodunak	6.838.127	5.664.535
4. Administrazio publikoak	3.458.494	3.212.248
5. Beste hartzekodunak	50.417.867	58.333.014
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	2.871.263	21.765.844
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)</b>	<b>3.754.538.406</b>	<b>3.315.490.400</b>





## IV.5. 2017ko emaitzen kontua

(eurotan)

Zor	2017ko ekitaldia	2016ko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	261.778.494	255.636.495
b) Ekitaldiko kontsumoak	261.778.494	255.636.495
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.754.736.004	1.580.969.573
a) Langile-gastuak.	1.148.365.174	1.086.750.594
a.1) Soldatak eta ordainsariak	967.274.106	918.698.062
a.2) Gizarte-zamak	181.091.068	168.052.532
b) Gizarte-prestazioak	89.920.091	86.009.632
d) Trafiko horniduretako aldeak	26.863.753	-13.652.380
d.1) Horniduren aldea eta kobraezinak diren kredituen galerak	26.863.753	-13.652.380
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	325.307.855	321.958.157
e.1) Kanpoko zerbitzuak	321.828.275	320.084.098
e.2) Tributuak	53.290	58.705
e.3) Askotariko gastuak	3.426.290	1.815.354
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	87.416.289	99.016.637
f.1) Zorreatatik	87.416.289	99.016.637
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea	76.862.843	886.933
4. Transferentziak eta diru-laguntzak	1.609.563.473	1.521.120.789
a) Transferentzia arruntak	1.493.151.981	1.429.016.701
c) Kapital-transferentziak	116.411.492	92.104.088
5. Ez-ohiko galera eta gastuak	85.169.950	111.359.158
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0	144.216
c) Aparteko gastuak	64.917.079	51.871.860
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	20.252.871	59.343.082
<b>Saldo hartzekoduna (aurrekia)</b>	<b>281.870.383</b>	
Zorra, guztira	3.993.118.304	3.469.086.015





(eurotan)		
Hartzeko	2017ko ekitaldia	2016ko ekitaldia
B) Diru-sarrerak		
<b>1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak</b>	<b>3.685.624.451</b>	<b>3.235.275.297</b>
<b>a) Tributu bidezko diru-sarrerak</b>	<b>3.671.213.295</b>	<b>3.219.184.072</b>
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.288.708.418	1.186.540.933
a.2) Sozietateen gaineko zerga	303.958.016	205.097.291
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	45.771.673	43.051.133
a.4) Ondarearen gaineko zerga	39.037.444	31.844.693
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	48.549.460	33.478.970
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta EJDen gaineko zerga	54.504.939	48.797.872
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.306.835.866	1.221.861.729
a.11) Zerga bereziak	571.050.823	436.207.944
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	12.796.656	12.303.508
<b>b) Kotizazio sozialak</b>	<b>1.882.556</b>	<b>2.207.667</b>
<b>c) Zerbitzu-emateak.</b>	<b>12.528.600</b>	<b>13.883.558</b>
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	12.528.600	13.883.558
<b>2. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>108.718.363</b>	<b>99.596.996</b>
<b>a) Diru-itzultzeak</b>	<b>11.377.652</b>	<b>9.139.211</b>
<b>b) Salmentak eta zerbitzu-emateak</b>	<b>40.520.721</b>	<b>40.805.213</b>
<b>c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>40.525.163</b>	<b>38.532.023</b>
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	40.525.163	38.532.023
<b>f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk</b>	<b>16.294.827</b>	<b>11.120.549</b>
f.1) Beste interes batzuk	16.294.827	11.120.549
<b>3. Transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>188.727.239</b>	<b>55.047.253</b>
a) Transferentzia arruntak	178.368.109	47.664.041
b) Kapital-transferentziak	10.359.130	7.383.212
<b>5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak</b>	<b>10.048.251</b>	<b>25.301.020</b>
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	54.990	1.597.853
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	9.993.261	23.703.167
<b>Saldo zorduna (desaurrezia)</b>		<b>53.865.449</b>
<b>Hartzekoa, guztira</b>	<b>3.993.118.304</b>	<b>3.469.086.015</b>





## V. Ondorioak eta gomendioak

Ondoren, egindako lanetik atera ditugun oharrak eta ondorioak azalduko ditugu, bai eta Ganbera honen ustez kudeaketa hobetzen lagundu dezaketen gomendioak ere.

### V.1. 2017ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak

2016ko abenduaren 28an, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zen, 4.061,88 milioi euroko zenbatekoarekin; kopuru hori, halere, 3.524,29 milioira jaisten da AEFILOa betetzearen eraginetarako (gastu-sabaia).

2017ko aurrekontuak badu gastuetako partiden artean kontingentzietarako funts bat, AEFILOaren eskakizunekin bat. Funts horrek, hasiera batean, 11,77 milioi euroko hornidura du, aurrekontuetan aurreikusi ezin izan diren premia geroraezin eta eskatu ahalakoak ez direnei aurre egin ahal izateko. Funts horren araupetzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 42. artikuluan jasota dago.

#### *Aurrekontu-aldaketak*

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko biko igoera garbia izan dute (88,85 milioi euro) aldaketan bitartez, eta kreditu bateratuak 4.150,73 milioi-koak izatera iritsi dira.

2017an zehar onetsitako aldaketak honako hauek izan ziren:

(euroak, milakotan)

Aurrekontu-aldaketak	Diru-sarrera handiagoekin finantzatuak	Beste gastu batzuk gutxituz finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	35.029	64.243
Kreditu sorkuntza	28.824	0
Kredituak sartzea	0	146
Kreditu-osagarriak	0	16
Aparteko Kredituak	25.000	544
<b>Guztira, 2017</b>	<b>88.853</b>	<b>64.949</b>

Aurrekontuaren ondorioetarako, diru-sarrera handiagoak baliatuz finantzatu-tako aldaketek baizik ez dakarte aurrekontuko kredituen guztizko zenbatekoa aldatzea. Gainera, aurreko taulan, ez dira kreditu-transferentziak sartzen, zeren eta eragiketa horiek ez baitute, ezta ere, aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Bestalde, aurreikusitako Kontingentzietarako Funtsaren ehuneko 81 erabili zen (9,58 milioi euro), Nafarroako Gobernuak hala erabakita, honako epai hauetatik heldu diren bi kalte-ordain finantzatzeko: Garraioaren Hiriaren desjabetzea eta prezio zuena ezartzea (bederatzi milioi euro, zeinak mailegu baten kon-





tratazioari gehitu baitzitzaizkion), eta Nafarroako Erresuma kiroldegiaren 2. fasearen exekuzioarekin lotutako beste bat (guztiz finantzatu zen, eta 0,58 milioi izan ziren).

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legeriari jarraituz, legezketasun txostenak egin zituen Ogasuneko kontseilariaren eskumene-koak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz, eta ondorioztatu du organo eskudunak onetsi zituela eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; besteak beste, finantzabideen egokitasunari dagokio-ona. Ganbera honek txostena egin dien aldaketen guztizko zenbatekoak 169,12 milioi egiten zuen.

2017ko abenduaren 31n baliagarri ez dauden kredituek 1,92 milioi euro egiten dute, eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuari dagozkio.

#### *Aurrekontuaren likidazioa*

Gastuen kreditu bateratuek 4.150,73 milioi egiten dute, aurreko paragrafoetan aipatutako aldaketak egin ondoren.

2017an aitortutako betebeharrak 3.983,75 milioi euro egin dute, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajea ehuneko 96 da bi kasuetan.

Aitortutako eskubide garbiek 4.528,23 milioi euro egiten dute, eta betetze-eta kobrantza-maila ehuneko 109 eta ehuneko 93 dira hurrenez hurren.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- 2017an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa 2016	Zenbatekoa 2017	Finantzabidea	Zenbatekoa 2016	Zenbatekoa 2017
Langileak	30	31	Tributu bidezko diru-sarrerak	79	81
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15	15	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	2	4
Transferentzien bidezko gastuak	38	40	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	5	4
Inbertsio errealak	2	3	Zorpetzea	14	11
Finantza-zama	13	9			
Finantza-aktiboak	2	2			
	100	100		100	100

Bistan denez, 2017an gastuaren egiturak ez zuen alde nabarmenik izan; harelere, transferentzien ondoriozko gastuek ehuneko bi egin zuten gora eta finantza-zamak, berriz, ehuneko lau behera. Finantzaketari dagokionez, tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko bi egin zuten gora, eta zorpetzeak, berriz, ehuneko hiru behera.







• 2017ko aurrekontu-gastua, bere helburuari edo egitekoari erreparatuta, honako hau izan zen:

(euroak, milakotan)			
Gastu-politika	2016ko bete-beharrak	2017ko bete-beharrak	2017/2016 aldea (%)
<b>Oinarrizko zerbitzu publikoak</b>	<b>118.271</b>	<b>124.482</b>	<b>5</b>
Justizia	27.267	28.254	4
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	84.203	87.501	4
Atzerri-politika	6.801	8.727	28
<b>Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak</b>	<b>467.972</b>	<b>496.688</b>	<b>6</b>
Pentsioak	100.217	104.000	4
Bestelako prestazio ekonomikoak	2.202	2.289	4
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	285.145	302.283	6
Enpleguaren sustapena	41.681	39.239	-6
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	38.727	48.877	26
<b>Lehentasunezko izaera duten ondasun publikoen ekoizpena</b>	<b>1.616.171</b>	<b>1.700.637</b>	<b>5</b>
Osasuna	974.784	1.017.696	4
Hezkuntza	597.856	634.791	6
Kultura	43.531	48.150	11
<b>Jarduketa ekonomikoak</b>	<b>321.516</b>	<b>351.277</b>	<b>9</b>
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	80.551	77.560	-4
Industria eta energia	18.664	14.275	-24
Merkataritza, Turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	6.609	7.161	8
Garraiorako diru-laguntzak	24.172	26.136	8
Azpiegiturak	121.713	147.998	22
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	64.436	71.957	12
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	5.371	6.190	15
<b>Jarduketa orokorrak:</b>	<b>1.442.669</b>	<b>1.310.672</b>	<b>-9</b>
Goi-zuzendaritza	17.746	18.455	4
Zerbitzu orokorrak	100.977	130.651	29
Finantza eta tributu administrazioa	18.708	17.688	-5
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.	541.107	511.393	-5
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	8.500	9.350	10
Toki-administrazioentzako transferentziak	240.381	241.932	1
Zor publikoa	515.250	381.203	-26
<b>Guztira</b>	<b>3.966.599</b>	<b>3.983.755</b>	<b>0,4</b>

2017an, nabarmentzekoak dira Osasunaren eta Hezkuntzaren arloko gastuak, zeinek guztizko gastuaren ehuneko 26 eta 16 egiten baitute hurrenez hurren. Gainera, azpimarratu nahi ditugu Estatuarekiko Hitzarmena, zor publikoa eta gizarte-zerbitzuak zein gizarte-sustapeneko zerbitzuak, zeinek ehuneko 13, hamar eta zortzi egiten baitute, hurrenez hurren.

2016arekin alderatuta, ikusten da zerbitzu orokorretan ehuneko 29ko igoera izan dela; etxebizitza eskuratzean eta eraikuntza sutatzean, ehuneko 26ko igoera; azpiegituretan, ehuneko 22ko igoera; eta kulturaren, ehuneko 11ko igoera; gainera, zor publikoaren gastua ehuneko 26 jaitsi da; industria eta energiako gastua ehuneko 24 jaitsi da, eta Estatuarekiko Hitzarmenaren gastua, azkenik, ehuneko bost jaitsi da.





Ondoren, 2016ko eta 2017rako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

Adierazlea	2016	2017	2017/2016 aldea (%)
Gastua, guztira	3.966.599	3.983.755	0,4
Gastu arruntak (1etik 4ra bitarteko kapituluak)	3.285.771	3.404.624	4
Funtzionamendu gastuak (1. ,2. eta 4. kapituluak)	3.181.873	3.313.753	4
Kapitaleko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	176.874	226.272	28
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	503.954	352.859	-30
Diru-sarrerak, guztira	4.058.068	4.528.234	12
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	3.382.506	3.971.145	17
Tributu bidezko diru-sarrerak (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak)	3.221.829	3.673.881	14
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	98	108	-
Tributuaren diru-bilketa likidoa*	3.249.732	3.682.671	13
Tributuaren diru-bilketa likidoak BPGaren gainean zenbat egiten duen	17,09	19,36	-
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	23.143	10.634	-54
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	652.419	546.455	-16

\* Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2017an, guztizko gastuak 2016koen ia berdinak izan dira, eta ehuneko 0,4 baidiz ez dute gora egin (17,15 milioi).

Haien izaerari erreparatuta, kapital-gastuek ehuneko 28 egin dute gora, eta gastu arruntek, berriz, ehuneko 3,6; finantza-eragiketei dagozkien gastuek, aldiz, ehuneko 30 egin dute behera.

2017ko diru-sarrerak ehuneko 11,6 (470,17 milioi) egin dute gora 2016koekin alderatuta.

Diru-sarrera arruntak ehuneko 17,4 handiagoak izan ziren, eta horien barruan, tributu bidezkoek ehuneko 14 egin zuten gora; kapitaleko diru-sarrerak, aldiz, ehuneko 54 egin zuten behera. Bestalde, finantza-eragiketetatik heldutakoek ehuneko 16,2 egin zuten behera.

- Tributu bidezko diru-bilketa likidoa 3.682,67 milioikoa izan zen 2017an. Zenbateko hori 2016koa baino ehuneko 13 handiagoa da.

Diru-bilketaren zenbateko hori Nafarroako BPGaren ehuneko 19,36 da; portzentaje hori 2016koa baino handiagoa da, urte horretan ehuneko 17 izan baitzen.

- Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako aurrekontu-gastuek 4.131,12 milioi euro egiten dute. Horietatik, ehuneko 89 zorraren zama finantzarioari dagozkio. 2016ko datuekin alderatuta, gastu horiek ehuneko bost egin dute gora.





## Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

(euroak, milakotan)

Kapitulua	2018	2019	2020	Gainera- koa	Guztira	% Guz- tizk. gain.
1 Langileria-gastuak	2.303	0	0	0	2.303	0
2 Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	137.834	22.365	1.784	3.187	165.169	4
3 Finantza-gastuak	82.187	68.821	61.379	245.133	457.521	11
4 Transferentzia arruntak	70.130	9.799	6.954	1.360	88.243	2
6 Inbertsio errealak	59.364	18.522	3.802	800	82.488	2
7 Kapital-transferentziak	55.674	28.587	4.496	4.447	93.204	2
8 Finantza-aktiboak	8.350	7.350	6.350	20.100	42.150	1
9 Finantza-pasiboak	245.148	265.989	243.617	2.445.289	3.200.042	78
<b>Etorkizuneko ekitaldietako gastuak, guztira</b>	<b>660.990</b>	<b>421.433</b>	<b>328.382</b>	<b>2.720.316</b>	<b>4.131.120</b>	<b>100</b>
<i>Ehunekoal/urtea</i>	<i>16</i>	<i>10</i>	<i>8</i>	<i>66</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen ez funtzionarioen montepioen betebeharrak, ez herri-lanen emakiden bitartez exekutatu diren proiektuetatik heldutako gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitako interesak ere.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu oroitidazkian itzaleko bidesarietatik heldu diren eta aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuekin lotutako informazioa jaso dela, etorkizuneko gastu-konpromisoetan jaso gabe baitaude, haien zenbatekoa zein den ezin delako jakin<sup>2</sup> Etorkizuneko gastu-aurreikuspen horiek pasibo kontingente moduan hartzen dira, eta oroitidazkiaren kontingentzien atalean jaso dira; honako hauek dira:

(euroak, milakotan)

Azpiegitura	2018	2019	2020	Gainerako urteak	Guztira
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	16.314	16.764	17.227	331.906	382.211
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	9.878	16.462	16.921	528.714	571.975
Donejakue Bideko autobia	48.750	53.446	55.531	446.112	603.839
Pirinioetako autobia	18.068	20.403	21.540	578.880	638.891
<b>Guztira</b>	<b>93.010</b>	<b>107.075</b>	<b>111.219</b>	<b>1.885.612</b>	<b>2.196.916</b>

*Gomendatzen dugu dauden kontingentzia guztiak jasotzea kontingentzien atalean.*

<sup>2</sup> Ulertzen da haren zenbatekoa ez dela segurua, zeren eta 2017an, esate baterako, 85,92 milioi euroko gastuak zenbatetsi ondoren kopuru erreala 80,87 milioiokoa izan baitzen.





## V.2. NFKAren eta haren EEAEn 2017ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa

Hurrengo taulan, NFKAren egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2016. eta 2017. urteetan:

(euroak, milakotan)

Adierazlea	2016	2017	2017/2016 aldea (%)
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-56.996	350.883	716
Aurrekontu-emaiza doitua	113.036	551.411	388
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-183.622	359.210	296
Aurrezki gordina	200.633	657.392	228
Finantza-zama (3. eta 9. kap.)	519.977	384.801	-26
Aurrezki garbia	-319.344	272.591	185
Ekitaldiaren emaitzak (desaurrezkoa/aurrezkoa)	-53.865	281.870	623
Funts berekiak	-301.678	-19.518	94
Nafarroako Gobernuaren finantza-zorra *	3.057.559	3.258.098	7
Zorrak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehuneko	90	82	-
Eratutako abalak (saldo bizia)	163.524	122.096	-25
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak	3.948.964	4.131.120	5

\* Amortizatutako kostua.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2017ko aurrekontu-saldo ez-finantzarioak nabarmen egin du hobera 2016koarekin alderatuta; izan ere, aurreko ekitaldian 57 milioi negatiboa izatetik 350,88 milioi positiboa izatera pasa da; aurrekontu-emaiza doitua, halaber, ehuneko 388 handitu da, eta 551,41 milioikoa da aztertutako ekitaldian.

- 2010etik 2016ra, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak balio negatiboak izan ditu; 2017an, ordea, 359,21 milioi positiboa da, ondoren erakusten den bezala:

(euroak, milakotan)

Magnitudea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Diruzaintza-gerakina gastu orokorrak	-126.369	-174.939	-239.750	-221.192	-184.088	-238.100	-183.622	359.210

- Aurrezki gordina<sup>3</sup> ehuneko 228 handitu da, 657,39 milioi izateraino, eta 272,59 milioiko aurrezki garbi<sup>4</sup> positiboa sortu da; balio hori ere nabarmen hobetu da 2016koarekin alderatuta, orduan 319,34 milioi negatiboa izan baitzen.

- Ekitaldiko emaitza ere zeinuz aldatu da, 2016an 53,87 milioi negatiboa izatetik (desaurrezkoa) 2017an 281,87 milioi positiboa izatera iritsi baita.

<sup>3</sup> Aurrezki gordina: diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura) ken funtzionamendu gastuak (1, 2 eta 4. kapituluak)

<sup>4</sup> Aurrezki garbia: aurrezki gordina ken finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak).





- Aurrekoaren ondorioz, funts berekiak, oraindik ere guztira 19,52 milioi negati-  
boak izaten jarraitzen badute ere, ehuneko 94 hobetu dira.
- 2017ko abenduaren 31ko finantza-zorra, kostua amortizatuta, 3.258 milioi eu-  
rokoa da; aurreko urtean baino ehuneko 6,6 handiagoa, beraz. Haren ehuneko bede-  
ratzik epe laburrean du muga-eguna. Diru-sarrera arrunten aldean, ehuneko 82 da;  
2016an baino ehuneko zortzi gutxiago.
- Zor garbiaren aurrekontu-bilakaera —itundutako zorra ken amortizatutako zo-  
rra— honako hau da 2010-2017 aldirako:

	(euroak, milioitan)							
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Itundutako zorra	595,2	483,2	418,9	463,7	492,6	446,9	579,7	498,01
Amortizatutako zorra	103,2	91,2	107,3	193,2	296,5	307,2	416,1	293,93
Zor garbia	492,0	392,0	311,6	270,5	196,1	139,7	163,6	204,08

Zor garbiaren balio handiena 2010ean aurkitzen dugu, 492 milioirekin, eta ekitaldi horretatik aurrera haren zenbatekoa nabarmen gutxitzen doa. Halere, 2017an ehuneko 25 egin du gora 2016arekin alderatuta; 204,08 milioi, hain zu-  
zen.

Nabarmentzekoa da, gainera, zor itunduak 2017an ehuneko 14 jaitsi dela 2016rekin alderatuta, baina zor amortizatuak ere ehuneko 29 egin du behera.

Zor itunduaren eta amortizatuaren zenbateko horiek nabarmen baldintzatzen ditu zorra amortizatzeko egutegiak, txosten honen V.13. epigrafean jaso du-  
guna.

**Azken batean**, NFKAren egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketatik ateratzen dugun konklusioa da nabarmen hobetu direla hura definitzen duten adierazleak, eta horrek esan nahi du diru-sarrera arruntak nahikoak direla gastu arruntei aurre egiteko (zama finantzarioa barne), eta horiek baino 272,59 milioi euro handiagoak direla; gainera, azken urteetan lehenengo aldiz, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak 359,21 milioiko balio positiboa dauka, eta horrek berekin dakar gaitasuna dagoela zorra amortizatzeko edo zenbateko hori egiten duten gastuei aurre egiteko, betiere araudian ezarritako baldintzetan. Testuinguru honetan, kontuan hartu beharra dago, halaber, zenbateko handi samarra egiten duen zor bat badagoela, zeina datozen urteetan amortizatu behar baita, eta hura bai ezarritako egutegiak, bai interes-tasen aldeak nabarmen baldintzatzen dutela.





### V.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, zeina kontabilitate nazionalako terminoetan (SEC'2010) mugatuta baitago, 2017an honako arau fiskalak bete behar zituen:

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioak:

a) Finantzaketa-beharrek ez dute gaindituko BPGaren ehuneko 0,6a, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz.

b) Gastu-araua: 2017ko gastu konputagarriak ez du gaindituko aurreko urteko gastuaren gaineko igoeraren ehuneko 2,1eko erreferentzia-tasa.

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioak:

a) Zorpetze publikoaren iraunkortasuna. Gehieneko zorpetze-ahalmenak, gehiegizko defizitaren protokoloaren (GDP) metodologiaren arabera kalkulatuak, ezin izanen du gainditu, 2017ko abenduaren 31n, BPGaren ehuneko 18,6a, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz.

b) Merkataritza-zorraren iraunkortasuna. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordainketarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa izanen da.

c) Zuhurtzia finantzarioa, edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den gutxian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gauzatzen da:

c.1) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko gutzitiko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko eta 2016ko irailaren 16ko ebazpenei jarraituz<sup>5</sup>.

c.2) Abalak, berrabak edo bestelako berme publikoak. Koordinazio Autonomikoaren eta Tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira SECen arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde batetik, muga orokor bat, zeinaren arabera abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen dute gainditu Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,5a; bestetik, banakako muga bat, zein-

<sup>5</sup> 2017ko uztaila, beste ebazpen bat argitaratu zen, arestian aipatu dugun 2016ko irailekoa indarrrik gabe uzten duena. Haren bitartez, itundu beharreko eragiketen interes-tasak gaurkotzen dira.





naren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen du gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko muga.

c.3) Finantza-aktiboak. Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2016an helburu hori bete zuenez, betebeharrak ezin zaio aplikatu 2017ko ekitaldiari.

Estatuaren Kontu-hartze Orokorra (EKO) da administrazio publikoen sektoreko kontu ekonomikoak egiteko organo eskuduna, eta Ogasun Ministerioa da aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete-tezari buruzko behin betiko erabakia hartzeko ardura duena.

2018ko urrian, aipatutako ministerioak txosten bat argitaratu zuen. Hartan, agerian jartzen zen Nafarroako Administrazio Publikoaren sektoreak 2017an zor publikoaren helburua bete duela eta finantzaketa-ahalmena baduela; alabaina, ez du gastu-araua betetzen.

Aurreko arau fiskalen betetze-maila aztertu dugu:

### *V.3.1. Aurrekontu-egonkortasuna*

#### **Lehen. Finantzaketa-ahalmena**

Nafarroaren 2017ko finantzaketa-ahalmena 221,3 milioi eurokoa izan da, Kontu Orokorren oroitidazkian jasotako informazioaren arabera; zenbateko horrek ehuneko 1,11 egiten du Nafarroako BPGan, eta horrek esan nahi du gastu-araua betetzen dela.

Ogasun Ministerioaren 2018ko urriko argitalpenaren arabera, finantzaketa-ahalmena 232 milioi eurokoa izan zen, eta horrek hobetu egin ditu Nafarroak egindako kalkuluak, eta, horrenbestez, helburu hori betetzen jarraituko litzateke.

Hurrengo orrialdean erakutsiko dugu finantzaketa-ahalmenaren kalkuluaren xehakitzea, NFKAk Kontu Orokorren oroitidazkian sartutako datuak kontuan hartuta.





(euroak, milioitan)

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorearen defizita		2017
<b>I. Aurrekontuko saldo ez-finantzariora</b> (diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura ken gastuen aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura)		
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena		350,9
Nafarroako Parlamentuarena, Arartekoarena, Nafarroako Kontseiluarena eta Kontuen Ganberarena		1,1
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena		-2,3
<b>II. Aurrekontuko saldoan egindako doitzeak</b>		
Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena		0
Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak		1,3
Barneko transferentziak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa		-0,2
Europako funtsetako transferentziak		1,0
Diru-bilketa ez-segurua		-28,5
Osasunerako zentimoa		0
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak		-13,3
Elkarte publiko-pribatuen bidezko inbertsioak		4,2
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak		3,5
ADIFen obren aurrerakinak (AHT)		0,9
Betetako abalak		-0,5
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik		-65,0
Enpresen finantza-ekarpenak		-15,1
Aktibo fiskal geroratuak		-3,0
Osasun-laguntzako kuota orokorrak		1,0
<b>III. Elkarte publikotzat jotako beste unitate batzuk (sozietate eta fundazio publikoak)</b>		
<b>IV. Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-ahalmena (I.etik III.ra)</b>		
Nafarroako finantzaketa-beharraren ehunekoa BPGaren gainean		1,12
<i>Hitzartutako helburua, Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoan adierazia</i>		<i>-0,6</i>

Iturria: Nafarroako Gobernu.

Nabarmendu behar dugu NFKAk azken urte hauetan lehenengo aldiz finantzaketa-ahalmena baduela (balio positiboa), zeren eta aurrez finantzaketaren beharra islatua baitzuen (balio negatiboa), ondoren azaltzen dugun bezala:

(euroak, milioitan)

Finantzaketa-ahalmena	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Zenbatekoa	-477	-564	-368	-311	-255	-149	-270	-136	221
Nafarroako BPGa (%)	-2,62	-3,03	-1,97	-1,72	-1,45	-0,84	-1,48	-0,70	1,11

Horrenbestez, hobekuntza argia gertatu da helburu hori betetzeari dagokionez.

Aurrekontu-egonkortasunaren helburua dela-eta, oro har, nabarmentzen dugu ezen, eskura dauzkagun datuekin, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentearen 2017ko uztaileko txosteneko aurreikuspena bete dela; hartan, izan ere, egingarritzat jotzen zuen Foru Komunitateko Administrazioak 2017rako defizit-helburuak betetzea, nahiz eta, aipatu bezala, 2017rako gastu-araua bete ez.







## Bigarrena. Gastu-araua

Ogasuneko Ministerioak 2018ko urrian kalkulaturako datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak gastu-araua bete du, zeren eta 2017an haren gastu konputagarriak ehuneko 3,2 egin baitu gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta; igoera-tasa, berriz, ehuneko 2,1ean finkatuta zegoen. Hartara:

Gastu-araua — Gastu konputagarria	2016	2017	Aldea (%) gauzaturia	Aldea (%) helburua
Zenbatekoa (milioitan)	2.634	2.717	3,2	2,1

Iturria: Ogasuneko Ministerioa.

Hau da, gastu konputagarria 83 milioi handiagoa izan zen 2016koa baino; baimendutako igoera, berriz, ehuneko 2,1ekoa zen, eta 55 milioi gehiago ahalbidetzen zituen.

### V.3.2. Iraunkortasun finantzarioa

#### Lehen. Zor publikoaren iraunkortasuna eta zuhurtasun finantzarioa

Zor publikoaren 2017rako helburua, gehiegizko defizitaren prozedurarako (GDP) metodologiaren arabera kalkulaturia, ehuneko 18,2an hitzartu zuten Estatuak eta Foru Komunitateak; halere, muga hori ehuneko 18,6ra arte handitu zen, salbuespen eta doikuntza batzuk sartu ondoren.

GDParen arabera, zor publikoa da urte bukaeran ordaintzeke dauden administrazio publikoaren sektorearen betebeharrak gordinen balio nominala; hau da, metalezko monetaren, obligazio eta bonoen, mailegu eta kredituen jaulkipena. Horretan, ez dira sartzen ez finantza-deribatuak, ez merkataritza-kredituak, ez eta beste administrazio publikoen esku dauden Administrazio Publikoaren pasiboak ere.

Zor publikoaren kalkulua Espainiako Bankuak egiten du; horren arabera, 2017ko abenduaren 31n, Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorearen guztizko zorpetzea 3.628 milioikoa zen, erregioko BPGaren ehuneko 18,3 hain zuzen, finkatuta dagoen mugatik behera.

Zenbateko hori, zeina Nafarroako Gobernuaren informazioarekin alderatu baitugu, honela xehakatzen da:

(euroak, milioitan)	
Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea-zorra GDP2017 delakoaren arabera	Guztira
Zor Publikoa	1.604
Finantza-entitateekin hartutako maileguak	1.148
EIBrekin hartutako maileguak	546
Errekurtsorik gabeko "factoring" a	20
Pirinioetako autobia eta Nafarroako Ubidea	310
<b>2017-12-31ko zorpetzea, guztira</b>	<b>3.628</b>
<i>Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko ehunekoa</i>	<i>18,3</i>
<i>Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoa</i>	<i>18,6</i>
Biztanle bakoitzeko gastua (eurotan)	5.640

Iturria: Espainiako Bankua eta Nafarroako Gobernuak.





Egiaztatu dugu zorpetze-eragiketen gehieneko kostu osoak ez dituela gainditu Estatuak ezarritako mugak.

Horrenbestez, finantza-iraunkortasunaren helburua bete da zorpetze publikoa dela eta.

Zor hori ondoko taularen arabera banatzen da:

(euroak, milioitan)	
<b>Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea-Zorra GPD-2017 delakoaren arabera</b>	<b>Guztira</b>
Nafarroako Gobernua	3.208
Nafarroako Gobernuaren Lankidetzeta publiko-pribatua	310
Sozietate publikoak	105
Fundazio publikoak	5
<b>2017-12-31ko zorpetzea, guztira</b>	<b>3.628</b>

Azkenean, zorpetze honen 2010-2017 urteetako bilakaera hurrengo taula honetan islatzen dena da:

(euroak, milioitan)								
<b>Zorpetzea (GDPa)</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>
Zenbatekoa	1.692	2.443	2.857	3.134	3.197	3.322	3.461	3.628
Nafarroako BPGaren %	9,10	13,05	15,76	17,85	17,9	18,2	18,1	18,3

Zorrak BPGaren gainean egiten duen ehunekoa nabarmen handitu zen 2010-2013 aldian, eta hurrengo urteetan ia bere horretan mantendu zen; 2017an, berriaz, ehuneko 18,3ra iritsi da.

## 2.a Merkataritza-zorraren iraunkortasuna

Helburu hori bete egiten da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiak ez duenean gainditzen araudian berankortasuna dela-eta ezarritako gehieneko epea. Epe hori 2017rako eta orokorrean 30 egunekoa da.

Nafarroako Gobernuak hilero argitaratzen du Administrazio Publikoaren Sektorearen ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazlearen balioa, uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan ezarritako metodologiaren arabera.

2017an, hurrengo taulan azaldutakoa da hilero ordainketak egiteko batez besteko aldia:

2017ko ekitaldia	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan),
Urtarrila	-3,45
Otsaila	-5,19
Martxoa	-2,96
Apirila	-1,58
Maiatza	-1,67
Ekaina	-2,60
Uztaila	-2,33
Abuztua	-1,42
Iraila	-2,55
Urria	-2,74
Azaroa	-2,41
Abendua	-5,88

Iturria: Nafarroako Gobernua.





Balio negatiboak erakusten du hornitzaileei ordaintzen zaiela, batez beste, ezarrita dagoen aipatutako gehieneko epea baino lehen.

Horrenbestez, Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak 2017an merkataritza-zorren iraunkortasun-printzipioa bete du, eta ez da atzerapenik gertatu hornitzaileentzako ordainketetan, berandutza-interesik sortu duenik.

### **3.a Zuhurtzia abaletan eta beste berme batzuetan**

Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2017ko abenduaren 31n, abalei eta beste berme batzuei dagokienez, 165,84 milioiko bolumena du. Abal eta berme horiek Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen dutenez beste pertsona fisiko edo/eta juridiko batzuei eman zaizkie —sektore hori SEC'2010 delakoaren arabera definituta—; halaber, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak 51 milioiko abalak emateko aurreikuspenak kalkulatu ditu.

Horrenbestez, abalen zenbatekoa 216,84 milioikoa da; zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,09 egiten du; portzentaje hori legeriak aipatzen duen ehuneko 1,5eko mugatik behera dago; horrenbestez, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko mugatik gora.

Honako hau da **konklusioa**: Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak 2017ko ekitaldian finantzaketa-beharren bolumenarekin lotutako helburua bete du, bai eta finantza-iraunkortasunarena ere, eta ez du gastu-araua bete.

V.4. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea.

Ganbera honek 2016ko Kontu Orokorrei buruz egindako txostenari dagokienez, honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Lan egiten ari da NZOren kontabilitate-sistemak egokitzeko, horren bidez diru-sarreren aurrekontuaren garapenari buruzko informazioa lortzeko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko kontabilitate-prozeduren arabera, estatistikako metodoekin prestatutako txostenen bidez lortu beharrean.*

- *Kontu Orokorren oroitidazkian gastu-arauari buruzko informazioa aurrekontu-egonkortasunaren atalaren barruan jaso da.*





Indarrean jarraitzen dute Ganbera honek aurreko ekitaldietako txostenetan emandako honako oinarrizko gomendio hauek:

- *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*
- *Balantzean islatzea foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktuarialak.*
- *Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgetuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorren betekizunei jarraituz. Inbentario hori ekitaldiari buruzko oroitidazkiari gehitu edo erantsi behar zaio.*
- *Ogasun Publikoari buruzko Legean araututako aurrekontu-luzapenerako prozedura garatzea, eta egokia den aztertzea, betiere Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Legearen eskakizunak jasoz.*
- *Kontu Orokorren oroitidazkian sartzea ekitaldiaren itxieren ondorengo datu garrantzitsuenak.*
- *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

## V.5. Langile-gastuak

2017an, langile-gastuak 1.237,58 milioi eurokoak izan dira; gastu guztien ehuneko 31, hain zuzen. Ehuneko 43 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 30, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 17, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari.

Gastu horiek honela daude banatuta, kontzeptu ekonomikoen arabera:

Langile-gastuak	(euroak, milakotan)		
	2016	2017	2017/2016 aldea (%)
Goi-karguak	3.886	3.310	-15
Behin-behineko langileak.	2.423	2.658	10
Lanpostuko ordainsariak	719.600	744.749	3
Langileen ordainsariak	119.689	122.311	2
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	254.083	270.868	7
Ordainsari aldakorak	50.412	52.842	5
Beste hainbat ordainsari	22.196	40.844	84
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>1.172.289</b>	<b>1.237.582</b>	<b>6</b>

2016rekin alderatuta, langile-gastuek ehuneko sei egin zuten gora (65,29 milioi). Oro har, kontzeptu ekonomiko horren aldeak positiboak dira, salbu eta goi karguen kasuan; izan ere, horien ordainsariak ehuneko 15 egin zuten behera,





batez ere haien aurrekontu-gastua behin-behineko langileen kontzeptuan bir-sailkatu baita (kontzeptu horrek gora egin du arrazoi berarengatik).

Igoera aipagarriena “bestelako ordainsariak” atalari dagokiona da, eta neurri handi batean zor zaio 2012an kendu zen aparteko soldataren itzulketari eta administrazio-araubidean kontratatutako langileei familia-laguntza ordaintzeari.

Aztertu dugu eta ea SAP RRHH aplikazioan (hartan, nominak sortzen dira) kontabilizatutako gastua bat datorren SAPGE’21ean aurrekontuan erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu bat datozela nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak.

Egiaztatu dugu, gainera, 2017ko epai baten exekuziotik heldutako gastu bat badagoela —Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua barneratu ondoren kanporatutako langileei buruzko epaia da—, 307.283 euro egiten duena eta 2018ko aurrekontuari egotzi zitzaiona.

#### *Plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa*

NFKAren eta haren EEAAen 2017ko abenduaren 31ko plantilla organikoa eta langile finkoen eta behin-behineko langileen zerrenda Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren maiatzaren 10eko 61/2018 Foru Aginduaren bidez argitaratu ziren, 2018ko ekainaren 18ko NAOn.

Ganbera honek, aurreko txostenetan behin eta berriz esan duen moduan, nabarmentzen du 2017ko plantilla organikoa atzerapenez argitaratu zela (2018ko ekainean).

2017ko abenduaren 31ko plantilla organikoko lanpostuak 22.917 ziren: 2016an baino 236 lanpostu gehiago dira. Honako hau da lanpostu beteen eta hutsen azalpena:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Betetako lanpostuak	4.896	4.766	5.995	5.671	6.303	6.139	17.194	16.576
Hutsak	1.382	1.586	1.798	2.122	2.307	2.633	5.487	6.341
<b>Tokiak, guztira</b>	<b>6.278</b>	<b>6.352</b>	<b>7.793</b>	<b>7.793</b>	<b>8.610</b>	<b>8.772</b>	<b>22.681</b>	<b>22.917</b>

Lanpostuen ehuneko 38 O-NOZi dagozkio; ehuneko 34 Hezkuntzari, eta gainerako ehuneko 28a Administrazio Erroari. Lanpostu guztietatik, ehuneko 72 beteta daude eta gainerako ehuneko 28a hutsik dago.

2017an betetako lanpostuen kopurua, tipologiari begiratuta, honela banatzen da:

Betetako lanpostu mota	2016	2017
Lanpostu ez-oinarrizkoak	Behin-behineko langileak Burutzak	110 1.466
Oinarrizko lanpostuak	15.618	14.948
<b>Betetako lanpostuak, guztira</b>	<b>17.194</b>	<b>16.576</b>





2016arekin alderatuta, portzentajeen alde aipagarriena oinarritzko lanpostuetan ageri da. Lanpostu horiek, izan ere, 2017an ehuneko lau egin zuten behera (670 lanpostu gutxiago); bestetik, betetako burutzei dagozkien lanpostuek ehuneko hiru egin zuten gora (51 lanpostu).

Kontu Orokorren oroitidazkian ageri den moduan, 2.423 lanpostu ez dituzte beren titularrek betetzen, hainbat arrazoi tarteko: eszedentziak, burutzengatiko erreserbak, zerbitzu-eginkizunak, prestakuntzarengatiko zerbitzu bereziak, saskontzea edo ikerketa, eta abar.

Hutsik dauden lanpostuen zerrenda, egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, honako taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2016	2017
Lanpostuak, guztira	22.681	22.917
Hutsak	5.487	6.341
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	24	28
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	3.447	3.916
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	63	62

2017an, lanpostu guztien ehuneko 28 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 62 aldi baterako beteta zeuden. 2016an, portzentaje horiek ehuneko 24 eta ehuneko 63 ziren, hurrenez hurren.

Egiaztatu dugu ezen plantilla organikoan jasotako datuak eta horri buruz Kontu Orokorretako oroitidazkian emandako informazioa bat datozela, Administrazioan zerbitzu-eginkizunetan jarduten duten pertsonen kopuruari dagokionean izan ezik. Izan ere, oroitidazkiaren arabera 562 dira eta plantillak, berriz, 620 direla egoera horretan dauden pertsonak; egiaztatu dugu datu zuzena plantillan adierazitakoa dela.

Gobernuak, foru dekretu bidez, plantillaren hamar aldaketa onetsi zituen, 73 lanpostu amortizatzeke (Administrazio Erroko 37, O-NOZeko 33 eta Hezkuntza Departamentuko hiru) eta 138 lanpostu sortzeko (109 Administrazio Erroko, 26 O-NOZerako eta hiru Hezkuntzarako). Horretaz gainera, O-NOZen 99 lanpostu sortu ziren egiturazko enplegua finkatzeko, eta 38 lanpostu, berriz, Nafarroako Ospitaleguneko elikadura-zerbitzua berriz publiko bihurtzeko prozesuari ekiteko.

Egindako aldaketak aztertuta, egiaztatu dugu guztiak ere plantillan sartu direla; halere, Bigarren Hezkuntzako irakasleen 184 lanpostu eta Lanbide Heziketako irakasleen 27 lanpostu gehituzerakoan, ez ziren espezialitateari eta hizkuntzari buruzko zehaztapenak erantsi.

2016ko abenduaren amaieran, enplegu publikoaren eskaintza partzial bat onetsi zen Suhiltzaileen Zerbitzuan, 18 lanpostukoa; geroztik, 2017ko abenduan, NFKAren eta EEAAren enplegu eskaintza publikoa onetsi zen, 566 lanpostukoa (O-NOZ, 219 lanpostu; Hezkuntza Departamentua, 191 lanpostu;





Administrazio Erroa, 154 lanpostu; eta Osasun Publikoaren Institutua, bi lanpostu): lanpostu horiek 2016ko langileen berrezarpen-tasari dagozkie.

Eskaintza horiek onetsi zituzten foru dekretuetan ez zen zehazten ez aurreikusitako egutegia, ez deialdiak egiteko datak ere. NFKAren web-orrian, berriz, horri buruzko informazioa ematen da.

Txosten hau idazteko orduan, 2017ko lan-eskaintza publikotik deialdia egin gabe gelditzen ziren osasun arloko lanpostu guztiak. Aurreikusita dago haiek izapidetzea 2018ko lan-eskaintza publikotik ateratzen diren gainerakoekin, Administrazio Erroko 82 lanposturekin eta Hezkuntzako 32 lanposturekin. Txosten hau idazteko datan, aurreko lan eskaintza horien guztien deialdiak eginik daude.

Langileen zerrenda aztertuta, egiaztatu dugu graduari buruzko informaziorik ez dagoela. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatu-tuaren 20. artikulua dioena urratzen du horrek.

#### *Nafarroako administrazio publikoetako langile finkoei eta aldi baterako langileei buruzko azterketa*

2013-2017 aldiko langile finkoen alten eta bajen kopurua aztertu dugu, eta honako emaitzak lortu ditugu:

	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Altak:	101	82	90	30	298	601
Hezkuntza	36	8	49	7	239	339
O-NOZ	8	51	9	3	48	119
Adm. erroa	57	23	32	20	11	143
Bajak:	738	563	759	631	832	3.523
Hezkuntza	306	172	339	195	353	1.365
O-NOZ	209	179	205	220	207	1.020
Adm. erroa	223	212	215	216	272	1.138
Alde garbia (altak-bajak)	-637	-481	-669	-601	-534	-2.922

Ikusten da, alde garbi negatiboa dagoela 2013-2017 aldian, 2.922 pertsonarena; urteko batez bestekoa 584 pertsonarena da. Egitate horren arrazoen artean dago, besteak beste, Estatuko oinarrizko araudia, langileen berrezarpena mugatzen zuena.

Halaber, lortu dugu 2013-2017 urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren langileen datua, eta horiek langile finkoen eta aldi baterakoaren artean sailkatu ditugu, NFKA osoaren data horretako langileen behin-behinekotasunaren adierazlea lortzeko; honako hauek dira emaitzak:

	2013	2014	2015	2016	2017
Egiazko langileak	26.156	26.306	26.698	26.851	28.020
Langile finkoak	17.479	17.073	16.425	16.061	15.368
Aldi baterako langileak	8.677	9.233	10.273	10.790	12.652
Aldi baterako langileak/benetako langileak (%)	33	35	38	40	45







Ikusten denez, aipatutako datako behin-behinekotasun adierazlea nabarmen handitu da aztertutako aldian, eta 2013an ehuneko 33 izatetik 2017an ehuneko 45 izatera pasa dira.

Egitate hori jada egiaztatuta ageri zen Kontuen Ganberak O-NOZeko 2016ko eta 2017ko ekitaldietako aldi baterako kontratazioari buruz egindako txostenean, 2018ko martxoan argitaratutakoan; hartan, izan ere, aipatzen zen data horretan O-NOZen aldi baterako langileak langile finkoak baino gehiago zirela, ondoren erakusten dugun bezala:

	Langile finkoak		Aldi baterako langileak		Langileak, guztira		Aldi baterako langileak (%)	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Hezkuntza	5.835	5.433	3.563	4.317	9.398	9.750	38	44
O-NOZ	5.570	5.417	5.781	6.639	11.351	12.056	51	55
Administrazio Erroa	4.656	4.518	1.446	1.696	6.102	6.214	24	27
<b>Guztira</b>	<b>16.061</b>	<b>15.368</b>	<b>10.790</b>	<b>12.652</b>	<b>26.851</b>	<b>28.020</b>	<b>40</b>	<b>45</b>

Bestetik, 2013-2017 aldiko langile finkoen adina aztertu dugu, eta honako hauek dira urte bakoitzeko abenduaren 31n lortutako datuak:

	2013	Guztizkoaren gainean (%)	2014	Guztizkoaren gainean (%)	2015	Guztizkoaren gainean (%)	2016	Guztizkoaren gainean (%)	2017	Guztizkoaren gainean (%)
30 urtetik beherakoak	400	2	276	2	188	1	201	1	130	1
31 eta 40 urte bitarte	3.602	21	3.306	19	2.904	18	2.615	16	2.214	14
41 eta 50 urte bitarte	6.309	36	6.096	36	5.784	35	5.559	35	5.288	34
51 eta 55 urte bitarte	3.390	19	3.447	20	3.542	22	3.560	22	3.490	23
55 urtetik gorakoak	3.778	22	3.948	23	4.007	24	4.126	26	4.246	28
Batez besteko adina	48	-	48	-	49	-	49	-	50	-

Nabarmendu behar dugu 50 urtetik gorako langileak 2013an ehuneko 41 izatetik 2017an ehuneko 51 izatera pasa direla; halaber, 60 urtetik gorako pertsonak 2013an ehuneko zazpi izatetik 2017an ehuneko 11 izatera pasa dira. Bestetik, 40 urtetik beherako adina duten langileak ehuneko 23 ziren 2013an eta ehuneko 15, berriz, 2017an.

**Azken batean**, konklusioa izan daiteke lanpostu finkoen kopuruak behera egin duela; bajak ez direla betetzen ari; egiturazko beharrak eta behar iraunkorak aldi baterako langileekin betetzen ari direla, eta lanpostu hutsen kopuruak gora egin duela; horrek eragin du ezen, herritarrari zerbitzuak ematen jarraitzeko beharraren aurrean, gora egin duela NFKAko enpleguaren behin-behinekotasuna, eta gehiegizkoa den adierazle kezkarri batera iritsi dela; har-







tara, giza faktorearen halako deskapitalizazio bat eta plantillaren zahartze bat gertatu dira, horrek ekar ditzakeen arazoekin.

### *Nafarroako Gobernuaren erretiro-gastuen aurreikuspena*

Ganbera honek aurreko txosten batzuetan jada adierazi duen bezala, 2013ko martxoan Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat egin zuen Nafarroako Gobernuaren pentsio-gastuen aurreikuspenari buruz, NFKAren Montepioari dagozkion pentsio arrunten aurrekontua egiteko.

Azterlanak 2006-2012 aldirako datu errealak erabiltzen zituen; gainerako urteetarako, urteko gastuaren zenbatespenak egiten dira euro konstantetan, 2013-2087 aldirako parametro batzuen arabera.

Azterlan horren arabera, 2087ra bitarte kalkulaturako guztizko kostua 2.785,64 milioi euro konstantekoa da; zenbateko horretatik, aurreikusita dago ehuneko 77 pentsiodunei ordaintzea eta gainerako ehuneko 23a, berriz, gainerako onuradunei.

2017an, pentsioen benetako gastuak 89,83 milioi euro egin zuen guztira; zenbatespena, berriz, 78,91 milioi konstantekoa zen.

2018-2087 aldirako, kalkulaturako kostuak 2.000 milioi euro konstante egiten du.

Gure gomendioak:

- *Enplegu eskaintzan adieraztea nolako denbora-aurreikuspena dagoen eskaintzako lanpostuak betetzeko, eta haietarako dei egitea administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamenduan ezarritako epeetan.*

- *Urgentziaz behar diren neurriak ezartzea dauden lanpostu hutsak betetzeko eta enpleguaren behin-behinekotasuna gutxitzeko, araudiaren testuinguruan.*

- *Graduari buruzko informazioa sartzeari langileen zerrendan.*

- *Oroitidazkian eta plantillan islatutako zenbatekoak alderatzea eta kasu bakoitzean zenbateko zuzenak erakustea.*

### V.6. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

2017ko ekitaldian ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 587,27 milioi eurokoak izan ziren. Gastu guztien ehuneko 15 egiten dute; horietatik ehuneko 53 Osasun Departamentuari dagozkio, eta ehuneko 16, berriz, Eskubide Sozialetako Departamentuari. Ekitaldiaren itxieran, gastu horien ehuneko 90 ordainduta zeuden.

2016ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko bateko igoera izan zen. Nabarmenezkoa da O-NOZekin lotutako kontzeptu batzuetan igoera bat gertatu dela;





esate baterako, kontsumoko material sanitarioa ehuneko 11 hazi da. Bestalde, nabarmendu behar dugu beste kontzeptu batzuetan —horiek ere erakunde horrekin lotuta— beherakada bat gertatu dela; esate baterako, osasun laguntzarako itunak ehuneko 11 jaitsi dira.

Nafarroako Gobernu Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuaren kontrolko planak gastuen gaineko kontrol finantzario iraunkorra egitea jasotzen du honako arlo hauetan: osasun hornidurak, sendagaiak, osasun itunak, protesiak eta farmazia prestazioak, aurretiko fiskalizaziotik salbuetsita baitaude. Gastu horiek 242,19 milioi euro egin zuten 2017an. Gainera, Ganbera honek 2018ko ekainean txosten bat egin zuen Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agenziaren laguntza-kontratuei buruz; arlo horretako gastua 45,76 milioi eurokoa izan zen 2017an.

### *Aberaste bidegabearen egoeran kontratatzea*

Ganbera honek 2016ko Kontu Orokorre buruz egindako txostenak analisi bat jasotzen zuen indarraldia 2017ko maiatzaren 31n amaitzen zitzaion kontratuetan oinarritutako prestazioekin lotutako NFKAren aurrekontu-gastuei buruz.

Bai kontratu-kopurua, bai metatutako adierazlea garrantzitsuak zirenez, Nafarroako Gobernu Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuak egoera horren jarraipen bat egin du.

Zehazki, eta departamentuek zerbitzu honi emandako informazioaren arabera, aberaste bidegabearen egoeran ordaindutako prestazioekin lotutako datuak, 2018ko uztailaren 1ean, honako hauek ziren, 2017ko maiatzaren 31koekin alderatua:

Departamentua	Kontratuaren amaieran, 2017-05-31n, metatutako gastua	Kontratu kopurua	Aberaste bidegabearen hasieraren gutxieneko data	Gastu metatua (%) kontratuaren amaieran (2018-07-01)	Kontratu kopurua	Aberaste bidegabearen hasieraren gutxieneko data
Kultura, Kirola eta Gazteria	81.673	3	2017/01/01	236.321	5	2018/01/01
Eskubide Sozialak	12.585.427	19	2012/12/31	21.856.924	41	2013/07/01
Garapen Ekonomikoa	3.479.654	41	2014/01/01	5.087.114	37	2014/01/01
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	*	1	2017/01/02	742.414	5	2017/01/01
Hezkuntza	*	1	2017/01/01	8.153.408	5	2017/09/01
Ogasuna eta Finantza Politika	3.618	2	2017/03/01	254.932	5	2017/01/01
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	1.288.371	23	2016/01/01	1.958.662	8	2017/01/01
Herritarrekiko eta Erakundee-kiko Harremanak	1.178.569	17	2015/04/01	71.478	8	2016/11/16
Osasun Departamentua	32.610.448	48	2014/01/01	24.669.179	16	2016/01/01
<b>Guztira</b>	<b>51.227.760</b>	<b>155</b>	<b>2012/12/31</b>	<b>63.030.431</b>	<b>130</b>	<b>2013/07/01</b>

\* Kasu horietan, aipatutako datan inongo zenbatekorik ez zegoen ordainduta.





Ikusten denez, 2018ko uztailean leko gastuak gora egin du 2017ko maiatzean zegoenarekin alderatuta; halere, kontratu-kopuruak behera egin du.

Kontratuaren indarraldia amaituta duten prestazio horiek ordaintzea eragin duten arrazoiak askotarikoak dira, eta bat datoz NFKAren 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruzko txostenean adierazi genituenekin (espedienteen hasiera atzeratzea, aurkeztutako errekurtsioak eta abar).

Egoera departamentuen arabera aztertuz gero, ikusten da egoera horretan dauden prestazioak, Lehendakaritza Departamentuaren kasuan, ehuneko 65 jaitsi direla; gastua, ordea, ehuneko 52 handitu da. Herritarrekiko eta Erakundee-kiko Harremanetako Departamentuaren kasuan, bai kontratuak bai gastu meta-tua ehuneko 53 eta ehuneko 94 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuaren kasua azpimarratu behar dugu; izan ere, hartan kontratuak batetik bestera pasa dira, eta horrekin lotutako gastua nabarmen handitu da; izan ere, 2017ko maiatzean zero eurokoa izatetik 2018ko uztailean 8,15 milioikoa izatera pasa da; igoera horren arrazoi nagusia eskola-garraioarekin lotutako kontratua da, zeren eta haren adjudikazioaren aurkako errekurtsioa aurkeztu baitzen —hori dela eta, arrazoiak ezin zaio erakunde horri egotzi—. Kontratazio horren aurkako errekurtsioari buruz esan behar dugu berriki departamentuaren aldeko epaia eman dela.

Goranzko joera hori Eskubide Sozialetako Departamentuan ere aurkitzen dugu, bertan kontratuen kopurua eta gatu metatuta ehuneko 116 eta ehuneko 74 handitu baitira, hurrenez hurren.

Osasun Departamentuari dagokionez, aurreko taulan jasotako zenbatekoetan ez daude islaturik, ebaluatutako bi datetatik bakarrean ere, O-NOZen gastu batzuei buruzko datuak, dagozkien kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu euskarririk ez izan arren ordaintzen ari diren osasun-hornidura eta sendagai batzuei dagozkienak.

2016ko maiatzean, eta Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuaren barne kontrol-eko ekintza-planak kontuan harturik, O-NOZek ekintza-plan bat ezarri zuen honako helburu honekin: 2020rako eresketa guztiak aplikatzekoak diren kontratazio-arauen arabera esleituta egotea. Horri dagokionez, Kontuen Ganberak jada ospitaleen arloko sendagaien kudeaketa aztertu zuen, eta aipatutako helburuan jasotako edukia gomendatu zuen.

Egungo egoera, O-NOZek aipatutako ekintza-planaren betetzeari buruz emandako datuen arabera, honako hau da: aipatutako osasun-hornidurekin eta sendagaiekin lotutako gastuaren ehuneko 38an legez ezarritako prozedurak jarraitu dira, eta gainerakoak direla-eta zenbait ekintza egin dira kasuko kontratazio-prozedura aurrera eramateko.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta aintzat hartuz departamentuek emandako datuak direla, guk ez baitugu aztertu egoera horretan egon daitekeen gastu ge-





hiagorik ba ote dagoen, zenbatespen bat egin dugu kontratuen indarraldia amaituta eduki arren edo zegokien kontratu-euskarria eduki gabe 2017an ordaindu ziren ondasun arrunt eta zerbitzuen aurrekontu-gastuari buruz, kontratu bakoitzaren urteko zenbatekoa kalkulatu: 167,75 milioi euroko zenbatespena da, eta 2. kapituluaren —ondasun arruntak eta zerbitzuak— guztizko aurrekontu-gastuaren ehuneko 28,56 egiten du.

### *Gastuen lagin baten berrikuspena*

Honako kontzeptu ekonomiko hauen lagin bat berrikusi dugu

Kontzeptuaren deskribapena	Zenbatekoa, 2016	Zenbatekoa, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Azterlan eta lan teknikoak	13.175.638	15.297.409	16
Bestelako gastu askotarikoak	5.698.426	7.088.656	24

2017an, egindako “azterlan eta lan teknikoak” kontzeptuagatik gastua eragin zuten hartzekodunak 917 izan ziren; halere, horietatik hamarrek guztizko zenbatekoaren ehuneko 50 egiten dute, 200.000 eurotik gorako gastuarekin; hona hemen xehakatzeari:

Hartzekodunak	Gastua, 2017	Gastu guztiaren gaineko %
Tracasa Instrumental SL	1.798.867	11,76
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	1.380.916	9,03
Computadores Navarra S.A.	899.349	5,88
Instituto Grifols SA	855.481	5,59
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	778.256	5,09
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	592.190	3,87
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	406.508	2,66
Reference Laboratory SA	339.688	2,22
Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)	309.657	2,02
Nomina Fasearte hartzekoduna	291.447	1,91

Aurreko datuetatik nabarmendu behar dugu gastuaren ehuneko 34 sozietate publikoei egindako enkarguei dagokiela; gainera, nomina-interfase gisako hartzekoduna ez da pertsona fisiko edo juridiko bat; izan ere, batekin baino gehiagorekin lotuta dago.

“Bestelako gastu askotarikoak” kontzeptuaren kasuan, 1.974 hartzekodun ageri dira, baina horietako bakarrean ere ez dago gastu-metatze adierazgarririk. Ondoren, 100.000 eurotik gorako zenbatekoa dutenak erakusten ditugu:

Hartzekodunak	Gastua, 2017	Gastu guztiaren gaineko %
Centro Navarro de Autoaprendizaje	354.322	5,00
Nafarroako Futbol Federazioa	190.437	2,69
Eventos Zunzarren S.L.	164.172	2,32
Nafarroako Saskibaloia Federazioa	134.176	1,89
Ricoch España SLU	118.491	1,67
Nomina Fasearte hartzekoduna	115.614	1,63
Ibain Consultoria SL	111.840	1,58





Honako hauek dira kontzeptu bakoitzerako berrikusi dugun laginaren funtsezko datuak:

Kontzeptua: azterlan eta lan teknikoak		
Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa	Hartzekodunak
Herritarrentzako telefono-arreta (012)	176.195	Tracasa Instrumental SL
Oracle ikastaroak, Iturrondo	118.613	Oracle Ibérica SRL
2030era begirako Energia Planaren kontrol metrologikorako eta jarraipenerako laguntzen kudeaketa	33.552	Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)
Dokumental laburraren grabaketa, edizioa eta soinua	7.200	Partikularra
Hondatutako Seinaleztapen turistikoari buruzko azterlana	1.791	Lacroix Señalización SA
Kontzeptua, bestelako gastu askotarikoak		
Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa	Hartzekodunak
English Week, Maiatza	43.432	Centro Navarro Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)
Nafarroako standaren diseinua, muntatzea eta desmuntatzea	23.982	Eventos Zunzarren S.L.
Logotipoaren diseinua	3.630	Your Concept Estudio Creativo SL
Laborategiko arropa garbitzea	177	ASPACE Fundazioa
Nafarroaren Eguneko musika ekitaldia	118	Partikularra

Egindako lanaren konklusioa da gastua, oro har, zuzen kontabilizatuta eta justifikatuta dagoela, eta araudian ezarritako epean ordaindu dela; gainera, kudeaketa- eta kontrol-prozedurak arrazoizkoak eta egokiak dira.

Aurrekoaz gainera, honako gastu hauetan osaera, 2016koekiko aldea eta sortzapen-printzipioaren aplikazioa aztertu ditugu:

Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa, 2016	Zenbatekoa, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Osasun itunak	61.559.580	54.564.463	-11
Itzaleko bidesarien kanonak	60.124.388	63.795.152	6

Egindako berrikuspenetik, honako konklusio hauek atera ditugu:

- Osasun-itunen arloko gastua 54,56 milioi eurokoa izan zen, eta 2016arekin alderatua ehuneko 11 jaitsi zen, hura osatzen duten partida guztiek izan zuten jaitsiera orokorraren ondorioz eta Nafarroako Unibertsitate Klinikako langile-entzako osasun-arretaren gastua kentzearen ondorioz, hura O-NOZek berak hartu baitzuen bere gain 2016ko maiatzean (2015ean, gastua 5,11 milioikoa izan zen, eta 2016an, berriz, 1,65 milioikoa).

- Ondoren erakusten ditugu zerbitzu hori eman duten hornitzaileen kopurua eta jaso duten zenbatekoa:

Zenbat hornitzaile	Jasotako zenbatekoa
2	>17 milioi euro
5	(17 milioi euro, milioi bat euro)
15	(Milioi bat euro, 100.000 euro)
223	<100.000 euro





Ikusten denez, osasun-itunak 245 hornitzailerekin egin ziren; horietatik bi 17 milioi eurotik gorakoak dira: San Juan de Dios Ospitalea, 21,92 milioirekin (2016koa baino ehuneko bi txikiagoa da kopuru hori) eta Nafarroako Unibertsitatea Klinika, 17,09 milioirekin (2016koa baino ehuneko 20 txikiagoa da kopuru hori).

2017ko gastua, osorik, urte horretako aurrekontuari egotzi zitzaion, 0,37 milioi euro izan ezik, zeinak 2018ko aurrekontuan kontabilizatu baitziren. Zenbateko hori protesien hornidurarako ezarritako itunetik eta Josefina Arregui klinikak emandako zerbitzuetatik datozen gastuen abenduko kopuruei dagokie.

• Kanonen gastua (itzaleko bidesariak) 63,80 milioikoa izan zen 2017an. Hona hemen xehakatzea:

Kanona	2016	2017	(euroak, milakotan)
			Aldea (%) 2017/2016
Donejakue Bideko autobia	43.741	46.195	6
Pirinioetako autobia	16.380	17.597	7
Informatikaren arloko elkarte teknikoen kuotak	3	3	-
<b>Guztira</b>	<b>60.124</b>	<b>63.795</b>	<b>6</b>

Aurreko gastu horien euskarri den dokumentazioa aztertuta, ikusten dugu autobiei buruzko partidek 11 hilabeteren fakturazioa jasotzen dutela (urtarriletik azarora), bai eta aurreko ekitaldiko abenduko fakturazioa eta ekitaldi horretako likidazioa ere. Hartara, 2017. urteari egotzitako 2016ko gastua 4,85 milioikoa da, eta 2018ko aurrekontuan erregistratutako 2017ko, gastua, berriz, 5,09 milioikoa.

Nabarmendu behar dugu, gainera, Pirinioetako autobiarri dagokion gastuak 0,41 milioi euroko kopurua jasotzen duela, Auzitegi Gorenaren 2017ko martxoeko epai betearaztetik datorrena; izan ere, epai horretan ontzat ematen zen emakidadunaren tesia, zeinaren arabera NFKAk ordaindu behar baitzituen emakidaren lizitazioan jasotako kilometroengatik, eta ez egiazki egindakoekin-gatik (egin ez ziren 676 metroko aldea dago).



**Kontratazio-espeditenteen lagin baten berrikuspena**

Nafarroako Gobernuak, GANek eta INTIAk izapidetutako honako kontratazio-espeditente hauek fiskalizatu ditugu:

Helburua	Mota	Prozedura	Adjudikazio-irizpidea	Lizitatzailerikopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Bertizko Jaurerriaren parkearen erabilera publikoa eta mantentzea 2018an kudeatzeko laguntza teknikoa	Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	Eskaintzarik onena	1	155.537	0
Bertizko Jaurerriaren parkearen 2018ko erabilera publikoa	Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	Eskaintzarik onena	1	169.850	0,09
Nafarroako stand instituzionalak nekazaritzako elikagaien azoketan, 2018-2019 urteetan	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	Eskaintzarik onena	1	357.884	4
Lanbide orientazioko zerbitzurako esparru-akordioa	Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	Eskaintzarik onena	15	*	*
NFKAn gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko foru legeko aurreproiektu baterako diagnostikoa eta partaidetza-prozesua zein oinarrien dokumentua egitea	Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	Eskaintzarik onena	3	52.304	20
El Vergel zahar etxerako energia-zerbitzuak, aurrezkien bermekin	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginda	Eskaintzarik onena	3	1.220.141	8
Gas naturaleko hornidura zentralizatua O-NOZen zentroetan 2018/01/01-2018/12/31**	Hornidura	EBn publikitaterik egin gabe negoziatua	**	4	1.137.651	**

\*Kasu honetan, kontraturen balio zenbatetsia 7,52 milioi eurokoa izan zen, baina esparru-akordio bat denez eta hartatik hainbat kontratu egitea eratorriko denez, ez dago, berez, adjudikazio-zenbatekorik.

\*\*Kontratu hori dator 2017-2020 aldirako egindako alde aurretiko esparru-akordio batetik.

Aipatutako kontratazio-espeditenteak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zirela; halere, honako hau aipatu behar dugu:

Lanbide-orientazioko zerbitzurako esparru-akordioa egiteko pleguetan sei sorta ezarri ziren.

17. klausulak zioen esparru-akordioan oinarritutako laguntza-kontratuak adjudikatuko zirela hartan ezarritakoa aplikatuz, aldeei beste lizitazio baterako dei egin gabe, araudiak aukera hori ezartzen baitzuen. Atal horrek ezartzen du, gainera, lehenengo lau loteen adjudikazioa eginen zela lehentasuna emanaz puntuazio altuena lortutako enpresei, eta gainerako bietan hautaketa eginen zela artatu nahi zen kolektiboaren berariazkotasunaren eta ezaugarrien arabera; bada, Ganbera honen ustez, bi lote horiei buruz pleguetan jasotako aukera tratamendu kontratazioaren bi oinarritzko printzipio hauen aurkakoa da: berdintasunezko tratamendua eta tratamendu ez-baztertzaila.

Atal horren aplikazioaren emaitza izan zen lehenengo lau sortak adjudikatu zirela puntuazioan lortutako lehentasun-ordenari jarraituz, baina azken biak ad-





judikatu zirela aipatutako irizpideak kontuan hartuz, eta ez lortutako puntuazioa; horrekin, izan ere, aipatutako printzipioak urratu ziren.

Geroko egitate baten gisara, nabarmendu behar dugu ezen 2018ko martxoan Eskubide Sozialetako Departamentuak erabaki zuela esparru-akordio hori indarrik gabe uztea, eta 2018ko apirilean beste akordio bat egin zela; azken horretan, hobekuntza batzuk sartu baziren ere, bi sortaren kasuan oraindik ere mantentzen da kontratuak artatu nahi den kolektiboaren berariazkotasunaren eta ezaugarrien arabera adjudikatzeko irizpidea, lortutako puntuazioa zein den ere.

*Gomendatzen dugu pleguetan adjudikazio-irizpideak argi zehaztea eta haiek aplikatuz lortu diren puntuazioak errespetatzea, egiten diren esparru-akordioei dagozkien kontratuak kontratazioari buruzko araudiaren printzipio zuzentzaile guztiak errespetatuz adjudikatze aldera.*

## V.7. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentzientzatiko gastuak

### Transferentzia arruntak

2017an emandako transferentzia arruntek 1.488,90 milioi euro egin zuten. Aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 37 egiten dute. Gastu horiek ehuneko lau egin zuten gora 2016koekin alderatuta, ondoren erakusten dugun bezala:

	(euroak, milakotan)		
Transferentzia arruntak	2016	2017	2017/2016 aldea (%)
Estatuko Administrazioari (hitzarmena)	540.856	511.139	-5
Fundazioei	8.603	8.136	-5
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	77.074	130.510	69
Toki entitateei	269.670	274.878	2
Enpresa pribatuei	59.419	64.341	8
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	472.588	499.866	6
Kanporako	30	27	-9
<b>Guztira</b>	<b>1.428.240</b>	<b>1.488.898</b>	<b>4</b>

Bistan denez, nabarmena da enpresa publikoei egindako transferentziek gora egin dutela; horren arrazoia da, funtsean, Nasuvinsa enpresari egin zaion 51,37 milioiko transferentzia, Garraioaren Hiriari buruzko epaiari aurre egin ahal izateko. Gastu hori aztertu zen Ganbera honek Iruñerriko Garraioaren Hiriari (1991-2017) buruz 2018ko ekainean egindako txostenean; hartan ondorioztatzen zen ezen zenbateko hori funtsean zegokiola desjabetutako lursailen metro koadro bakoitzaren kostuan izandako aldeari, horri buruz emandako epaien ondorioz.

Nabarmentzen du, halaber, Estatuarentzako transferentziek ehuneko bost egin dutela behera (29,72 milioi euro gutxiago), Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren ekarpena finkatzeari buruz zegoen desadostasuna ebatzi ondoren.







### Kapital-transferentziak

2017an baimendutako kapital-transferentziak 107,12 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru egiten dute, eta ehuneko 16ko igoera izan zuten 2016koekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

(euroak, milakotan)			
Kapital-transferentziak	2016	2017	Aldea (%) 2017/2016
Fundazioei	2.621	5.208	99
Enpresa publikoei	656	2.010	207
Toki entitateei	17.384	30.237	74
Enpresa pribatuei	38.947	39.421	1
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	32.411	30.246	-7
<b>Guztira</b>	<b>92.019</b>	<b>107.122</b>	<b>16</b>

2017an, transferentzien ehuneko 37 enpresa pribatuei egin zitzaizkien; ehuneko 28 hala familiei zein irabazi asmorik gabeko erakundeei, nola toki entitatei, eta gainerako ehuneko zazpia fundazioei eta enpresa publikoei.

Oro har, artikuluko ekonomiko guztiek igoerak izan dituzte 2016koekin alderatuta. Nabarmendu beharra dago enpresa publikoena ehuneko 207 igo dela. Jaitsi den bakarra eta familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzendutakoa da, zeina ehuneko zazpi jaitsi baita.

Ez dago jasota 2017. urterako diru-laguntzen plan estrategikorik dagoenik NFKArentzat; halako tresna bat onetsi da, ordea, 2018-2020 aldirako.

#### V.7.1. Aztertutako lagina

2017an baimendutako transferentzia arruntetatik eta kapital-transferentzietatik berrikusi dugun lagina honako hau da:

(euroak, milakotan)			
	Gastua, 2016	Gastua, 2017	Aldea (%) 2017/2016
<b>Transferentzia arruntak</b>			
Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak	12.116	14.457	19
Irakaskuntza ertainerako eta goi ikasketetarako beka eta laguntzak	3.360	4.572	36
Nafarroako Ubidearen ureztalurren kanona, 1. fasearen zabal-kuntza	0	2.916	-
<b>Kapital-transferentziak</b>			
Zentro teknologikoentzako eta ikerketa-erakundeentzako laguntzak	7.461	5.444	-27
RIS3 Nafarroa I+G proiektu estrategikoak	0	2.034	-
Nafarroako Ubidean ureztalur berriak jartzea	11	556	5.019
<b>Itzulketak</b>			
18 espediente	-	5.174	-

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimenduta, kontu-hartzaileak ikusita, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela, eta diru-





laguntzak<sup>6</sup> haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu —edo, kasua bada, itzuli— direla; halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Zentro teknologikoetarako eta ikerketa-erakundeetarako diru-laguntzen deialdian erakunde bakar batek aurkeztutako proiektuen ebaluaziorako jasotako irizpide-etako bat zen “proiektuak zentroaren plan estrategikoarekiko lehentasuna izatea”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak zerrenda hori igorri zuen proiektuen lehenespenerari buruzko informazioarekin, halako moduz non ezin izanen ziren egoki identifikatu; hori dela eta, eskatu zitzaion datuak alda zitzan puntuak zuzen esleitu ahal izateko. Entitateak berriz ere bidali zuen informazio hori, baina datuak, hasierako informazioarekin akats material bat gertatu baitzen, ez ziren behar bezala alderatu.

Puntuazioen esleipen horren emaitza izan zen 2017ko ekainean laguntzak eman egin zirela; behin zentroak jakinarazpen hori jaso eta akatsaz ohartuta, Garapen Ekonomikorako Departamentuari komunikatu zion, eta erabaki zen aurreko ebazpena aldatzea; hartara, 2017ko abuztuan, puntuen esleipena zuzen egin izatera diru-laguntza jaso beharko zuten zentro horren sei proiektu jaso zituen behin betiko ebazpenak; 342.583 euro egiten zuten guztira. Bestetik, hiru proiekturi eutsi zitzairen, zeinek, puntuazioen esleipena zuzen egin izan balitz, ez zuten laguntza jasoko —420.292 euroko zenbatekoa egiten zuten—, honako arrazoi hauek tarteko:

*“... proiektuak aurrera eramateko epea urtebetekoa denez, guztiak ere hasita eta garapen-fase desberdinetan daude, horren barne dela ikertzaileen kontratazioak; hori dela eta, horiei orain ezetzkoa emateak kalte larria eragingen lieke entitate onuradunei...”*

- Nafarroako Ubidearen ureztaketa-kanonari dagokion 2,92 milioi euroko zenbatekoa honako hauei dagokie: 2015eko gastua (7.436 euro), 2016ko gastua (0,48 milioi euro) eta 2017ko gastua (2,43 milioi).

2017an aurreko ekitaldietako gastuak aitortu izanaren arrazoia da espediente horiek oso berandu izapidetu zirela, batez ere honako arrazoi hauek direla eta: Kontu-hartze Zerbitzuak jarduketa exhaustiboagoak egin zituen aurreko urteetan baino; zerbitzu horrek espedienteak atzerapenez jaso zituen, gastuaren sortzapenerari begiratuta, eta, gainera, espediente ez zeuden osorik, eta horrek are eta gehiago atzeratu zuen kontu-hartzailetzaren jarduketa.

- 2011. urtea baino lehen ez zegoen errolda bakarra etxebizitza babestuko eskatzaileei buruz; hori dela eta, ez zen beharrezkoa izaten hartan izena emanda egotea alokairu-araubidekotzat kalifikatutako sustapen pribatuetan etxebizitzaren errentamendua eskuratzeko. Horrek esan nahi du sustatzaileek alokairu-eskatzaileei bu-

<sup>6</sup> Nafarroako RIS3 I+G proiektu estrategikoen kasuan, gastuen justifikazio partziala berrikusi dugu, zeren eta 2018ko martxoan aurkeztutako amaierako justifikazioaren berrikuspena amaitzeke baitago.





ruzko beren zerrenda izaten jarraitzen dutela, eta beren irizpideen arabera kudeatzen dutela.

Gure gomendioak:

- *Zorrotz egiaztatzea aurkeztutako laguntza-eskaerei eman zaizkien puntuazioak, diru-laguntza deialdi bakoitzean ezarritako irizpideen arabera dagokionari eman dakion.*

- *Ahal den neurrian, Nafarroako Ubidearen ureztaketa-kanonetik heldutako gastuei buruz kudeaketa-unitateak eta kontu-hartzeak egin beharreko kontrol-lanak arintzea, gastu horiek aurrekontuan kontabilizatzerakoan sortzapenaren printzipioa egoki aplikatzeko.*

- *2011 baino lehenagoko sustapenetako alokairu-eskatzaileak errolda bakarrean sartzeko aukera eta komenigarritasuna aztertzea, gardentasuna dela eta.*

#### V.7.2. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributuz-jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago.

Hitzarmen horrek harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak —Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako— egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere.

Hitzarmena hainbat aldiz gaurkotu eta aldatu da. Azken gaurkotze eta aldaketa 2015ekoa izan da, ekainaren 24ko 14/2015 Legeari jarraituz.

2016ko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruz Ganbera honek egin zuen txostenean jada deskribatu genuen zein arazo zeuden 2015-2019 bosturtekorako ekarpena finkatzeari buruzko akordioa lortzeko. Desadostasun hori 2017ko abenduaren amaieran ebatzi zen, bi administrazioak adostasun batera iritsi baitziren hala 2015-2019 bosturteko ekarpenari buruz, nola doikuntza fiskalak zehazteko metodologia berriari buruz.





Honako hauek izan dira hitzarmen ekonomikoari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak, 2017ko aurrekontuan aitortuak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren artean egindako alderaketa:

(euroak, milakotan)			
Hitzarmena-Aurrekontuko partidak	2016	2017	2017/2016 aldea (%)
Estatuarentzako ekarpena	520.687	509.174	-2
Sektore elektrikoaren gaineko zergengatiko konpentsazioa	20.169	1.965	-90
<b>Gastu-partiden guztizkoa-Hitzarmena</b>	<b>540.856</b>	<b>511.139</b>	<b>-5</b>
BEZarengatiko doikuntzak	835.522	889.110	6
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	-37.473	-37.958	1
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	4.406	6.431	46
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	8.114	12.235	51
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	-10.034	133.152	1.427
<i>BEZarengatiko eta zerga bereziengatiko doikuntzak atal honetan, guztira</i>	<i>800.536</i>	<i>1.002.970</i>	<i>25</i>
2015-2016 aldiko Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioaren saldoa	0	128.694	-
Sektore elektrikoaren gaineko zergengatiko konpentsazioa	0	0	-
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren tributuetan	88	92	4
<b>Hitzarmeneko diru-sarreraren partidak, guztira</b>	<b>800.624</b>	<b>1.131.756</b>	<b>41</b>

### Gastuak

- 2017an estatuari egindako ekarpenak 509,17 milioi euro egin zuen. Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 13 da, eta ehuneko bi egin du behera 2016koarekin alderatuta.

2017ko abenduko akordioak 510 milioiko ekarpena ezarri zuen oinarri-urterako; horrek berekin ekarri zuen aurreko urteetako behin betiko likidazioak Nafarroaren aldeko 128,69 milioiko konpentsazioa ekartzea.

- Hitzarmeneko beste gastuak lotura du sektore elektrikoaren gaineko zergen konpentsazioarekin, zeina 2017an 1,96 milioi eurokoa izan baitzen; zenbateko hori bat dator 2016. urteko erregularizazioarekin.

### Tributu bidezko diru-sarrerak

Aplikaturako doikuntzak zeharkako zergei, BEZari eta zerga bereziei dagozkie, eta hitzarmen ekonomikoan aurreikusitako formulen eta metodoen arabera kalkulatu dira.

2017ko abenduan doikuntza fiskalak egiteko adostutako metodologiak berekin ekarri zuen kontsumo-aldaketaren adierazleak gorantz aldatzea, eta kudeaketa-adierazleak, berriz, beherantz: Parametro horien aplikazioak ekarri zuen hainbat zergatan erregularizazioak egitea, eta 2016. eta 2017. urteetan alde nabarmenak gertatzea zenbait doikuntzetan; esate baterako, hidrokarburoen gaineko zergari dagokionean.





### Hitzarmeneko aurrekontuetako gastuen eta diru-sarreraren 2013-2017 aldiko bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu Hitzarmeneko gastuek eta diru-sarrerak nolako bilakaera izan duen 2013-2017 aldirian:

(euroak, milakotan)

	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea (%) 2017/2013
Estatuarentzako ekarpena	571.859	555.835	591.043	520.687	509.174	-11
Sektore elektrikoko zergengatiko konpentsazioa	0	0	26.859	20.169	1.965	-
<b>Hitzarmenaren gastuak, guztira</b>	<b>571.859</b>	<b>555.835</b>	<b>617.902</b>	<b>540.856</b>	<b>511.139</b>	<b>-11</b>
BEZarengatiko doikuntzak	646.767	750.869	811.648	835.522	889.110	37
Fabrikazioaren gaineko zerga berezientzatiko doikuntzak	9.273	-32.095	-67.184	-34.986	113.860	1128
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa	0	0	0	0	128.694	-
Diputazioen parte-hartzea Estatuko diru-sarreretan	82	82	79	88	92	12
<b>Hitzarmenaren diru-sarrerak, guztira</b>	<b>656.122</b>	<b>718.856</b>	<b>744.543</b>	<b>800.624</b>	<b>1.131.756</b>	<b>72</b>

2017an, Estatuaren ekarpena ehuneko 11 jaitsi zen, bi administrazioek 2017ko abenduaren amaieran lortutako akordioan ezarritako muga gaurkotzearen ondorioz.

Fabrikaziorako zerga berezien doikuntzak nabarmen handitu ziren — ehuneko 1.128, hain zuzen— metodologian eta 2017ko abenduan adostutako adierazleetan izandako aldaketaren ondorioz; inguruabar hori eta 2017a baino lehenagoko ekarpenaren behin betiko likidazioa direla eta, ekitaldi horretako diru-sarrerak nabarmen handiagoak dira gastuak baino (620,62 milioi).

### V.8. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa

2017ko inbertsioak 119,15 milioi eurokoak izan ziren, aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru, ehuneko 86ko betetze-mailarekin. Kontzeptu ekonomikoaren arabera, berriz, honako hau izan zen:

(euroak, milakotan)

	Gastua, 2016	Gastua, 2017	Aldea (%) 2017/2016
Lurra eta ondasun naturalak	713	348	-51
Herri-lanak	34.033	47.434	39
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	15.408	25.370	65
Makinak, instalazioak eta tresnak	1.071	1.671	56
Garraio materiala	1.728	2.786	61
Altzariak eta tresneria	7.546	14.621	94
Informazioa prozesatzeko ekipoak	3.301	5.873	78
Bestelako ibilgetu materiala	3.045	1.892	-38
Ibilgetu ez-materiala	18.010	19.154	6
<b>Guztira</b>	<b>84.855</b>	<b>119.149</b>	<b>40</b>





Inbertsio nagusiak honako kontzeptuei dagozkie: ehuneko 36, errepide eta bideei; ehuneko 20, eraikinei; ehuneko hamar, aplikazio informatikoei; eta ehuneko zazpi, ekipamendu medikoei.

Inbertsioen ehuneko 40 Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagozkie, eta ehuneko 26, berriz, Osasun Departamentuari.

2017ko inbertsioak 2016an egindakoak baino ehuneko 40 handiagoak izan ziren. Gastu hori ehuneko 56 jaitsi da 2010ekoaren aldean, eta 273,59 milioi-koa izatetik 119,15 milioi-koa izatera pasa da; halere, 2017an, aztertutako aldiaren lehenengo aldiz, gastua aurreko urtekoa baino handiagoa izan da, ondoren ikusten den bezala:

Inbertsioak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
6. kapitulua, guztira (miliotan)	273,59	193,93	142,61	125,05	94,13	91,86	84,86	119,15
Aurkibidea	100	71	52	46	34	34	31	44

Erabilera edo zerbitzu publikoko azpiegituretan egindako inbertsioak — horietatik 42,31 milioi euro, 2017an, batez ere errepideetan egindako lanei dagozkie — ez daude jasota balantzearen ibilgetu materialean; izan ere, ibilgetuaren galeren kontzeptuan izandako emaitza ekonomikoari egozten zaizkio.

Ibilgetu ukiezinetan egindako inbertsioak ere ez dira jaso ibilgetu ukiezin moduan balantzearen aktiboan; izan ere, emaitza ekonomikoaren kontuari egozten zaizkio ibilgetu ez-materialaren galera gisa. 2017an, 19,15 milioi euro izan dira.

Oraindik ere ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.

Kontu Orokorren oroitidazkian ez dago informaziorik ondasun eta eskubi-deen inbentarioari buruz, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoaz bestera.

Hala Nafarroako Gobernuaren, nola NASERTIC, NILSA, NASUVINSA eta A-12 autobiarren emakidadunaren inbertsioen adjudikazio-espeditenteen eta 2017an ekarri dituzten gastuen lagin bat aztertu dugu. Espediente horien xehetasunak hurrengo orrialdean ageri dira.





Helburua	Prozedura	Adjudikazio-irizpidea	Lizitazaile kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
A12 autobioako 5. tarte orokorreko zoria sendotzea	Murriztua	Eskaintzarik onena	7	2.335.284	14
Sunbillako tunela Europako 2004/54/EE Zuzentarauaren arabera egokitzea	Irekia	Eskaintzarik onena	3	797.185	19
Nafarroako errepide sareko mendebaldeko multzoko bide-markak margotzea eta birmargotzea	Irekia	Eskaintzarik onena	9	495.868	20
Nafarroako Jauregia sektorizatzea eta egitura suaren aurka babestea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	Eskaintzarik onena	1	255.500	0,5
Nafarroako Jauregiko barneeskailera	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	Eskaintzarik onena	1	193.421	1
Belate-Elizondo-Bera zuntz optikoko konexiorako obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	5	473.946	28
INASaren (Irurtzun) instalazioetako azpiegiturak egokitzea. I. fasea	Irekia	Eskaintzarik onena	6	427.172*	9
Urederra ibaiko beheko tarteko hondakin uren tratamendua	Irekia	Eskaintzarik onena	8	553.044	23
Urbasa eta Andia parke naturaleko inbertsioak	Irekia	Eskaintzarik onena	4	82.817	18
Tutera kaleko (Iruña) lokale-tako bulegoetan erreforma eta egokitze-lanak egitea eta arkitektura-oztopoak kentzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	Eskaintzarik onena	4	1.313.098	13

\* Geroztik, 25.455 euroko kontratu-zabaltze bat egon da.

Oro har, gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude; halere, zenbait gabezia detektatu dira berrikusitako espedienteen izapideetan; ondoren, aipagarrienak azalduko ditugu:

- Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak kontratuak direla-eta egiten dituen adjudikazioetan, oro har, eskaintza ekonomikoa baloratzeko batez besteko bajaran oinarritzen den formula bat erabiltzen da; egiaztatu dugu ezen formula hori Sunbillako tuneleko egokitze-lanetako eta bide-markak margotzeko espedienteetan erabiltzeak berekin ekarri duela eskaintzetako puntuazioa ez egotea proportzioan eskaintetako bajaran arteko aldearekin.

Adjudikatutako beste kontratu batean, kontratazio-mahaian parte hartu zuen kontu-hartzaileak zalantzan jarri zuen beste formula hori erabiltzea, eta azkenean eragozpenen txosten bat egin zuen, prozesua eten ez zuena, Idazkaritza Tekniko Nagusiari gai honi buruzko txosten juridikoak eskatu ondoren.





Horri buruz Ganbera honek jada NFKAren 2003ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean gomendatu zuen eskaintzen batez besteko baja ez erabiltzea lizitazioaileek aurkeztutako proposamen ekonomikoetarako puntuazioak baloratzeko eta esleitzeko, zeren eta hala egiteak ez baitu beti errazten obra publikoen adjudikazioak efizientzia eta ekonomia irizpideak betetzea, eta eskaintza ekonomiko aldekoenaren nozio legala aldarazten baitu; gomendio hori berretsi egin da geroztik Ganbera honek egindako txostenetan, eta gaur ere eusten diogu.

- Bide-markak margotzeko 2018-2021 aldirako adjudikatutako espedienteari dagokionez, kontratazio-mahaiari parte hartutako kontu-hartzaileak eta idazkariak aipatutako beste egitate garrantzitsu bat badago, aurreko kontratuetara ere hedatzen dutena, baita aztertzen ari garen honetara eta 2018an adjudikatutako beste lau kontratutara ere. Zehazki, aktetan ageri den bezala, aipatutako pertsonak uste dute enpresa lizitazioaileetako batzuek lehiakorrak ez diren eskaintzak aurkezten dituztela; honako hau aipatzen dute, zehazki:

*“...eta litekeena da horrek esan nahi izatea kontratazio-prozedura honetan parte hartu duten lizitazioaileen arteko lehia eraginkorra eragotzi nahi izan dela, edo, gutxienez, lehia askeko baldintza normaletan aurkeztea saihestu nahi izan dela.*

*“...inguruabar hori ikusten da, kasu honetan ez ezik, gutxienez ere aurreko beste bi alditan ere, “Nafarroako Foru Komunitateko Errepide Sareko mendebaldeko multzoko bide-markak margotzea eta birmargotzea (2013-2016 urteetarako eta 2017rako kontratua) kontserbazio obretako lizitazioetan...”.*

2018ko martxoan, kontratazio-mahaiak honako proposamen hauek aurkeztu zizkion kontratazio-organoari: Kontratazio Batzarrari irizpena egin zezan eskatzea, jakite aldera ea bere eginkizunen barruan egonen litzatekeen kolusiozko jokabideen aztarnarik baden antzematea; Nafarroako lehiaren defentsaren arloko agintaritzari txostena eskatzea, jakite aldera ea aurkeztutako eskaintzetan aztarna oinarriturik edo kolusiozko jokabideen ebidentziarik baden; eta 2018-2021 aldirako lizitazio-prozedura etetea.

Geroztik gertaturiko egitate adierazgarri gisa, nabarmendu behar dugu ez da goela jasota irizpenaren eskaerarik aurkeztu zaionik Kontratazio Batzarrari, ez eta lehia aldezteko Nafarroako agintaritzari txostenik eskatu zaionik ere; adjudikazioa, ordea, 2018ko apirilean egin zen.

- Bide-markak margotzeko kontratuak arautzen zituen pleguak gehieneko gastu bat aurreikusten zuen, egin beharreko lanen arabera, hamar hilabeteko epean agortu behar zena; aurreikusita zegoen prestazio horien ordainketa hileko hamar ziertagiritan egitea. Adjudikatutako zenbatekoa lehenengo bost ziertagiritan agortu bazen ere, gainerako bostak zero zenbatekoarekin egin ziren, beren prozedura-kostuarekin.

- Sunbillako tuneleko egokitze-lanak egiteko eta bide-markak margotzeko espedienteetako kontratazio-mahaiari sinadurak irakurtzen ezinezkoak dira, eta sinaduraren azpian ez da jasota ageri sinadura egin duenaren identifikaziorik.







- Iruñean bulegoak erreformatu eta arkitektura-oztopoak kentzea 2011ren amaieran hasitako inbertsio batzuen jarraipena da; obra horiek 2012ko uztailean gerarazi ziren, adjudikazio-hartzaileak lanak abandonatu zituelako, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu baitzen.

Lokal horien xedea zen bertan O-NOZen eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zerbitzu nagusiak jartzea; zerbitzu horiek errentan hartutako lokaletara eraman ziren O-NOZen kasuan (2014ko maiatzean) eta NFKAren jabetzapeko beste batzuetara Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kasuan (2014ko abenduan).

Lokal horien erreformarako espedientea ez zen berriz hasi 2016ko otsailera arte, nagusiki aurrekontuan dirurik ez zegoelako, eta azkenean 2017ko maiatzean adjudikatu zen. Txosten hau idazteko garaian, obra amaituta dago, eta lokal hauetarako lekualdatzea, 2018ko abuzturako aurreikusita zegoena, ez da oraindik egin antolamendu-arrazoiengatik (eta ez da 2019ko ekainera arte eginen), esan digutenaren arabera, nahiz eta errentamendu-kontratuak aukera ematen zuen NFKAk atzera egiteko, inongo zehapenik gabe, hiru urte iraganda.

Lokal horien erreformak guztira ekarri duen gastua, hasi zenetik gaur arte, 3,27 milioi eurokoa da, eta honako hauek dira haren xehetasunak:

Urtea	Gastua
2010	268.190
2011	156.855
2012	1.026.466
2016	11.226
2017	949.987
2018	855.871
<b>Guztira</b>	<b>3.268.595</b>

Aurreko gastuari gehituta, O-NOZ kokatuta dagoen lokalen errentamendua badago (urtean 325.445 euro, 2014ko apiriletik gaur arte), bai eta espazio horien komunitate-gastuak ere (urtean 50.000 euro inguru, aipatutako aldian).

Adjudikazio-espedienteari dagokionez, ez daude jasota kontratazio-mahaiaren akta guztiak, eta horietako batzuk oraindik ere ez dira behar bezala bete; gainera, ikusten da araudian ezarritako epeak ez direla bete prozeduraren fase batzuetan (horien artean zazpi ziurtagirietatik seiren ordainketa nabarmendu behar dugu).

- A-12ko autobioako 5. tarte orokorraren zorua sendotzeko lanak azpiegitura horren emakidadunak adjudikatu zituen. Enpresa horiek kontratuak prestatu eta adjudikatu behar dituzte Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituz. Egiaztatu dugu ezen, enpresak emakida dela-eta egiten dituen kontratazioak arauditik kanpo egiten direla.

Horrek esan nahi du antolamenduzko gabeziak badaudela (ez zen kasuko adjudikazio prozedura bete; pleguek ez dituzte ezartzen kaudimenerako gutxie-





neko baldintzak, ez eta adjudikazioarenak ere; lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazio guztia gutun-azal bakarrean dago, eta abar); hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu kontratazioa egin ote zen kontratazioa arautzen dituzten printzipioen arabera (publizitatea, bazterketarik eza, berdintasunezko tratua eta baliabideen erabileraren efizientzia handiena).

- Urbasa eta Andiako parke naturaleko inbertsioen kontratua egin zen, eta obrak hasi ere hasi ziren, araudian adjudikazioa eteteko ezarritako epea amaitu baino lehen, baina ez zen horri buruzko inongo erreklamaziorik aurkeztu.

- Irurtzongo INASaren instalazioetako azpiegituren egokitzea arautzen duten baldintza ekonomiko-administratiboaren pleguek honako gabezia hauek dauzkate: kaudimen ekonomiko eta finantzariarako berariazko atalik ez dago, ez eta kaudimen tekniko edo profesionalerako atalik ere; adjudikazio-irizpideen barruan, kaudimen-irizpideak baloratzen dira; proposamen ekonomikoaren ereduak akats bat badauka aplikatu beharreko BEZaren tasan; aurreikusitako berme-epea txikiagoa da araudia- ren arabera ezarri beharrekoa baino, eta eskaintza ekonomikoa baloratzeko formula batez besteko bajetan oinarritzen da.

Lizitazio-prozesuan, halaber, zenbait gabezia aurkitu dira; honako hauek, besteak beste: lizitazioaren iragarkitik eskaintzen aurkezpenera arteko epeak ez dira betetzen; ez dago jasota lizitatuzaileetako baten aurkezpenaren data; eskaintzak irekitzeko eguna ez zen Kontratazio Atarian argitaratu, eta ez ziren dokumentu bidez jasota utzi ez dokumentazioaren irekitzea, ez eta eskaintza ekonomikoak irekitzea ere; balorazio teknikoa bera egin zuten langile teknikoen nagusi hierarkikoak berrikusi beharrekoa zen, baina ez zuen halakorik egin, eta abar.

Egindako kontratuak akatsik badu, zeren eta pleguetan ez dauden klausulak edo gaizki zenbakituta ageri direnak aipatzen baititu; gainera, haren luzatzea ez zen Kontratazio Atarian argitaratu.

- Nafarroako Jauregia eta eraikin horren barruko eskaileran sektorizatze eta egitura suaren aurka babesteko kontratuen pleguetan aurreikusita dagoen ordainketa-araubideak 30 eguneko epea, araudian ezarritakoa gainditzen du. Behin ziurtagiria jaso denean hasten da kontatzen epe hori. Zortzi ziurtagirietatik bostetan epe hori gainditu da.

30 eguneko epe hori, halaber, gainditu da arestian aipatutako lokalen erreformarako obren sei ziurtagirietatik bosten ordainketan, eta Sunbillako tunela egokitze lanen zazpi ziurtagirietatik biren ordainketan.

- Belate-Bera eta Azkazkorro-Elizondo zuntz optikoko interkonexioko obrak NASERTIC enpresa publikoak adjudikatu zituen NFKAren enkargu bati aurre egin ahal izateko.

Eskaintza ekonomikoa baloratzeko erabili den formulak tarteen arabeko linealtasunaren irizpidea aplikatzen du, batez besteko bajatik dagoen hurbiltasun-





naren arabera; aukera hori, ordea, aipatu dugun bezala, gure ustez ez da egokia. Gainera detektatu dugu lizitatzailen eskaintza ekonomikoari puntuazioa emateko formularen diseinuak, Excel aplikazio informatikoan egina, akats batzuk bazituela. Horrek esan nahi du emandako puntuazioak ez zirela zuzenak izan; halere, zuzen aplikatu izan balira, emaitza ez zen aldatuko. Ez dakigu nolako eragina eduki ahal izan duen akats horrek formula bera erabili den beste lizitazio batzuetan.

Bestetik, nabarmentzen dugu NFKAk urte amaieran ordaindu ziola enkargua NASERTICi, eta enpresa publiko horrek obra amaitu baino lehen ordaindu ziola enpresa kontratatuari.

Gure gomendioak:

- *Lehiaren defentsarako Nafarroako agintaritzari txostena eskatzea printzipio hori urratzen ari diren jarduketan aztarnak eduki bezain laster.*
- *Onartutako eskaintzen prezioari puntuazioa ematea horietako bakoitzak lizitazio-prezioan dakarren gutxitzearen proportzioan.*
- *Zaintzea azpiegituren emakidadunek kontratazio-araudia betetzen dutela aplikatzekoak zaizkien ataletan.*
- *Kontratazio-araudia bere zabaltasun osoan aplikatzea enpresa publikoek egindako kontratuetan, hala aurreikusita dagoen ataletan.*
- *Kontratuen adjudikazio-espedienteak osatzen dituzten dokumentuak sinatuko dituzten pertsonak identifikatzea.*
- *NFKAk zerbitzu bat hartzea ez dakarten ziurtagiriak “zero” gastuarekin formalizatzeko (prozedura-gasturik ez edukitze aldera) jardunbidea uztea.*
- *O-NOZeko zerbitzu nagusietako lantokia erreformatutako lokaletara eramatea, ahal den bezain laster errentamendu- eta komunitate-gastuak egiteari uzteko.*
- *Kontratuak egiteko eta kasuko prestazioei hasiera emateko araudian aurreikusitako adjudikazio eteteko epea errespetatzea.*
- *Kontratututako prestazioak ordaintzeko araudian adierazitako epea betetzea, kasuko ziurtagiria jasotzeko data kontuan hartuta.*
- *Ekitaldian egiazki jasotako prestazioei dagokien aurrekontu-gastua erregistratzea.*
- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean jasotako kontabilitate-irizpideak aplikatzea beren zabaltasun guztian ibilgetuaren eragiketetan (lagapenak, atxikipe-nak, azpiegiturretan egindako inbertsioak eta abar).*





## V.9. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak

### Zergak

2017ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubideek 3.658,40 milioi euro egin zuten. 2016an baino ehuneko 14 (451,52 milioi) gehiago dira eta eskubideen guztizkoaren ehuneko 81 egiten dute.

Ondoren, 2017an aitortutako eskubideak erakusten ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere, zerga-figura desberdinei dagokienez:

(euroak, milakotan)

Zergak	Aitortutako eskubide garbiak		Diru-bilketa garbia		2017/2016 aldea (%)	
	2016	2017	2016	2017	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia
PFEZa	1.180.097	1.282.948	1.168.323	1.282.945	9	10
Sozietateak	205.097	303.945	205.097	256.130	48	25
Egoiliar ez direnen errenta	6.444	5.761	6.384	5.761	-11	-10
Ondarea	31.845	39.037	30.490	39.037	23	28
Oinordetzak eta dohaintzak	43.051	45.772	43.051	43.402	6	1
Banku-gordailuen gainean	3.118	4.902	3.116	4.902	57	57
Energia-ekoizpenaren gainean	22.119	30.336	21.794	28.178	37	29
Saltoki handiak	3.302	-5	3.113	5-	-100	-100
Loterietako eta apustueta sariak	4.940	13.316	4.940	13.316	170	170
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>1.500.0131.502.029</b>	<b>1.726.0121.728.029</b>	<b>1.486.308</b>	<b>1.673.671</b>	<b>15</b>	<b>13</b>
BEZa	1.221.862	1.306.836	1.171.814	1.306.836	7	12
Zerga bereziak	423.309	552.967	422.112	552.326	31	31
Kontsumoen gaineko beste zerga berariazko batzuk	-9.364	-5.990	-5.544	-5.990	-36	8
Aseguru primen gaineko zerga	19.715	20.800	19.715	20.579	6	4
Ondare-eskualdaketak	37.056	47.952	37.056	47.282	29	28
Egintza juridiko dokumentatuak	11.741	6.553	11.741	6.554	-44	-44
Joko-jarduerak	1.556	2.046	1.556	1.920	31	23
Beroteji-efektuko gas fluordunak	992	1.228	928	1.229	24	32
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>1.706.86815.000.134.710.925</b>	<b>1.932.392</b>	<b>1.659.378</b>	<b>1.930.736</b>	<b>13</b>	<b>16</b>
<b>Zergak, guztira</b>	<b>3.206.881</b>	<b>3.658.404</b>	<b>3.145.686</b>	<b>3.604.407</b>	<b>14</b>	<b>15</b>

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Oro har, zergen bidez aitortutako eskubideen joera goranzkoa da 2016koekin alderatuta, salbuespenen batekin; esate baterako merkataritza-gune handiei dagoki-ena, zeina indargabetu baitzen Europako Batzordearen errekerimenduen ondorioz, eskubide negatiboak aitortuta; edo egintza juridiko dokumentatuekin lotutakoa.

- Daukaten kopurua dela-eta, honako hauek dira nabarmentzekoak: BEZa, 1.306,84 milioi euroekin, eta PFEZa, 1.282,95 milioirekin. Guztizkoaren ehuneko 36 eta 35 egiten dute, hurrenez hurren.





- Hiru zerga-figura handietatik, BEZak eta PFEZak ehuneko zazpiko (84,97 milioi) eta bederatziko (102,85 milioi) hazkundera erakusten dute, hurrenez hurren, azken kasu horretan, besteak beste zerga-erreformaren ondorioz; bestetik, sozietateen gaineko zergak ehuneko 48 egin du gora (98,85 milioi).

- Halaber, nabarmendu behar dugu banku-gordailuen bidezko diru-sarrerek gora egin dutela, bai eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko kargari dagokiona ere (1,78 eta 8,22 milioi gehiago, hurrenez hurren).

- Kontabilitate-sistemen arteko lotura egokiaren faltatik heldutako arazoek bertan dira, SAPGE21 kontabilitate-sistemaren diru-bilketa garbia arrazoizkoa ez izatea; izan ere, aurtengo ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako eskubideek sortutako kobrantzak biltzen ditu. Gainera, kobratzen zenbatekoak ez dira sailkatzen printzipalaren, errekaraguen eta interesen artean. Hori dela eta, CAT-GTk emandako informazioarekin, zenbatespen bat egiten da ekitaldi honetakoak izanen lirategen eta aurreko urteetatik etorriko lirategen kobrantzekin; kalkulu horietan oinarrituta, Kontabilitate Zerbitzuak beste zenbatespen bat egiten du kopuru horiek ekarriko lukekenari buruz. Bigarren zenbatespen hori da azkenean zerga bakoitzaren diru-bilketa garbi moduan ageri dena.

Aurrekoa kontuan hartuta, diru-bilketa garbia 3.604,41 milioikoa izatera iritsi zen, 2016koa ehuneko 15 gaudituz; igoera aipagarrienak honakoei dagozkienak dira: PFEZa, ehuneko seirekin (61 milioi), eta energia elektrikoaren produkzioaren gaineko zerga, ehuneko 62rekin (zortzi milioi).

- BEZari dagokionez, kontuan hartu beharra dago ea kudeaketa zuzenean Nafarroari dagokion edo Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren bitartez egindakoari dagokion. Hartara, honako hau da xehakatzeari aurreko irizpideari jarraituz:

(euroak, milakotan)

Aitortutako BEZa	2015		2016		2017	
	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	372.609	31	386.340	32	417.726	32
Hitzarmenaren doitzea	811.648	69	835.522	68	889.110	68
<b>BEZa, guztira</b>	<b>1.184.257</b>	<b>100</b>	<b>1.221.862</b>	<b>100</b>	<b>1.306.836</b>	<b>100</b>

Ikusten den bezala, aitortutako eskubide gehienak sortzen dira Hitzarmenetik heldu diren doikuntzen ondorioz, NZOk eskubide horien guztien heren bat zuzenean kudeatuta.

Bestalde, 2017ko ekitaldiaren itxieran konpentsatu beharreko BEZa 190,10 milioikoa da, eta itzulketa eskatzeko eskubidea edo konpentsazioa egitekoa bost urteren buruan iraungitzen da (itzulketa hurrengo ekitaldiko urtariletik aurrera eska daiteke). BEZ hori CAT-GT kontu batean jasotzen da. "BEZ orokorra" izena dauka kontuak, eta ez da kontabilitate orokorrean islatzen. Aurrekontuari egozten zaio itzultzen edo konpentsatzen denean, baldin eta konpen-





tsaziotik NZOri ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada. Oroitidazkian, ez da kontu horri buruzko informaziorik ematen.

- CAT-GT delakotik kudeatutako itzulketak —eskudirukoak nahiz konpentsaziokoak izan—, orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatu direnak, 1.198,30 eurokoak izan dira, Estatuarekiko doikuntzak kontuan hartu gabe; kopuru hori ehuneko bi txikiagoa da 2016koa baino. Itzulketen izaerari erreparatuta, haien ehuneko 81 eskudirutan egin dira.

Ondoren, 2017ko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

(euroak, milakotan)		
Zergen itzulketa	2016	2017
PFEZa	214.813	199.567
Sozietateak	81.604	92.975
BEZ zuzeneko kudeaketa	902.771	874.897

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketa bolumen handiena sortzen duena; guztizkoaren ehuneko 73 inguru dira.

- Kontu Orokorren oroitidazkiak informazioa dauka zerga-onuren exekuzioari buruz; honako hau da haren laburpena:

(euroak, milakotan)			
Zergak	Aurrekontua 2017ko zerga- etekinak	Emaitzak 2017	Ehunekoa Egitea.
PFEZa	366.760	379.582	103
Sozietateak	120.137	131.936	110
Ondarea	45.392	38.713	85
Egoiliar ez direnen errenta	4.776	4.593	96
Oinordetzak eta dohaintzak	8.512	7.722	91
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>545.577</b>	<b>562.546</b>	<b>103</b>
BEZa	785.991	842.887	107
Zerga bereziak	79.622	93.160	117
Aseguru primen gaineko zerga	8.012	7.819	98
Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak	4.967	5.388	108
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>878.592</b>	<b>949.254</b>	<b>108</b>
Onura fiskalak, guztira	1.424.169	1.511.800	106

2017ko onura fiskalak, oroitidazkian jasotako informazioaren arabera (bai aurreikuspenean, bai emaitzetan egindako zenbatespenen arabera lortzen da informazio hori), 1.511 milioi eurokoak dira, eta aurreikusitakoak baino ehuneko sei gehiago dira, Ganbera honen txostenetan azken urte hauetan aipatu bezala, adierazgarria da onura horiek 2017ko ekitaldiko zergengatik aitortutako esku-bide garbien ehuneko 41 izatea.

- Ganbera honek 2018ko irailean txosten bat egin zuen oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruz (2016. eta 2017. urteak); gainera, kudeaketa-prozedurak





aztertu ditugu, bai eta berotegi-efektuko gas fluordunen isurketen gaineko zergaren lagin bat ere; honako hauek izan ziren 2017ko aurrekontu-datuak:

(euroak, milakotan)

	Aitortutako eskubide garbiak, 2017	Diru-bilketa garbia, 2017	Diru-bilketa/aitortutako eskubide garbiak (%)	Aldea (%) 2017/2016
Berotegi-efektuko gas fluordunak	1.229	1.196	97	24

Egindako azterketan egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haiei buruzko arau erregulazaien arabera likidatu eta bildu zirela; halere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

Egiaztatu dugu ezen aitortutako eskubide garbiak erregistratzeko erabilitako irizpideak eta aurrekontuko diru-bilketa garbia, zerga-multzorako adierazi bezala, ez datozela bat kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritakoekin, jada azaldutako arrazoiengatik.

Zerga hori Nafarroak biltzen du 2015etik (lehenago, Estatuak biltzen zuen); bada, urte horretatik aurrera, Zerga Agentziak NZOri erkidego honetan jarduten zuten zergadunen errolda eskuratu zion. Hartara, 2015eko urtarriletik aurrera, Nafarroan gas horien entregak egiten dituzten operadoreek NZOri eskatzen diote baimena, eta baimen hori Zerga Agentziaren BUDANET plataformaren bidez izapidetzen da. Zergadunek geroztik egiten dituzten aitortenak ez dira beti aplikazio horretan sartzen.

Zergadunek modu telematikoan aurkezten dituzten autolikidazioak, eta formularioak, besterik adierazi ezean, erabilitako tasaren arabera aplikatzekoak diren tasak esleitzen ditu, bai eta garatutako jardueraren arabera aurreikusita dauden salbuespenak ere; jarraibide horiek badaude ere, laukitxoak editatu eta datuak alda daitezke, eta aldaketa horien baliozkotze automatikorik ez dago.

Horri dagokionez, egiaztatu dugu ezen, batzuetan, akatsak daudela tasak kalkulatzekoan eta balizko murriztapenetan, eta horiek hasiera batean ordaindutakoa baino kuota handiagoa inplikatzeko dute; NZOk zergadunari berrikusitako likidazioa igortzeko prozedura hasia du jada.





### Zerga iruzurraren kontrako borroka

NZOren oroitidazkian jasotako datuen arabera, 2008tik 2017ra zerga-iruzurraren aurkako borrokak diru-sarrera hauek sortu ditu:

(euroak, milakotan)

Ekitaldia	Zergen kudeaketa	Ikuskapena	Beste tributu-jarduketa batzuk*	Gutzizko zenbatekoa	adierazlea
2008	83.930	47.636	0	131.566	100
2009	81.404	56.630	0	138.034	105
2010	67.518	54.852	0	122.370	93
2011	52.045	38.808	0	90.853	69
2012	58.648	69.499	0	128.147	97
2013	57.358	37.826	0	95.184	72
2014	56.137	28.681	0	84.818	64
2015	50.992	45.610	8.129	104.731	80
2016	58.774	46.142	19.363	124.279	94
2017	94.408	33.586	20.984	148.978	113

\*2015ean hasi zen zergadunarekin zuzeneko lotura ez duten baina Nafarroarentzat diru-sarreraren sortzapena dakarten jarduketak mota horien kontaketa.

Zerga-iruzurraren aurkako borrokak sortutako diru-sarrerak nabarmen aldatu dira, eta 2014an iritsi dira balio txikienera; halere, data horretatik aurrera handitu egin dira, eta 2017an 148,98 milioikoak dira.

Hurrengo taulan, 2016ko eta 2017ko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduketak erakusten ditugu xehetasun gehiagorekin, NZOren oroitidazkian jasotako informazioaren arabera:

(euroak, milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2016		2017	
Ikuskapena	Jarduketan kop.	Zenbatekoa	Jarduketan kop.	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	573	19.869	527	16.116
Zehapen-espedienteak	367	10.571	317	6.308
Erantzukizun zibila, delituengatik	3	7.982	4	4.921
Ikuskatzaitzak induzitutako erregularizazioak	9	434	10	832
Kreditu fiskalak deuseztatzea	75	7.286	86	5.409
<b>Ikuskapena, guztira</b>	<b>1.027</b>	<b>46.142</b>	<b>944</b>	<b>33.586</b>
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	3.520	12.936	4.418	18.452
PFEZa	4.090	4.960	4.657	5.572
Sozietateak	279	2.185	205	1.324
Gainerako zergak	5.674	5.891	4.500	23.240
Zehapenak	13.873	5.683	15.963	7.424
Epez kanpoko aitortpenen errekarquak	4.952	2.459	4.613	1.843
Errekerimenduak	4.584	5.409	3.904	5.693
Kudeaketaren diru-sarrera induzituak	13.686	19.251	5.791	30.860
<b>Tributu-kudeaketa, guztira</b>	<b>50.658</b>	<b>58.774</b>	<b>44.051</b>	<b>94.408</b>

2017an, ikuskatzearen arloan, bai jarduketak, bai sortutako diru-sarrerak 2016koak baino txikiagoak izan dira —ehuneko zortzi eta ehuneko 27 txikia-







goak, hurrenez hurren—. Tributuen kudeaketari dagokionez, 2016an baino 6.607 likidazio gutxiago aurkeztu dira; halere, sortutako diru-sarrerak ehuneko 61 (35,63 milioi) handiagoak izan dira aurreko urtekoan baino.

Diru-sarreraren erakutsitako sortzapenak ez dakar berekin kopuru horiek egiazki kobratu izana; aztertutako urteetan egindako tributu-kontrolako jarduketan ondorioz premiamendu-bidean lortutako diru-bilketa lortu dugu, eta honako hau da emaitza:

Ekitaldia	Premiamendu bidezko diru-bilketa
2008	27.180
2009	28.424
2010	31.349
2011	36.650
2012	38.501
2013	41.129
2014	44.164
2015	41.729
2016	39.145
2017	53.503
<b>Guztira</b>	<b>381.773</b>

Aurreko taula aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2008-2017 aldian premiamendu-bidez lortutako diru-bilketa 381,77 milioi eurokoa da. Horixe da egindako tributu-kontrolako jarduketan ondorioz gutxienez bildu den diru-kopurua; jarduketa horietatik heldu den guztizko zenbatekoa lortzeko, aipatutako zenbatekoari bide arruntez bildutako zenbatekoak gehitu behar zaizkio. Hala eta guztiz ere, kopuru hori ezin da identifikatu, zeren eta aplikazio informatikoen ez baitute horretarako biderik ematen.

- Jada berretsi dugun bezala, aplikazio informatikoen artean dauden arazoaren ondorioz, ezin dugu identifikatu aurreko taulan adierazitako kobrantzen jarduketak zein urteri dagozkion, eta ezin dugu jakin, ezta ere, urte bakoitzeko jarduketetatik sortutako diru-sarreretatik zenbat dagoen kobratzeke.



**Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk**

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 118,72 milioi eurokoak izan dira 2017. urtean, eta diru-bilketaren portzentajea ehuneko 74 izan zen. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko hiru egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(euroak, milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubide garbiak, 2017	Diru-bilketa garbia	Ehunekoa Diru-bilketa	Aldea (%) Aitortutako eskubide garbiak 2017/2016
Tasak	12.797	12.485	98	4
Salneurri publikoak.	51.223	39.562	77	-3
Ondasunak saltzea	1.826	1.650	90	-13
Eragiketen itzulketak	10.712	8.471	79	19
Bestelako diru-sarrerak	47.443	18.410	39	11
<b>Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak</b>	<b>124.001</b>	<b>80.57880.578</b>	<b>65</b>	<b>4</b>

Tasen bidezko diru-sarrerak 12,80 milioi eurokoak izan ziren; horietatik, 8,85 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie. 2017ko ekitaldiaren amaieran, ehuneko 98 zegoen bilduta.

2017an sortutako prezio publikoen bidez izandako diru-sarrerak 51,22 milioi eurokoak izan ziren; horien artean, nabarmentzekoak dira gizarte zerbitzuen prestazioaren bidezko diru-sarrerak, 38,69 milioi eurokoak.

Honako hauek dira "bestelako diru-sarrerak" izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 23,05 milioi; gainkarguak, 10,66 milioi, eta berandutza-interesak, azkenik, 5,85 milioi.

Gure gomendioak:

- *CAT-GT aplikazioa halako moduz aldatzea, non egindako tributu-kontrolako jarduketeki esker lortutako diru-bilketari buruzko informazioa emanen baitu.*

- *Hornikuntza ba jartzea ekitaldiaren amaieran aitortu ez diren zergen itzulketak direla eta.*

- *Gas fluordunen zergaren tasekin eta murriztapenekin egindako jarduketaren eta kudeaketaren kodeei buruzko autolikidazioetan sartutako datuen koherentzia automatikoki baliozkotzeko prozesua diseinatzea.*

- *BUDANETen bidez, gas fluordunen gaineko zergari buruzko aitopeneekin lotutako informazioaren Estatuko Tributu Agentziarekiko trukea osatzea.*

- *Kontu Orokorren oroitidazkian azterketa exhaustiboago bat jasotzea onura fiskalak direla-eta ezarritako helburuetarako ekarpenari buruz.*





## V.10. Bestelako diru-sarrerak

### *Inbertsio errealak besterentzea*

Inbertsio errealen besterentzearengatik aitortutako eskubideak 282.792 eurokoak izan ziren, eta guztiak lursailen salmentei dagozkie.

NFKAren jabetzako industrialde bateko zamak altxatzeko prozesuan zegoen lurzati baten zuzeneko besterentzea aztertu dugu —2014an egin zen besterentze hori—. Lortutako prezioa 406.250 eurokoa (BEZik gabe) izan zen, eta zenbaiteko hori zortzi urtekotan ordaindu behar zen; lehenengo urtekoak gabealdi-koak izan ziren.

Gainera, aurrez desjabetua zen lursail bat itzultzeak ekarri dituen diru-sarrerak aztertu ditugu.

Egiaztatu da besterentze-espeditenteak izapidetzerakoan, oro har, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritako baldintzak bete direla, eta zegokien prezioa kobratu dela; hala eta guztiz ere, egiaztatu dugu lursailaren itzulketaren kasuan bere garaian lursail horri ez zitzaiola alta eman inbentarioan, eta, bista denez, baja ere ez zitzaiola eman ondasuna jabeari itzuli zitzaion unean.

*Gomendatzen dugu ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea.*

### *Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak*

Transferentzia arruntan eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 178,37 eta 10,35 milioi ingurukoak izan ziren, hurrenez hurren, ondoren azal-tzen dugun bezala:

	(euroak, milakotan)			
	Aitortutako eskubide garbiak		2017/2016	Diru-bilketa
	2016	2017	aldea (%)	garbia, 2017
Estatuko Administrazio Orokorraren transf.arruntak	32.792	168.667	414	143.769
Fundazioen transferentzia arruntak	1.147	3	-100	3
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen transferentzia arruntak	2.472	152	-94	152
Toki entitateen transferentzia arruntak	365	365	0	365
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	4.532	94	-98	94
Familien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	10	290	2800	290
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	6.346	8.797	39	8.632
<b>Transferentzia arruntak guztira</b>	<b>47.664</b>	<b>178.368</b>	<b>274</b>	<b>153.305</b>
Estatuko Administrazio Orokorraren kapital-transferentziak	387	530	37	530
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen kapital-transferentziak	14.555	2	-100	0
Toki entitateen kapital-transferentziak	24	774	3125	754
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	6.958	9.045	30	7.436
<b>Kapital-transferentziak guztira</b>	<b>21.925</b>	<b>10.351</b>	<b>-53</b>	<b>8.719</b>





Transferentzia arruntek ehuneko 274 egin zuten gora eta kapital-transferentziek, berriz, ehuneko 53 behera, 2016koekin alderatuta. Nabarmenezkoa da Estatuko transferentzia arruntek gora egin dutela, Hitzarmen Ekonomikoaren ekarpenaren V.7.2 epigrafean deskribatutako gaurkotzearen ondorioz.

Toki entitateen kapitaleko transferentziei dagozkien diru-sarrerren exekuzioa berrikusi dugu; honako kontzeptu hauek osatuta dago:

	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia
Herri-lurretako ureztaketarako azpiegituretan egindako inbertsioak	753.809	753.809
Iruñerriko Mankomunitatea-Txartel bakarrari buruzko hitzarmena	20.300	0
<b>Toki entitateen kapitaleko transferentziak, guztira</b>	<b>774.109</b>	<b>753.809</b>

Egindako berrikuspenaren konklusioa da ezen espedienteak izapidetzerakoan aplikatzekoa den araudiari jarraitu zaiola, eta zenbatekoak ezarritako epeetan jaso eta egoki kontabilizatu direla.

Txartel bakarraren ezarpenari dagokionez, aipatu beharra daukagu ezen haren diseinua jada eginik dagoela, baina oraindik ere ezartzeke dagoela ordainketa bateraturako bitarteko horren egungo eta etorkizuneko beharriaz euskarria emanen dion plataforma teknologikoa; hori dela eta, ezin izan da erabiltzen hasi.

## V.11. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak

### Zordunak

2017ko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 298,42 milioi eurokoa zen, eta honako hauei zegokien:

Zordunak	(euroak, milakotan)		
	2016/12/31	2017ko abenduaren 31n	2017/2016 aldea (%)
Aurrekontuko zordunak	818.679	804.755	-2
Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	144	108	-25
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	396	366	-8
Bestelako zordunak	3.787	5.528	46
Kaudimen gabeziatarako probisioa	(485.473)	(512.337)	6
<b>Zordunak, guztira</b>	<b>337.533</b>	<b>298.420</b>	<b>-12</b>

Aurrekontuko zordunak dira osagai garrantzitsuenak, eta, funtsean, kudeaketa arrunteko egoeran dauden tributu-zordunak dira (kudeaketa arrunta, premiamendu-bidea, tributu-zorraren geroratzea).

2017ko abenduaren 31n, saldoa 804,76 milioi eurokoa zen, eta haren ehuneko 64 kaudimengabeziei zegokien (512,34 milioi euro). Hauxe da banaketa:





(euroak, milakotan)

Aurrekontuko zordunak	2016/12/31	2017/12/31	Aldea (%) 2017/2016
Departamentuetako zordunak	55.692	37.011	-34
Zordunak: ohiko kudeaketa	125.454	141.045	12
Zorra dela-eta luzapena eman zaien zordunak	146.403	91.307	-38
Premiamendu bideko zordunak	487.826	499.526	2
Egoera berezietako zordunak	24.041	39.718	65
<b>Zordunak</b>	<b>839.416</b>	<b>808.607</b>	<b>-4</b>
Sortu ez diren korrituak eta gainkarguak	(17.180)	(2.237)	-87
Kobrantsak eta aplikatzeko dauden sortak	(3.557)	(1.615)	-55
<b>Aurrekontuko zordunak, guztira</b>	<b>818.679</b>	<b>804.755</b>	<b>-2</b>

Aurrekontuko zordunen saldo orokorrak ehuneko bi egin du behera (13,92 milioi); nabarmentzekoa da bai gerorapenak dauzkaten zordunen kopurua bai departamentuen kopurua gutxitu egin direla; jaitsiera hori 73,78 milioikoa izan da.

Tributuen aurrekontu-likidazioaren, diru-bilketaren eta itzulketaren eta zuzenbide publikoko zenbait diru-sarreraren kudeaketa —esate baterako, interesak eta errekaruak— CAT-GT aplikazio informatikoaren bitartez egiten da; hartatik, informazioa SAPGE21 aplikaziora aldatzen da.

Ganbera honek aurreko txostenetan azpimarratu duen bezala, aurrekontu-likidazioak eta egoerari buruzko balantzeak ez dute zuzen jasotzen CAT-GTren informazio guztia. Hartara, ez da bereizten ekitaldi arruntetako zordunen eta itxitako ekitaldietako zordunen artean, eta ez dira deuseztatzen, ezta ere, aitor-tutako eskubideak, zorraren geroratzea ematen zaien zordunei dagozkienak, kontabilitate-plan orokor indardunean ezarritako irizpideez bestera.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen, kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ez eta mugaeguneratu gabeko interes eta gainkarguak eta aplikatzeko dauden kobrantsak ere; izan ere, horiek zordunen saldotik kentzen dira, eta balantzearen pasiboan erregistratu beharko liriateke, aurreratutako diru-sarrera eta zordun gisa, hurrenez hurren.

“Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CAT-GTren formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CAT-GTren eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua), zeinak 5,01 milioi euroko saldoa baitu. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duen bezala, zenbateko horrek ez du behar bezalako euskarririk, eta ez dakigu zergatik igo den 1,76 milioi aurreko urtekoarekiko. Kontu horren saldoa guztiz hornituta dago.

#### *Epe laburreko hartzekodunak*

Epe laburreko hartzekodunen saldoa, obligazioen jaulkipenari eta beste balio negoziagarri batzuei dagozkienak jaso gabe, zeren eta jadanik aztertuta baitaude, 504,64 milioi eurokoak dira 2017ko abenduaren 31n, eta honako hauei dagozkie:





(euroak, milakotan)

Epe laburreko hartzekodunak	2016ko abendu- dua 31	2017ko abendu- duaren 31n	2017/2016 aldea (%)
Aurrekontuko hartzekodunak	459.311	441.052	-4
Beste entitate batzuen konturako baliabideak administrazioagatiko hartzekodunak	5.664	6.838	21
Administrazio publikoak	3.212	3.459	8
Beste hartzekodunak	58.333	50.418	-14
Epe laburreko fidantzak eta gordailuak	21.766	2.871	-87
<b>Epe laburreko hartzekodunak, guztira</b>	<b>548.286</b>	<b>504.638</b>	<b>-8</b>

Hartzekodunen kopuru hori ehuneko zortzi jaitsi da; osagai garrantzitsuena aurrekontuko hartzekodunak dira, zeinak guztizkoaren ehunek 87 baitira eta ehuneko lau jaitsi baitira (18,26 milioi) 2016rekin alderatuta, funtsean txosten honen III.1 epigrafean aipatutako kontabilitate-irizpidearen aldaketaren ondorioz. Aldaketa horrek bere kontrapartida dauka 413. kontuko saldoaren igoeran; izan ere, kontu horrek aurrekontuari aplikatzeko dauden hartzekodunak jasotzen ditu. Igoera hori 13,34 milioi eurokoa (ehuneko 134) da 2016. urtearekin alderatuta.

Batetik, diruzaintza-gerakinari eta SAParen exekuzioari buruz oroitidazkian jasotako informazioa eta, bestetik, aurtengo ekitaldian eta itxitako ekitaldietan ordaintzeke dauden zenbatekoak alderatuz gero, ikusten dugu adierazgarriak ez diren alde batzuk gertatzen direla, eta horiek honako arazo informatiko honetatik datozela: batzuetan, SAPGE21eko ordainketen igorpena, hartzekodunak ordain dituzan, pertsona bat baino gehiago biltzen dituen erabiltzaile orokor baten bitartez egiten da (“sedate” deitutakoa); ordainketa dagokion hartzekodunari iristen ez bazaio, banku-kontuko edozein arazo tarteko, erabiltzaile hori sistemara itzultzen da, baina informazioa ez da zuzen iraultzen.

Bestalde, balantzearen pasiboan, eta zergen itzulketa dela-eta dauden aurrekontu-hartzekodunen eta beste hartzekodunen barruan, tributu-zordunen saldo hartzekodunak erregistratzen dira CATen informazioaren doikuntza baten bitartez. 2017an, doikuntza orokorra 305,76 milioi eurokoa izan zen.

Kontu Orokorren egoerari buruzko balantzea lortzen da kontabilitateko aplikazio informatikoko egoerari buruzko balantzean oinarrituta, kontabilitatez besteko doikuntza bat eginez CAT-GTko zordunei eta hartzekodunei buruzko zerga-informazioarekin.

Aurreikusita dago 2019an CAT-GTren eta SAPGE21ren arteko lotura berria aplikatzea, bi aplikazioen arteko informazio-trukea hobetzeko.

Gure gomendioak:

- *Zerga-zordunen saldo justifikatu gabeak aztertzea eta, kasua bada, haiek erregularizatzea.*





- “Sedate” gisako erabiltzaile generikoen ordainketarako prozedura aldatzea, kontabilitate-egoeretan emandako informazioa ukitzen duten akatsak ez gertatzeko.

## V.12. Diruzaintza

2017ko abenduaren 31ko diruzaintza 631,14 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota hauetan zegoen:

Kontzeptua	(euroak, milakotan)		
	Saldoa 2016-12-31n	Saldoa 2017-12-31n	2017/2016 aldea (%)
Inbertsio-kontu finantzarioak (funtsak)	130.076	616.461	374
Diru-sarreraren kontu bereziak	9.877	13.331	35
Kontu korrante operatiboak	1.010	1.344	35
<b>Guztira</b>	<b>140.963</b>	<b>631.136</b>	<b>348</b>

Diruzaintzako saldoek ehuneko 348 egin zuten gora; kopuru hori ia 490 euro gehiago da, inbertsioko kontu finantzarioek ehuneko 374 egin dutelako gora, diru-bilketak gora egin duelako eta Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena zehaztearen ondorioz.

Aurreko funtsek 198.111 euroko interesak sortu dituzte; 2016an sortutakoak, berriz, 15.823 milioikoak izan ziren.

2017an guztira 400 milioi kontzentratu ziren epe laburreko diruzaintza-beharrei aurre egiteko kredituetan; urtarrilean erabilitako gehieneko zenbatekoa 350 milioikoa izan da guztira. Eragiketa horien kostu finantzarioa 27.165 eurokoa izan zen; zenbateko hori nabarmenki txikia da, funtsean Euriborrak erdietsi zituen balioengatik, zeinak negatiboak izan baitziren.

Banku-zirkularizazioaren bidez lortutako informazioan, honako gorabehera hauek aurkitu ditugu:

- Diru-bilketarako kontu murriztuen saldoa 11,15 milioi eurokoa da 2017ko abenduaren 31n. Kontu horien funtzionamendua herritarrek NFKAren aldeko diru-sarrerak egiten dituzten “hamabostaldi” deitutakoei dagozkie, eta hamabostean behin banku-entitateak zenbateko horiek transferitzen dizkio NFKAri. Aurreko urteetan behar adina informazio ez zegoen zenbateko horiek diruzaintzan sartzeko, baina 2017rako jada informazio hori bazegoen. Halere, autolikidazioen zenbateko hori balantzearen diruzaintzan islatzeko behar zen kontabilitateko idazpena ez da egin.

- Kutxa finkoko aurrerakinen eta justifikatu beharreko ordainketen kontuetan 56.148 euroko aldea dago balantzean ageri den informazioaren eta zirkularizazioaren emaitza denaren artean. Alde hori zor zaio NFKAk jarraitutako kontabilizatzeari irizpideari, zeina kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritakoaz beste bat baita.







Gure gomendioak:

- *Diruzaintzan autolikidazioei dagokien zenbatekoa sartzea abenduko azken hamabostaldiari buruz banku-entitateek emandako informazioaren arabera.*
- *Kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketak kontabilizatzea kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritakoaren arabera.*

### V.13. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk

Egindako lana azaldu baino lehen, nabarmendu behar dugu Ganbera honek 2018ko irailean txosten bat argitaratu zuela Foru Sektore Publikoan abalak eta maileguak ematerakoan 10/2014 Foru Legea aplikatzeari buruz (2014-2017 aldia).

Txosten horren konklusioa zen, funtsean, abalek eta maileguek, bai NFKA-renek, bai eta haien sozietate publikoenek ere, ez zituztela gainditzen ezarritako gehienekoak; halere, bi enpresaren kasuan, eman zitzaizkien maileguak eman ahal izateko, baimena eskatu beharko zitzaion Parlamentuari. Horri buruz, esan beharra daukagu ezen 10/2018 Foru Legearen eta 11/2018 Foru Legearen bitartez SODENAK operazio horiek berresteko eskatu ziola Parlamentuari.

#### Zorpetzea

Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 3.258,10 milioi eurokoa zen 2017ko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitate hauei zegokien:

	(euroak, milakotan)		
Nafarroako Gobernuaren zorra	2016ko abendua 31	2017ko abenduaren 31n	2017/2016 aldea (%)
Nafarroako Zor Publikoa	1.440.848	1.359.560	-6
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	1.248.000	1.586.000	27
Epe luzeko maileguak sektore publikorako	21.444	22.699	6
<b>Epe luzeko zorpetzea (A)</b>	<b>2.710.292</b>	<b>2.968.259</b>	<b>10</b>
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	292.928	240.104	-18
Zor publikoaren epe laburreko interesak	39.808	31.869	-20
Maileguen epe laburreko interesak	14.531	17.866	23
<b>Epe laburreko zorpetzea (B)</b>	<b>347.267</b>	<b>289.839</b>	<b>-17</b>
<b>Zorpetzea, guztira (A+B)</b>	<b>3.057.559</b>	<b>3.258.098</b>	<b>7</b>

Hona hemen azpimarratuko ditugunak, azterketa egin eta gero:

- Guztizko zorpetzeak ehuneko zazpi egin du gora (200,54 milioi euro). 2017an, zor publikoak ehuneko 50 egiten du guztizkoan; 2016an, berriz, ehuneko 58 zen, eta garrantzi erlatibo handiagoa ematen zien maileguei.

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legean, zorpetze-eragiketak formalizatzeko aukera ezarri zen, honako muga honekin: 2017ko abenduaren 31ko saldo biziak ez gainditzea 97,60 milioi euro baino gehiagoan 2016ko urtarrilaren 1eko saldo bizia. Halere,







17.2 artikulua ezarri zuen kopuru hori gaindi zitekeela Nafarroako Gobernuak eta Ogasuneko Ministerioak hitzar litzaketan bestelako zorpetze-eragiketak egiteko, Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren baitan eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauak ezartzen dituzten mugak gainditu gabe.

Nafarroako Gobernuak egindako zorpetze-eragiketak, kopuru hori gainditzea inplikatu zutenak, Estatuko Ministroen Kontseiluak baimendu zituen; horrenbestez, aplikatzekoa den araua bete egin zen.

• 2017an itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren arabera batez besteko interesa ondoren erakusten duguna da:

(euroak, milakotan)

Zorpetze modalitatea	2017ko zorpetze itundua	2017ko batez besteko interes-tasa	Zorpetzea, guztira 2017ko abenduaren 31n	Batez besteko interes-tasa
Nafarroako Zor Publikoa	157.736	1,65	1.599.665	3,56
Finantza entitateen maileguak	338.000	1,33	1.286.000	1,82
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	-	-	300.000	1,42
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.590	0
Beste sektore publiko batekiko maileguak	2.266	0	13.110	0
<b>Zorra guztira</b>	<b>498.002</b>	<b>1,44</b>	<b>3.208.364</b>	<b>2,63</b>

Ikusten den bezala, maileguen bidezko zorraren batez besteko interes-tasa nabarmen txikiagoa da zor publikoarena baino.

2017an, zorraren batez besteko interes-tasa orokorrak behera egin du 2016koarekin alderatuta: ehuneko 2,92tik ehuneko 2,63ra.

• Nafarroako Gobernuaren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bila-kaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapituluak) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Finantza-zama (milioiak)	200,30	300,54	401,48	415,74	519,98	384,80
Aurkibidea	100	150	200	208	260	192
Diru-sarrera arrunten gaineko ehunekoa	6	9	12	13	15	10

Finantza-zamak ehuneko 192 egin du gora aztertutako aldian, eta 2017an jaitiera bat izan du 2016an izan zuen goraunearekin alderatuta. Diru-sarrera arrunten gainean duen garrantzi erlatiboak ere joera horri jarraitu dio. Adierazle horiek, aurrez jada adierazi den bezala, ondoren erakusten dugun zorraren amortizaziorako egutegiak nabarmen baldintzatuta daude.





- Hurrengo taulan erakusten dira Gobernuaren zorraren guztizkoa datozen ekitaldian amortizatzen dauden aurreikuspenak:

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira.	Ehunekoa	(euroak, milakotan)
			Ehuneko metatua
2018	240.104.119	7,5	7,5
2019	256.012.740	8,0	15,5
2020	218.825.101	6,8	22,3
2021	202.998.941	6,3	28,6
2022	134.156.368	4,2	32,8
2023	269.406.813	8,4	41,2
2024	484.517.871	15,1	56,3
2025	125.607.480	3,9	60,2
2026	269.735.878	8,4	68,6
2027	300.000.000	9,4	78,0
2028	318.561.313	9,9	87,9
2029	200.000.000	6,2	94,1
2030	185.000.000	5,8	99,9
Sailkiazina	3.437.377	0,1	100,0
<b>Guztira</b>	<b>3.208.364</b>		

Ikusten den bezala, zorraren ehuneko 41 2023a baino lehen amortizatu beharrekoa da. 2024ko ekitaldia nabarmendu behar da, ehuneko15 amortizatzea egokituko baita.

Zor "sailkiazintzat" gobernu zentralak lanbide heziketako ziklo berrietarako eta DBHko ibilbideetarako emandako aurrerakinei dagokie, eta haietan ez da amortizazio-eperik aipatzen.

• 2017ko apirilean, Standard&Poor´s rating agentziak "A, perspektiba egonkorrekin" kalifikazioa eman zion Nafarroaren epe luzeko zorrari. Kaudimenerari buruzko emaitza hori bi maila gorago dago Espainiako Erresumarena (BBB+) baino. 2018ko martxoan, aipatutako agentziak Nafarroako zorrari "A, perspektiba positiboarekin" emaitza emana zion, baimendutako maila gorena; horrenbestez, Foru Komunitateak bere posizioa hobetu du.

#### *Emandako abal eta konpromiso-gutunak*

- Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 122,10 eurokoa zen abenduaren 31n, eta honako hauei zegokien:

Emandako abalak	(euroak, milakotan)		
	Saldoa 2016-12-31n	Saldoa 2017-12-31n	Aldea (%) 2017/2016
I+G	164	117	-28
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	4.958	3.538	-29
"Nafarroa Abala" programa	2.940	2.653	-10
C.A. Osasuna	11.212	10.787	-4
NICDO-Los Arcosko zirkuitua	20.192	17.500	-13
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	102.957	90.067	-13
Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko (CAT) konpromiso-gutunak	21.100	0	-100
<b>Guztira</b>	<b>163.523</b>	<b>124.662</b>	<b>-24</b>





Guztizko saldo biziak eguneko 24 egin du behera (38,86 milioi euro), eta nabarmentzekoak dira zailtasunak dituzten enpresen jaitsiera (1,42 milioi) edo CATekiko konpromiso-gutunen bidezko operazioen deuseztatzea.

2017an zehar, ez da inolako operazio berririk abalatu, eta ez da konpromisogutun gehigarririk formalizatu ere; halere, enpresa baten bi maileguren abalen berritzea gertatu da. Bi operazio horietan, maileguren iraupena eta interes-tasa 15 urtera luzatu dira; gainera, berritze batean amortizazio-egutegia aldatu da.

2017an, Nafarroako Gobernuak, fidantzapeko betebeharren ez-betetzeen ondorioz, 0,48 milioi euroko gastua aitortu du; zenbateko hori sortu da abalatatuko enpresa baten ez-betetzeak direla eta.

SODENArentzako abala eratu zen sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio-proiektuak finantzatzera bideratua. Printzipalaren gaineko abal bat da (100 milioi euro), bai eta abala exekutatzeko unean SODENA Europako Inbertsio Bankuari edozein finantzaketa-kontraturen kontzeptuan (interesak, komisioak, zamak eta abar) zor diezaiokeen edozein zenbatekoren gainekoa ere. Gainerako abaletan, NFKAk soilik maileguaren printzipala dela-eta erantzuten du.

Ez dago jarririk abalatatuko betebeharren ez-betetzetik heldutako arrisku guztietarako hornikuntzarik.

*Aktiboetako diru-sarreraren eta finantza-diru-sarreraren lagin baten berrikuspena*

Honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa, 2017
IX. kapituluko —Finantza-pasiboak— diru-sarrerak: CETENA fundazioaren maileguaren itzulketa	33.340
VIII. kapituluko —Finantza-aktiboak— diru-sarrera Karbono dioxidoaren jaulkipen eskubideen besterentzea	6.753

Eginiko lanean oinarriturik, honako ondorio hauek atera ditugu:

- CETENA fundazioaren mailegua Estatuak emandako bat da, zeinean NFKA bitartekari hutsa baita; horrenbestez, ez litzateke aurrekontuan erregistratu behar. Mailegu hori 2009an eman zen, eta 2012an hasi zen amortizatzen; 2012-2016 aldiko aurrekontuetan erregistratutako urteko zenbatekoa, oker bat tarteko, 2017ko bera da: 33.340 euro.

- Aztertutako operazioari dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

2006ko abenduan, baimena eman zen “Enpresa espainiarrarentzako karbono funtsa” izenekoan partaidetzak erosteko, bost milioi euroko gehieneko zenbateko batekin, haiek Nafarroako industriaren esku jartzeko, beren ingurumen-betebeharrak betetzen laguntze aldera. Funts hori eratu zenean, zazpi urteko ha-





sierako iraupena eman zitzaion; 2006-2013 aldirako, hain zuzen. Funts horren gastuak ordainketak edo kapital-dei eta komisioak izan ziren.

2011n, emaitzak, funtsak jaulkipen-eskubideen merkatuan izandako bilakera, Kyotoren ondorengo itunik ez egotea eta Europar Batasunean horri buruz dagoen lege-arloko zalantza ikusita, NFKAk erabaki zuen 2013an funtsetik ateratzea; hain zuzen ere, haren indarraldia amaitzen zenean.

Funtsetik irmoki atera baino lehen, 2013an, aldaketa bat izan zen jaulkipen-eskubideen merkatuei buruzko Europako araudian, zeinak eragina baitzuen NFKAk hartutako eskubideetan; izan ere, aldaketa horrek kotizazio-balioaren narriatze bat ekarri zuen; hori dela eta, 2012ko eta 2013ko amaieran horri zegokion hornidura jarri zen. 2014an, komenigarritzat jo zen merkatuan jarraitzea, lehendik zeuden eskubideen ordeztuak beste batzuk hartuz, salerosketa-operazio baten bitartez; salerosketa horretan aipatutako hornidura aplikatu zen. Trukatutako eskubideen balioa 6.151 eurokoa izan zen.

2017an erregistratutako diru-sarrera 2014an eskuratu ziren eskubideei dagokie; honako hauek izan ziren haien salmentaren arrazoiak: eskubideen kotizazioak gorabehera nabarmenak izaten zituen; haien mantentze-kostuak handiak ziren; horrelako eskubideetarako interes publikoak behera egina zuen nabarmen, eta, azkenik, kudeaketa administratiboa konplexuegia zen.

Laburbilduz, honako hauek izan dira funts honi lotutako gastuak eta diru-sarrerak:

Kontzeptua	Gastuak	Diru-sarrerak	Kontabilitate-egitateen urteak
Kapital-deiak	2.899.441	0	2007-2013
Kudeaketa-komisioak	776.932	0	2007-2013
Sortutako interesak	0	459.826	2007-2013
Itzulketak	0	36.525	2012 eta 2015
2013a baino lehen eskuratutako eskubideen salmenta	0	6.153	2014
2014ko eskubide-erosketa (lehendik eduki izandakoekiko trukea)	6.151	0	2014
2014an eskuratutako eskubideen salmenta	0	6.752	2017
2014an eskuratutako eskubideen komisioak	1.286	0	2014-2018
<b>Guztira</b>	<b>3.683.810</b>	<b>509.256</b>	

Operazioaren amaierako emaitza izan da NFKAk 3,17 milioi euroko galera izan duela aldi osoa hartuta.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontuan jasotzea soilik NFKAren jardueran egiazko garrantzia izan duten kontabilitate-operazioak, eta ez NFKA bitartekari hutsa izan den operazioak.*

- *Abalatutako betebeharren ez-betetzetik heldutako arriskueterako hornikuntza jartzea.*





## V.14. Sozietate eta Fundazio Publikoak

*Sozietate publikoak*

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, Kontu Orokorraren oroitidazkian bildutako informazioaren arabera:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Sozietatea	Ekitaldiko emaitza	Diru-laguntzak Foru Administrazioa	Ekarpenak NEKP	Epe luzeko zorpetzea <sup>(2)</sup>	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kopurua
CEIN	65	784	0	13	641	31
CNAI	-98	0	80	0	26	26
Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria	144	0	19.400	76	51.410	3
GAN	-276	296	0	14	2.974	102
INTIA	-793	3.763	375	14	554	194
NASERTIC	427	0	0	0	7.975	99
Nasuvinsa	837	4.435	5.000	28.983	210.637	88
Natural Climate Systems SA	-33	0	20 <sup>(3)</sup>	559	48	0
NICDO	-3.708	192	3.229	15.222	62.349	37
NILSA	0	0	0	22	902	38
Potasas de Subiza SAU	3.088	0	0	0	2.096	0
Salinas de Navarra SA	2.021	0	0	0	23.021	57
Sodena	-5.068	675	0	75.006	48.759	21
Start Up Capital Navarra SA	-407	0	0	0	1.510	0
Tracasa	4	8	0	565	9.245	80
Tracasa Instrumental	415	0	0	2	26.694	319
NEKP	4.576	0	0	0	463.320	11
<b>Guztira<sup>(1)</sup></b>	<b>1.194</b>	<b>10.153</b>	<b>28.104</b>	<b>120.476</b>	<b>902.161</b>	<b>1.1061106</b>

(1) Bateratu gabeko datuak.

(2) Zorpetzean, ez dira sartzen taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

(3) Ekarpen hori NASUVINSAk egin zuen

NEKParen enpresa taldearen osaera, honako hau zen kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

NEKParen Taldearen osaera	2016	2017
Menpekoak-Sozietate publikoak	17	17
Elkartuak eta talde anitzekoak	11	15
Parte hartutako beste batzuk	51	54

Ganbera honen aurreko txostenean adierazi izan dugun bezala, uste dugu Parque de la Naturaleza de Navarra SA enpresak Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legean publikoa izateko jasotako baldintzak betetzen dituela, zeren eta NEKPren partaidetza, SODENAREN bitartezkoa, une hauetan kapitalaren ehuneko 45ekoa bada ere, taldearen gaineko kontrol bat badago, gainerako bazkideekin izenpetutako hitzarmenen bitartez, eta, gainera, SODENA da haren administratzaile bakarra da. Aurreko inguruabarrek adierazten dute nagusitasun-eragin bat badagoela eta, gainera, NEKPren enpresa-taldeak enpresa hori menpean duela eta hartan zuzendaritza bakarra dagoela.

Iritzi hori honako egitate hauek abalatzten dute: kontabilitate-araudiaren arabera, NEKPk sozietate hori bateratzen du integrazio orokorraren metodoaren bidez, gainerako sozietate publikoekin egiten duen bezalaxe.





Honako hauek dira Nafarroako enpresen sektore publikoaren 2017ko adierazle nagusiak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

NEKP taldearen adierazle bateratuak	(euroak, milakotan)		
	2016	2017	2017/2016 aldea (%)
Ondare garbia	634.429	641.542	1
Epe luzerako zorrak	132.512	120.549	-9
Pasibo arrunta	182.975	87.615	-52
Maniobra-funtsa	290.620	300.811	4
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	84.426	79.477	-6
Negozio-zifraren zenbateko garbia	136.081	176.402	30
Negozio-zifraren ehunekoa, Nafarroako Gobernuarekin batera egindakoa	27	24	-11
Nafarroako Gobernuak jasotako kapitaleko diru-laguntzak (1)	12.523	2.383	-81
Nafarroako Gobernutik jasotako ustiaketarako diru-laguntzak	8.076	7.770	-4
Langile-gastuak	49.636	53.023	7
Ustiapeneko emaitza	3.231	10.584	228
Ekitaldiko emaitza bateratua	-4.520	-369	-92
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	-5.069	-726	-86
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak (2)	97.783	75.673	-23
NEKPko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	4,9	6,6	36
Goi zuzendarien batez besteko kopurua (2)	15	15	0

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.

(2) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2017ko pasibo korrantea ehuneko 52 gutxitu da 2016koarekin alderatuta, eta 87,62 milioi eurokoa izatera iritsi da.
- 2017ko epe luzeko zorrak ehuneko bederatzita txikiagoak dira aurreko ekitaldi-koak baino, eta 120,55 milioi euro egiten dute guztira.
- Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzek ehuneko 51 egin dute behera 2017an 2016koekin alderatuta, eta guztira 10,15 milioi eurokoak dira.
- Eskudiruak eta bestelako aktibo likidoak ehuneko sei egin dute behera 2017an aurreko ekitaldian zeudenekin alderatuta.
- Ustiatzearen emaitza, ekitaldiaren emaitza bateratua eta sozietate nagusiari esleitutakoa nabarmen hobetu dira 2017an, 2016ko adierazleekin alderatuta.

Bestetik, sozietate publikoek urteko kontuen auditoretza aurkezten dute. Auditoretza horiek aztertuta, ondoko hauek nabarmentzen ditugu:

- 17 sozietateek aldaketarik gabeko iritzia dute, eta horietako bitan azpimarra-lerrokada bat gehitu da iritzian, honako hauei buruz:

a) CNAI: arreta deitu beharra dago merkataritzaren arloko legerian aurreikusitako desegitearen inguruabarrari buruz; izan ere, sozietatearen ondare garbia kapital sozialaren erdira jaitsi da. Aipatu beharra dago bazkide bakarrak ekarpen bat egin duela 2018ko otsailean oreka berrezartzeko.





b) Natural Climate Systems, S.A.: aipatzen da sozietatea, ekitaldiaren itxieran, merkataritzaren arloko legeriak jasotako desegite-kasuetako batean dagoela; aipatzen da administratzaileek erabaki dutela sozietateko akziodun bakarraren onespeneraren pean jartzea haren desegite eta likidazio ordenatua, Nafarroako Parlamentuak aginduzkoa den baimena eman ondorengo, eta ondare-elementuak baloratuta daudela likidazioan jasoko diren zenbatekoetan.

- NASUVINSA sozietatearen oroitidazkian desjabetuei egindako ordainketei buruzko informazioa ageri da jasota: 50,5 milioi euro egiten du. Ordainketa horiek Garraioaren Hiririari buruzko epaiaren exekuzioari aurre egiteko egin dira. Gai hori aztertu zen jada Ganbera honek 2018ko ekainean egin zuen txostenean, arestian aipatutakoan.

- Azpimarratu behar dugu, gainera, 2017ko urrian, enpresa publikoek legeria betetzeari buruzko auditoretza amaitu dela, 2016ko ekitaldiari dagokionez. Auditoretza hori kanpoko enpresa pribatu batek egin du. Auditoretza horien helburuak izan ziren honako alderdi hauek egiaztatzea: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen betetzea, zorpetze-eragiketei dagokienez; obrei, hornidurari, laguntzari eta obra publikoen eta zerbitzuen emakidei aplikatzekoa zaien kontratazio-araudiaren betetzea; langileen kontratazioei eta ordainsari-sistemei buruzko araudiaren betetzea.

a) Zorpetze eragiketei dagokienez, bi gorabehera aipatzen dira: horietako bat GAN enpresaren aurrerakin batekin lotuta dago, eta konponbidea eman zaio jada; bestearen arrazoia da SODENAK abalak eta maileguak egoki ematen dituela, nahiz eta abal gehienetan Nafarroako Gobernuak ez duen baimen formalik ematen; izan ere, baimen hori geroztik eman dela ageri da jasota. Horri dagokionez, aipatu behar dugu SODENAK abala eman aurretik egin zituela baimen-eskaerak, baina NFKAren izapidetzea geroratu egin zela.

b) Kontratazio administratiboei dagokienez, hiru gorabehera mota detektatu dira:

- Kontratazio-prozedura desegokiak erabiltzea, zenbatekoa dela eta, 16 kasutan.
- Lau kasutan, espedienteetako dokumentazioa osoa ez izatea.
- Kasuko lizitazio-prozeduretan ezarritako baldintzetako batean akatsak egotea (formulak oker aplikatzea, iragarkiak epez kanpo egitea eta egiaztagirietan akatsak egotea) bederatzi kasutan.

Gainera, lau enpresari buruzko txostenetan arreta deitu da 6/2006 Foru Legea baino lehenagoko kontratuak egoteari buruz; izan ere, kontratu horiek urtero-urtero luzatzen joan dira kasuko lizitazio-prozedura egitera jo gabe.

c) Langileen kontratazioa eta ordainsari-sistemak berrikusita, ondorioztatu da ezen, oro har, araudia bete egin dela.







## Fundazio publikoak

Hurrengo taulan fundazio publikoen datu metatu batzuk erakusten ditugu:

Adierazlea	2016	2017	(euroak, milakotan)
			2017/2016 aldea (%)
Ondare garbia	1.227	1.839	50
Epe luzeko zorra	996	5.420	444
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	9.649	15.068	56
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	4.466	9.432	111
Langile-gastuak	3.972	7.130	80
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	3.692	2.776	-25
Maniobra-funtsa	1.016	5.751	466
Ekitaldiko soberakina	-398	219	-155
Goi karguen kopurua (A)	3	4	33
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	81	150	85
Langileen kopuru osoa (A+ B)	84	154	83

Bost fundazio publikoek urteko kontuen auditoretza aurkeztu dute; guztiek ere aldatu gabeko iritzia dute; Miguel Sevet fundazioak salbuespen bat dauka diru-laguntzen kontu batzuetan behar den aurkezpen eta esleipen zuzena egin izanari buruz —guztira, 0,17 milioi euroko zenbateko bat da—. Bestalde, Balarate fundazioari buruzko txostenean, azpimarra-paragrafo bat badago haren ondare garbi negatiboari buruz, zeina 0,80 milioi eurora iristen baita; horri dagokionez, entitate fundatzaileak jada berariaz adierazia du laguntza finantzarioa emanen duela konpromisoen eta ordainketa-betebeharren betetzea ahalbidetze aldera eta eragiketen jarraitutasuna segurtatze aldera.

Fundazio publikoen kontuen edukia aztertuta, egiaztatu dugu ez direla zehazten lotutako entitateekiko saldo eta transakzio guztiak.

Enpresa publikoekin gertatzen den bezala, 2017an bi fundazio horien legez-kotasuna betetzeari buruzko auditoretza amaitu zen, enpresa pribatuei egindako kontratazioen bitartez, enpresa publikoentzat deskribatuta dauden helburu berdinekin.

Oro har, jarduketak araudia betez egin dira; halere, Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioaren kasuan, urtero luzatutako bi kontratu badaude, zeinetan araudian ezarritako lau urteko gehieneko epea gainditu baita.

Gure gomendioak:

- *Beren eragiketekin jarraitzeko ahalmenari buruzko zalantza aipagarriak antzematen diren enpresa publikoen kasuan, bideragarritasuna ebaluatzea, ikuspuntu ekonomikotik zein sozialetik, eta akziodun guztien laguntza finantzarioa eskatzea.*
- *Aztertzea ea Parque de la Naturaleza de Navarra SA sozietateak behar diren baldintzak betetzen dituen enpresa publikotzat hartua izateko, Ondareari buruzko*







*Foru Legearen eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eragine-tarako.*

• *Enpresei eta fundazio publikoei buruz egindako legezketasun-auditoretzetan detektatutako gabeziei konponbidea emateko behar diren kudeaketa- eta kontrol-neurriak ezartzea.*

#### V.15. Ingurune teknologikoa

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan, baita NFKArenean ere. Haien garrantzia dela eta, 2016ko ekitaldiko txostenean hasitako prozedurarekin jarraitu da, “ingurune teknologikoa” edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemak aztertzeari eta Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak egiten duen informazioaren teknologien gaineko kontrolei dagokienez.

Azterketa hori aurrera eramateko, galdetegi orokor bat igorri genuen, haren bidez ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatu ahal izateko aurreko urtean baino xehetasun gehiagorekin.

Ganbera honek 2016ko ekainean txosten bat egin zuen NFKAk informatika-ren kudeaketarako daukan antolamendu-egiturari buruz. Hartan azaltzen zen Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak koordinatzen eta kudeatzen dituela Nafarroako Gobernuako departamentuen informazio-sistemekin eta informatikarekin lotutako zeregin guztiak. Hori dela eta, galde-teria zuzendaritza horri bidali genion, eta erantzunak aztertuta honako ondorio hauek atera ditugu:

• Informazioaren segurtasun-politikari buruzko jarraibide batzuk badaude, baina ez dago horri buruzko dokumenturik, formalki onetsi denik.

• Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arau-tzen duen 3/2010 Errege Dekretuak eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari bu-ruzko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onesten duen 1720/2007 Errege Dekretuak besteak beste honako betebeharrak zehazten zituzten: segurta-sunaren arduradunak izendatzea, aldizka auditoretzak egitea, segurtasunari buruzko agiriak egitea, aipatutako eskemari eta Elkarreragingarritasuneko Eskema Naziona-lari egokitzeko agiriak egitea, datu pertsonalen fitxategiak inskribatzea, eta abar.

Nafarroako Gobernuako departamentu batzuek araudiak eskatutakoa bete dute, baina beste batzuk, aurreko urtearekin alderatuta aurrera egin badute ere, oraindik ere prozesu horretan daude, eta horrekin aipatutako araudiak ezarri-tako epeak urratzen dituzte.

• Departamentuek ez dizkiote tokiko sarearen eta aplikazioen erabiltzaileen bajak beti azkar eta modu egokian komunikatzen Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari.





Gure gomendioak:

- *Informazioaren segurtasun politikari buruzko agiri bat formalki onestea.*
- *Aipatutako errege dekretuetako lege-betekizunak betetzea.*
- *Departamentuek Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari azkar eta modu egokian komunikatzea tokiko sareko eta aplikazioetako erabil-tzaileen bajak.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga





## 1. gehigarria. Euskara sustatzeko gastu publikoa

2018ko apirilean, Ganberak eskaera bat jaso zuen, fiskaliza zezan euskara sustatzeko aldera hainbat erakunde pribaturentzat ekitaldiak finantzatzeko egindako gastu publikoa, eta berariaz 13 erakunde aipatzen ziren eskaeran (aipatutako en arteko batek ez zuen IFK bakar bat; hori dela eta, erakunde hori osatzen duten guztiak hartu dira kontuan).

2013-2017 aldian 13 entitate horiek NFKAri sortutako aurrekontu-gastua kalkulatu dugu: 1,87 milioi eurokoa da. Hona hemen xehetasunak:

	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea (%) 2017/2013	2017/2016 aldea (%)
II. kapitulua: ondasun arruntak eta zerbitzuak	10.558	14.140	66.214	74.049	199.241	1.787	169
IV. kapitulua: transferentzia arruntak	0	35.000	140.290	438.361	836.058	-	91
VI. kapitulua: inbertsioak	6.916	4.500	14.445	6.522	23.162	235	255
<b>Gastua, guztira</b>	<b>17.474</b>	<b>53.640</b>	<b>220.949</b>	<b>518.932</b>	<b>1.058.461</b>	<b>5.957</b>	<b>104</b>

2017an entitate horiek jasotako diru-kopurua 1,06 milioiokoa da; zenbateko hori aztertzen ari garen aldi osoko kopuruaren ehuneko 57 da, eta nabarmen handitu da aurreko urteekin alderatuta.

Diru-kopururik handiena IV. kapitulari —transferentzia arruntak— dagokiona da, eta ehuneko 78 egiten du guztizko gastuan; ondotik, II. kapitulua —ondasun arruntak eta zerbitzuak— dator, ehuneko 19rekin, eta, hondarrean, VI. kapitulua —inbertsioak—, ehuneko hiru baizik egiten ez duena.

Aztertutako aldian eskaeran aipatzen diren hartzekodunetako bakoitzak honako kopuru hau jaso du guztira:

Hartzekoduna, eskaria	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira 2013-2017
AEK	58	58	117.320	360.550	612.499	1.090.485
Labrit Patrimonio	15.916	18.582	53.705	37.441	136.502	262.147*
Arturo Campion kultur elkarte	0	0	13.845	41.117	80.366	135.328
Sahats fundazioa	0	0	11.489	31.945	55.829	99.263
Topagunea Euskara Elkarleen Federazioa	0	0	0	11.890	63.697	75.587
Katakarak kooperatiba	0	35.000	12.000	1.107	21.642	69.749
Bortzirietako Euskaltegia IKA	0	0	3.360	12.292	22.021	37.673
Nafarroako Ikastolen Federazioa	1.000	0	4.101	0	23.161	28.262
Hizkuntz Eskubideen Behatokia	500	0	0	8.398	9.555	18.452
Leitzako Euskaltegia elkarte	0	0	2.510	2.128	11.706	16.343
Burlatako Gauskola kultur elkarte	0	0	2.620	6.484	5.042	14.146
Doneztebeko Euskaltegia kultur elkarte	0	0	0	5.581	6.605	12.186
Ahotsa	0	0	0	0	9.835	9.835
<b>Guztira</b>	<b>17.474</b>	<b>53.640</b>	<b>220.950</b>	<b>518.932</b>	<b>1.058.461</b>	<b>1.869.457</b>

\* Administrazioari fakturaturiko zenbatekoa, non euskararen sustapenarekin zerikusia duten gastuak eta bestelako kontzeptuak sartzen baitira.





Ikusten denez, AEK da funts publiko gehien jaso dituen hartzekoduna, gutzizkoaren ehuneko 58 jaso baitu; nabarmena da 2017an, aurreko urteekin alderatuta, izan duen igoera aipagarria.

2017. urteari dagokion gastuaren ehuneko 82 fiskalizatu dugu, ondoren erakusten ditugun xehetasunen arabera, aurrekontu-gastuaren kapitulu bakoitzetarako.

#### IV. kapituluaren —transferentzia arruntak— lagin baten berrikuspena

2017an honako aurrekontu-partida hauetako espedienteen izapidetzea aztertu dugu:

	Gastua, 2017	Hartzekodunen kopurua	Hartzekodunen kopurua, eskaria	Hartzekodunen gastua, eskaria
Helduei euskara irakasteko laguntzak	697.633	8	7	693.514
Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako laguntzak, euskara sustatzeko	243.926	16	4	98.999
<b>Guztira</b>	<b>941.559</b>	<b>23*</b>	<b>10*</b>	<b>792.513</b>

\* Hartzekodunen kopurua ez dator bat baturarekin, zeren eta hartzekodun bakar bat bi laguntzen onuraduna baita.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen bai aurreko jarduketak, bai partida hauetan jasotako laguntzak emateko prozedura (guztira, diru-laguntzen hiru deialdi dira) aplikatzekoa den araudiaren arabekoak izan zirela.

Honako hau da eskaeran aipatutako hartzekodunen partida hauetatik berrikusitako gastuaren xehetasuna:

Hartzekoduna, eskaria	Gastua, 2017		
	Helduei euskara irakasteko laguntzak	Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako laguntzak, euskara sustatzeko	
	22/E deialdia	38/E deialdia	11/E deialdia
AEK	468.068	43.877	21.897
Arturo Campion kultur elkarte	73.537	6.829	0
Sahats fundazioa	50.854	4.975	0
Bortzirietako Euskaltegia IKA	19.752	2.269	0
Leitzako Euskaltegia elkarte	10.993	713	0
Burlatako Gueskola kultur elkarte	4.375	667	0
Doneztebeko Euskaltegia kultur elkarte	5.935	670	0
Topagunea Euskara Elkarten Federazioa	0	0	63.697
Hizkuntz Eskubideen Behatokia	0	0	9.555
Nafarroako Ikastolen Federazioa	0	0	3.850
<b>Guztira</b>	<b>633.514</b>	<b>60.000</b>	<b>98.999</b>

Egiaztatu dugu euskara sustatzen duten irabazi asmorik gabeko entitateei egindako ordainketak eta haien ondorengo justifikazioa arrazoizkoak eta egoikiak izan direla.





Helduei euskara irakasteko laguntzei dagokienez —haien gastuak diru-laguntza ia guztia hartzen du— eskatzaile bakoitzari esleitutako zenbatekoa eskatzaileek beraiek adierazitakoan oinarritzen da; NFKA da ziurtatzen duena, aurkeztutako gastuen eta diru-sarreraren egiaztagiriekin, laguntza ez dadila defizita baino handiagoa izan; alabaina, ez da egiaztapenik egiten laguntzen eskatzaileek beraiek adierazitako orduei eta datuei buruz, ez eta ikasleei buruz ere.

## *II. kapituluaren —Ondasunak arruntak eta zerbitzuak— lagin baten berrikuspena*

Hurrengo aurrekontu-partidako eskaeran aipatutako hartzekodunei dagokien gastua berrikusi dugu:

	Gastua 2017	Hartze- kodunen kopu- rura	Hartze- kodunen kopu- rura eskaera	Hartze- kodunen gastua eskaera
Euskararekiko sentsibilizazioa eta sustapena	297.543	48	3	54.578

Honako hau da hartzekodunen berrikusitako gastuaren xehetasuna, eskaeran jasotakoa:

Hartzekoduna, eskaria	Gastua, 2017
Labrit Patrimonio	44.478
AEK	10.000
Katakrak kooperatiba	100
<b>Guztira</b>	<b>54.578</b>

Labrit Patrimonio enpresaren gastua hiru espedienteri dagokie: laguntza teknikoa kontratatzea Nafarroako kultura-ondare ez-materialaren zabalpeneko euskarazko ikuskizun baten produkzioa eta antzezpena egiteko (30.000 euro); Iruñeko Konpartsaren Kanpainan parte hartzea (7.236 euro), eta euskararen nazioarteko egunean parte hartzea (7.242 euro).

AEKren kasuan, gastua NFKAk erakunde horrekin 2017ko Korrika antolatzeko egindako babesletza-kontratutik heldutakoa da.

Katakrak Kooperatibarekiko gastua, euskaren nazioarteko egunean parte hartzeari dagokiona da.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen dugu espedienteak aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zirela eta gastuak egoki oinarrituta, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela.



*VI. kapituluaren —inbertsioak— laginaren berrikuspena*

Kontratazio-espedientea aztertu dugu, bai eta honako gastu honen 2017ko betearaztea ere:

Hartzekoduna, eskaria	Kontzeptua	Kontratazio prozedura	Lizitatuak kopurua	Gastua 2017
Labrit Patrimonio	Nafarroako kultura-ondare ez-materialaren aurre-inbentarioa baliozkotzeko informazio-eta kontsulta-prozesurako laguntza ematea	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	2	20.159

Egindako azterketatik, ondoriozta dezakegu espedientea aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zela, eta gastua oinarrituta, justifikatuta eta egoki kontabilizatuta dagoela.

*Gomendatzen dugu egiaztatzea, gutxienez ere lagin baten bitartez, helduei euskara irakasteko laguntzen eskatzaileek adierazitako orduen eta ikasleen datuak bat datozela benetan garatutako jarduerarekin.*

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga





## 2. gehigarria. Animalia Basatiak Sendatzeko Ilundaingo Zentroa

2018ko abuztuan, Ganberak eskaera bat jaso zuen, Animalia Basatiak Sendatzeko Ilundaingo Zentroaren fiskalizazioa egin zezan.

Zentro horrek NFKAri 2013-2017 aldian eragindako gastuak, funtsean, honako hauekin lotuta daude:

- NFKAk GAN sozietate publikoari egindako enkargu bat, animaliei arreta emateko eta haiek biltzeko sarea mantendu eta kudeatzeko.
- Beste gastu batzuk funtzionamendurako materialen eta horniduren erosketari dagozkie (elikagaiak, telefonia eta abar).
- 2013-2015 aldian, aipatutako enpresarekin izenpetutako hitzarmen bat badago, larrialdietako laguntza emateko. Hitzarmen horren eginkizunak 2016an eta 2017an enkargu horri gehitu zitzaizkion.

Aipatutako enkarguan, halaber, 2016an ehizarekin eta arrantzarekin eta 2017an ehizarekin lotutako beste jarduera batzuk sartzen dira; izan ere, “bestelako gastuak” kontzeptuari dagozkion zenbatekoak eta ehizarekin lotutakoak (enkarguan jasotako jarduera bat da hori) aurrekontu-partida berean kontabilizatzen dira.

Gastu horiek eta 2013-2017 aldian artatutako animalien kopurua kuantifikatuta, honako hauek dira emaitzak:

Gastuaren deskribapena	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea (%) 2017/2013	Aldea (%) 2017/2016
GANi egindako enkargua (langile-gastuak eta joan- etorriak)	99.979	82.395	97.365	171.530	176.000*	76	3
Beste gastu batzuk <sup>7</sup>	3.915	11.303	2.896	10.179	30.841	688	203
Larrialdien arlorako hitzar- mena	26.000	25.999	26.000	0	0	-	-
<b>Gastua, guztira</b>	<b>129.894</b>	<b>119.697</b>	<b>126.261</b>	<b>181.709</b>	<b>206.841</b>	<b>59</b>	<b>14</b>
Artatutako animaliak	437	459	556	586	554	27	-5

\* Zenbateko horrek 14.867 euroko gastua jasotzen du, 2017ko abendukoa, zeina 2018ko aurrekontuari egotzi baitzaio.

2017an, 2013arekin alderatuta, gastua ehuneko 59 handitu da; jarduera, berriaz, ehuneko 27 handitu da. 2014an eta 2015ean, gastua 2013koaren antzekoa da, baina 2016an gorakada nabarmena izan du, eta 2017an eutsi egiten zaio. Gorakada horren arrazoa da ingurumeneko aditu bat sartu dela lehen zeuden langileen multzoan; aurreko urteetan jada beharrian hori identifikatuta zegoen, baina krisi ekonomikoko egoera dela-eta ez zen inor kontratatu.

<sup>7</sup> Hemen islatutako gastuak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandakoak dira, eta 2016an ehizarekin eta arrantzarekin eta 2017an ehizarekin lotutako enkarguaren zatiari dagozkion zenbatekoak ere jasotzen dituen aurrekontu-partidaren guztizkotik atera dira.





Datuak 2016koekin alderatuz gero, ikusten da gastua ehuneko 14 handitu dela, funtsean joan-etorri gehiago izan direlako; gainera, beste gastuak ere nabarmen handitu dira, hiru inbertsio puntual egin baitira. Kasu honetan, artatutako animalien kopuruak ehuneko bost egin zuen behera.

Egiaztatu dugu gastuak egoki oinarritu eta justifikatu direla, enkarguan ezarritakoarekin bat datozela, egoki kontabilizatuta daudela eta haiek direla-eta arrazoizko kontrol-prozedurak erabiltzen direla.

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga







## Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

KONTUEN GANBERAREN 2017KO NAFARROAKO KONTU OROKORREI BURUZKO FISKALIZAZIOKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

2017ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazioko behin-behineko txostena aztertuta, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ondoren adierazitako alegazioak egiten ditu:

Lehena.- LANBIDE-ORIENTAZIOKO ZERBITZUA EMATEKO ESPARRU-AKORDIOA dela eta (47. or.):

Esparru-akordio horren xedea da lanbide-orientazioko zerbitzua ematen duten enpresak eta entitateak hautatzea.

Zerbitzu hori araututa dago Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroa onesten duen urtarrilaren 16ko 7/2015 Errege Dekretuaren 8. artikuluan.

Arau horren beraren 3. artikulua zerbitzuaren kontzeptua definitzen du esanez enplegu zerbitzu publikoek egien duten jardueren multzo koordinatua dela, eta modu jarraituan eta iraunkorrean eman behar dela, eta horren xedea dela bere erabiltzaileen eskubiak edo beharrak artatzea, haien enplegarritasuna hobetzeko, enplegurako sarbidea errazteko eta produkzio-sistemaren beharrezkoen estaldura sustatzeko. Gainera, 6. artikulua ezartzen du enplegu zerbitzu publikoek beren erabiltzaileei zuzenean eman ahalko dizkietela zerbitzuak beren baliabide propioekin nahiz horretarako gaitutako entitate laguntzaileen bitartez.

Horrenbestez, aipatutako araua onetsi ondoren eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zerbitzu hori eman beharra duenez, erabaki zen 2016ko amaieran esparru-akordio bat lizitatzeko, haren bidez aukeratu ahal izateko zein entitate emanen dizkieten zerbitzu horiek erakundeak deribatutako erabiltzaileei.

Horretarako, 2017an, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 17ko 295/2017 Ebazpenaren bitartez, kontratazio-espeditentia onetsi eta esparru-akordio hori adjudikatzeko prozedura hasi zen.

Kontratazioaren esparru arautzailea ezartzen duten plegu administratiboek artatu beharreko populazioa sortaka banatzea aurreikusten zuten. 1. sortatik 4. sortara, banaketa lurraldearen arabera egiten zen, eta 5. eta 6. loteak, berriz, berariazko kolektiboetara arreta ematera bideratuta zeuden: batetik desgaitasuna duten pertsonak eta, bestetik, gizarte bazterketako arriskuan daudenak. Azken bi sorta horietan, entitate adjudikazio-hartzaileek Nafarroako lurralde osoko kolektibo horietako pertsonak artatu behar zituzten.

Sorten araberrako banaketa hori justifikatuta dago 5. eta 6. sortetako kolektiboetara arreta emateko beharrezko desberdinak direla eta. Lan-merkatu sartzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboak dira, eta, horregatik, haien arretak berariazkoa izan behar du,





beren egoera pertsonalari eta profesionalari, ahaldunen teknikoei, gaitasunei eta abarrei, betiere laguntza eta jarraipen banakatuta eta jarraitua eskatuz enpleguaren bilaketa-prozesuan. Jarduketa horiek eraginkorrakoak dira baldin eta kolektibo horiei arreta ematen eskarmentua duten entitateek garatzen badituzte. Hartara, 2018ko esparru-akordioko plegu administratiboaren 7. klausulan, kontratatzeko gaitasunari buruzkoan, honako hau jasotzen da: “entitate lizitatzailerak beren xede edo helburu sozial edo fundaziokoetan jasota eduki beharko dute pertsonen lan-orientaziorako eta laneratzeko jarduketak egitea-rena. 4. eta 5. sorten kasuan, beren xede edo helburu sozial edo fundaziokoetan orientaziorako edo laneratzeko jarduketak zuzentzen zaizkien kolektiboari buruzko aipamena jasota eduki beharko dute”.

Kontuen Ganberaren txostenak esparru-akordiotik datozen kontratuen adjudikazio-sistema aipatzen du, plegu administratiboaren 17. klausulan aurreikusita dagoena. Klausula horrek ezartzen du Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak entitate adjudikazio-hartzailea hautatzerakoan lehentasuna emanen diela prozedura horretan puntuazio handiena lortu duten entitateei. 5. eta 6. sortetan (desgaitasuna eta gizarte bazterketa), hautaketa egin ahalko da artatu beharreko kolektiboaren berariazkotasunaren eta ezaugarrien arabera. Kasu honetan, ez zaio lehentasunik emanen lortutako puntuazioari, baizik eta entitate adjudikazio-hartzailearen gaitasunari, eta hori neurtzeko begiratuko da entitate horren jardura noraino datorren bat arretaren xede den kolektiboarekin. Honako hau dio txostenak: “bi sorta horiei buruz pleguetan jasotako aukera kontratazioaren oinarriko printzipioen (berdintasunezko tratamendu eta tratamendu ez-baztertzailerak) aurkakoa da.

2018ko esparru-akordioko plegu administratiboaren 17. klausulan gai horren xehetasunak ematen dira, eta honako hau aipatzen da: “adjudikazio-hartzaileek errazago jakin dezaten artatu beharreko kolektiboaren berariazkotasuna eta ezaugarriak zer diren, horixe seinatu beharko dute beren proposamena aurkezten duten unean, IV. eranskinean ageri den ereduaren arabera; 5. sortaren (bazterketa) lizitaziora edo 4. sortaren lizitaziora (desgaitasuna duten pertsonak) aurkezten badira, gehienez hiru aukera markatu ahalko dituzte”.

Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 21. artikulua, zeina lizitazio-prozedura honi aplikatzekoa baita, ezartzen du entitateek kontratistei berdintasunezko tratamendua eta tratamendu ez-baztertzailerak emanen dietela, eta gardentasunez jardunen dutela, arauak helburu horien arabera interpretatuz eta horretarako Europar Batasuneko jurisprudentziak emandako doktrina errespetatuz. Txostenak argudio gisa erabiltzen du esparru-akordiotik datozen kontratuen adjudikazioetan printzipio horiek urratu izan direla, eta esaten du entitate lizitatzailerak guztiei ez zaiela tratamendu bera ematen, zeren eta adjudikazioa egiten baita ez lortutako puntuazioaren arabera, baizik eta enpresak kasuko sortan bildutako kolektibo jakin batzuk artatzeko daukan gaitasunaren arabera.

Aipatutakoa erreferentziatzen harturik, 2018ko esparru-akordioan, berariazkotasunaren araberrako adjudikazio horrekin, bermatzen ari da entitate lizitatzailerak arreta eman diezaietela arreta hori emateko gaitasuna duten kolektiboari, 7. klausulan ezarritakoari jarraituz. Klausula horrek eskatzen du enpresa lizitatzailerak bere xede sozial edo fundaziokoan jasota eduki beharko dutela beren jarduketak berariazko kolektibo horien (desgaitasuna edo gizarte bazterketa) arretara bideratzen dituztela. Horrenbestez, esparru-akordioko enpresa adjudikazio-hartzaileek egiaztaturik eduki beharko dute pertsona horiekin jarduteko gaitasuna dutela. Hala eta guztiz ere, bi kolektibo horien barruan ere, 2018ko esparru-akordioko plegu administratiboaren IV. eranskinean zehaztu diren egoera ugari bereizi behar dira. Egoera horiek, 4. sortaren kasuan (desgaitasuna), desgaitasun fisiko edo sensoriala, adimenekoa edo mentala dira. Funtsezko desberdintasunak dituz-





ten desgaitasun-motak dira; hori dela eta, horietako bakoitzean entitate espezializatuak egoteko modukoak dira. Agerikoa da desgaitasun fisikoa duen pertsona batentzako lanbide-orientazioko zerbitzua ezin dela izan gaixotasun mentala duen pertsona batentzako zerbitzuaren antzekoa. 5. sortan (gizarte bazterketa), 9 mota bereizten dira (errenta bermatua hartzen duten pertsonak, ijitoen kolektiboko pertsonak, generoko indarkeriaren biktimak, Administrazio Publikoaren tutoretzapean dauden gazteak eta abar). 4. sortan gertatzen den bezala, egoera pertsonal desberdinek zuzeneko eragina dute laneratzean; hori dela eta, entitate adjudikazio-hartzaileek eraginkortasun handiagoa izatea lortzeko, kolektibo jakin horien arretan espezializatuta egon beharko dute.

Bermatu egiten da enpresa lizitatzailerik guztien arteko berdintasuna, zeren eta eskaintzak aurkezteko unean sorta horietako bakoitzaren barruan aurreikusitako berariazko kolektiboetako batentzako arreta hautatu behar baita. Kategorien arabera sorta desberdinak egiteak —desgaitasunaren atalean, hiru sorta dira: fisikoa, mentala edo adimenezkoa— eraginkortasun-arazoak planteatzen ditu; lehenbizi, une bakoitzean mota horretan dauden langabetuen kopurua zehazteko zailtasunarengatik, eta, bigarrenik, sorta jakin batzuk (adibidez, gaixotasun mentalarena) eman gabe deklaratzeko aukerarengatik, kontratatutako zerbitzuen kopuru eskasa dela eta. Horrenbestez, ikusita entitate lizitatzailerik beren arreta-lehentasunak adierazita zituztela eskaintza aurkezteko unetik beretik, sorta horietatik datozen kontratuen adjudikazioa bi baldintzaren arabera egin zen: adjudikazio-irizpideen aplikazioan lortutako puntuazioa, eta entitateak egindako arretaren kategoria hautatzea. Formula horrek ez ditu berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioak urratzen, zeren eta plegu administratiboan argi definiturik baitago, eta entitate guztiak kontratuen adjudikazio-prozedura beraren pean baitaude, lehentasuna emanez, kolektibo berak aukeratu dituztenen kasuan, puntuazio handiena lortzen duenari. Azkenik, aipa daiteke ezen esparru-akordioa 2018ko abuztuan adjudikatu dela, eta inongo entitatek ez duela haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu; hori dela eta, irmo bilakatutako egintza administratibo bat da, alde guztiak lotzen dituena.

Ondoriozta daiteke ezen, lanbide-orientazioko zerbitzua emateko esparru-akordioaren 17. klausulak ez dituela aipatutako printzipioak urratzen; izan ere, bermatu egiten du entitate adjudikazio-hartzaileak espezializatuta daudela kolektibo horien arretan, eta horrek zuzen-zuzeneko emaitza dakar zerbitzuaren eraginkortasunaren eta kalitatearen ikuspuntutik.

Bigarrena.- SODENARI ABALAK EMATEKO BAIMENAK EMATEARI dagokionez, SOZietate ETA FUNDAZIO PUBLIKOEN V.14 kapituluan, Sozietate Publikoen atalean (79. or.).

Behin-behineko txostenak honako hau dio:

a) Zorpetze eragiketegi dagokienez, bi gorabehera aipatzen dira: horietako bat GAN enpresaren aurrerakin batekin lotuta dago, eta konponbidea eman zaio jada; bestearren arrazoia da SODENAK abalak eta maileguak egoki ematen dituela, nahiz eta abal gehienetan Nafarroako Gobernuak ez duen baimen formalik ematen; izan ere, baimen hori gerotik eman dela ageri da jasota. Horri dagokionez, aipatu behar dugu SODENAK abala eman aurretik egin zituela baimen-eskaerak, baina NFKAren izapidetzea geroratu egin zela.

Horri dagokionez, ondorengo alegazio hauek egin behar dira:

Txostenak dio NFKA geroratu egin zela SODENARI baimenak ematerakoan.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 20. artikulua ezartzen du ezen autonomia-erkidegoren batean aurrekontu-





egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburuen ez-betetzereen bat gertatzen bada, pertsona fisiko edo juridikoen kreditu-eragiketetan abalak, berrabalak edo beste berme batzuk emateko Estatuaren baimena beharko dela. Nafarroako Foru Komunitateak defizit-helburua urratu zuen; hori dela eta, nahitaezkoa zen Estatuak baimena ematea SODENAK eskatutako abalak eman ahal izateko. Autonomia Erkidegoekiko Finantza Harremanetarako Zuzendariordetza Nagusiak martxoaren 2an errekerimendu bat egin ondoren, Ministroen Kontseiluak baimen hori eman zuen 2017ko apirilaren 21eko erabakiaren bidez. Soil-soilik 7 egun iraganda, apirilaren 28an, abal horiek baimentzeko gobernu erabakiaren proposamena egin zen. Erabakia maiatzaren 10ean onetsi zen. Hori dela eta, gure ustez justifikaziorik ez du esateak NFKA geroratu egin zela baimen horiek ematerakoan.

Hirugarrena.- AURREKONTU-EGONKORTASUNARI buruzko atalean, eta zehazki GASTU-ARAUARI dagokionez (33. or.):

Behin-behineko txostenak honako hau dio:

“Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak 2018ko urrian kalkulatu-tako datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektorak gastu-araua bete du, zeren eta 2017an haren gastu konputagarriak ehuneko 3,2 egin baitu gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta; igoera-tasa, berriz, ehuneko 2,1ean finkatuta zegoen.

Txosten honi buruz, honako hau zehaztu behar dugu:

Nafarroako zenbatekoen arabera, % 2,7koa da portzentaje hori; hau da, helburu-arekiko desbideratzea % 2,1ekoa da, 17 milioikoa. Alde horren arrazoia da bi administraziook bi desadostasun badauzkagula:

Bata 8 milioikoa da, eta 2017rako ekarpenaren zenbatekoari dagokio. Guztizko gastuaren bolumenerako, ekarpenerako gure zenbatekoa erabiltzen ari dira —foru aginduek eta egiaztatutako kutxa-fluxuek osatuta dago—, baina gero gastu ez-konputagarri moduan, beren kontabilitatean ageri dena kentzen dute, zeina 8 milioi txikiagoa baita; hori dela eta, gure gastu konputagarria 8 milioi “hanpatuta” dago, haien akats bat dela medio. Akats hori ministerioari komunikatu zitzaion, baina oraindik ere zuzendu gabe dago.

Eta bestea, 5 milioikoa, honako honi zor zaio: Toki Ogasunen Funtsaren gastua gastu konputagarritzat hartu da zinegotziei ordaintzearen ondoretarako. 2016an ez zen konputagarritzat hartzen, baina 2017an halakotzat hartzen da. Gai hau ere Estatuaren Kontu-hartze Orokorrek konpondu gabe dago.

Iruñean, 2018ko azaroaren 12an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun





## **Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna.**

Eskerrak eman nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantzen zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egingandako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga





## 2017ko Kontu Orokorraren Oroitidazkiaren laburpena

